

Goienkaria

2008ko uztailaren 18a > Egubakoitza > VIII. urtea > 341. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Lanean dabil
Arrasateko
Udala, nahiz
eta sozialistak
batzordeetara
ez etorri"

Itziar Lamarain
PPko zinegotzia
Arrasaten > 09



G2a

ARTaso elkarte
sortu dute, artea
sustatzeko > 35-36

OÑATI

Tanatorio zerbitzua du Oñatik
oraingo astetik aurrera > 06

ARETXABALETA

Arkupe kultura etxea kudeatzeko
lehiaketa deitu dute berriz > 24

AGINTALDIAREN 1. URTEA

Oñatiko alkate Lurdes Idoiak
urtearen balorazioa egin du > 26

JENDARTEA > AHT-REN AURKAKO MUGIMENDUA

AHTren lanak hasi direla salatuko dute gaur iluntzean

LANAK Obren hasiera eta erakundeen jarrera salatu gura dute Arrasateko plazan egingo den elkarretaratzearekin

PRENTSAURREKOA Eguaztenean egindako agerraldian, Debagoieneko hamarnaka lagun bildu ziren > 04

BERGARA > ZERBITZUAK

Udalak gertu ditu kanpoko igerilekuko planoak

Bergarako Udalak badauzka kanpoko igerilekuko behin-behineko planoak –barruko orrietan ikus daitezkeenak–, irailan jasoko du exekuzio proiektua eta lehiaketa publikora aterako ditu lanak. Asmoa da obrak urrian hastea. Horrenbestez, oraingo uda izan daiteke Bergarako kanpoko igerilekuri gabe ematen duen azkena. Gaur egun belardia dagoen eremu gehiena hartuko du kanpoko igerilekuak. > 13, 20

OBRAK > ERREPIDEAK

Eskoriatzako zirkulazioa desbideratu egingo dute

Gaur, 22:00etatik 06:00etara arte, GI-627 errepideko zirkulazioa desbideratu egingo dute Eskoriatza parean; hain zuzen ere, 29. kilometro puntuan. Tarte horretan ibilgailu arinak Eskoriatzako hirigunetik desbideratuko dituzte, eta ibilgailu astunak GI-632 errepideetik, Kanpazartik. Aurrefabrikatutako 17 metro eta 70 tonako habea jarriko dute, San Bernabeko oinezkoendako pasabideko hirugarren barea osatzeko. > 05



IRABAZLE Amaia Doyaguek Gipuzkoarekin Expoko Bandera irabazi berri du.

EGUZKIÑE

KIROLA > ELKARRIZKETA AMAIA DOYAGUE ARRAUNLARI MONDRAGOETARRARI

"Kontxan lehiatzeko, Gipuzkoako txapelkun izan behar dugu"

Doyaguek Gipuzkoako Arraun Txapelketa jokatu du hilaren 23an > 18

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08

Elkarrizketa > 09

Iritzia > 10

Gutunak > 11

Herriak > 13-31

Kirola > 32-33

Kultura > 37

Sailkatuak > 38

Eskelak > 39

Denbora-pasa > 40

Gazteak > 42

Komunikazioa > 43

Telebista-Irratia > 44

Non-zer > 46-47

ONDAREA > AURKIKUNTZA

Sevillako katedraleko plano zaharrena Oñatiko komentu baten aurkitu dute

Oñatiko Bidaurretako mojen komentuan aurkitu dute Sevillako katedraleko planorik zaharrena; eskalara egindako lehena.

Arkitekto baten gaineko ikerketaren harira iritsi dira plano horren berri izatera eta komentuak beste urte –500 bat– dituen planoak artxiboan gordea izan dute mojen urte hauetan guztietan.

Uste guztien arabera, komentuaren fundatzaile Lopez de Lazarragak, garai hartan Errege-Erregina Katolikoaren konfiantzako gizona zenak, ekarri zuen planoak Bidaurretara. Sevillako katedraleko konpromisoa hartu dute zaharberritzeko, erakusketa batean ipintzeko eta berriz Oñatira bueltatzeko. > 02-03

OMU
KERAMIKAK

• zeramika
• bainuak
• eraikuntzarako materiala



BILTEGIA/BULEGOAK
Meatzerreka 6 • Arrasate
943 79 14 28 • Faxa: 943 79 40 43

ERAKUSKETA
Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate
943 79 07 20

ARTEA > ARKITEKTURA

Bidaurretan aurkitu dute Sevillako katedralaren planorik zaharrena

PLANOA Ruesga arkitektoaren gainean hasitako ikerketa baten harira aurkitu dute Bidaurreta komentuko artxiboan Sevillako katedralako lehen planoak

FUNDATZAILEA Uste guztien arabera, komentuari fundatzaile izan zen Lopez de Lazarragaren eskutik iritsi zen dokumentua Oñatira

BERRITU Dokumentua tolestuta egon denez, hondatuta dago eta Sevillan zaharberritzeko konpromisoa hartu dute katedralakoek

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

Sevillakoa da munduko katedral gotikorik handiena. Katedral horrek badu loturarik gure ibarrek; izan ere, katedrala egiteko erabili zuten oinarriko planorik zaharrena gurean, Oñatiko Bidaurretako komentuan, aurkitu dute.

Kantabriako eta Sevillako bi ikertzaile izan ziren Bidaurretako monasterioan eta baimena eskatu zieten mojei artxiboan zeuzkaten planoak ikusteko. Bertan aurkitu zuten 46x55 cm-ko planoak. Dirudienez, orain arte Espainian ez da sekula aurkitu eskalara egindako plano zaharrik.

"Begoña Alonso Kantabriako unibertsitateko ikertzaileak deitu zigun baimena eskatuz elizako argazkiak ateratzeko. Itxuraz, ikerketa egiten zebilen Ruesga izeneko arkitekto baten gainean. Bazuen zantzuren bat arkitekto hori gure elizan egona izan zitekeela. Bestalde, Bidaurretaren gainean liburu bat idatzia duen Maria Jose Lanzagortak bazuen harremanik Begoña

Alonsorekin eta Lanzagortak deitu zigun galdetuaz ea planoak ikusteko aukerarik bazegoen. Esan genion berak libururako erabili zituenean bezalaxe geneuzkela. Hortaz, etorri zen berriz Begoña Alonso Sevillako katedralako ordezkari Alfonso Jimenez Martinekin. Biak egon ziren planoak ikusten eta argazkiak ateratzen eta Begoña Alonso asko poztu zen ikusita planoetako batean Ruesgaren izena zegoela; hain zuzen ere, bera ikeritzen ziharduena".

Horrela azaldu dizkigu aurkikuntzaren aurretik emandako pausoak Bidaurretako artxiboko arduradun Araceli Azurtzak. Arantxa Gastesirekin batera zaintzen du artxiboa hark. "Ni Letretan lizentziaduna naiz eta komentuan sartu orduko ipini ninduten artxiboko arduradun, eta Arantxa Gastesik nirekin jarduten du, ni adinean aurrera noalako: 88 urte ditut. Orain arte nik igo eta jaisten nituen artxibatutako dokumentuak. Izan ere, tesietarako informazio bila etortzen da gurera jendea, gure artxi-

Orain arte sekula aurkitu den eskalara egindako planorik zaharrena, Sevillako katedralarena, Oñatin aurkitu dute ikertzaileek

Bidaurretako komentuko artxibora jende askok jotzen du informazio bila tesiak gertatzeko; artxibo ona izateaz gain, katalogatuta eta egoera onean dituzte dokumentuak

boa ona delako, ondo gordea eta katalogatua, gainera. Ez dugu uzten dokumenturik ateratzen, baina gero eta gehiago dira ordenagailuarekin eta kamerekin etortzen direnak".

AURKIKUNTZAREN BERRI

Ikerketaren ostean, Sevillatik jaso zuten Bidaurretan egindako aurkikuntzaren berri. "Handik gutxira Sevillako katedralako dekanak idatzi zigun, esanaz, datu historiko bat eman behar zigitela: ikertzaileek emandako argazkietan ikusten zela inoiz aurkitu den Sevillako katedralako planorik antzinakoena dela. Begoña Alonsok ere deitu zigun gauza bera esanez", azaldu digu Araceli Azurtzak.

Artxiboko arduradunak kontatu digu planoaren atzeko partean idatzita dagoela *Traza de la iglesia de la Santísima Trinidad*. "Artxiboa ordenatzerakoan ibili izan dugu esku artean plano hori. Izan ere, gordeta daukagu gure etxeko planoak gordeta dauzkagun bezalaxe. Idatzi horrek zalan-tzak eragin zizkigun, ez zeterrelako bat gure elizaren trazarekin. Seguru aski eredu moduan hartu zuten, baina fundatzailea frantziskotarra eta arrunta izanik, seguru aski gauza arruntagoa egitea erabaki zuen hemen. Mojok zintzo gorde dugu 600 urtean barrena eta ez dugu sekula atera, ez genuelako inolako antzekotasunik ikusten gure etxeekin; hortaz, ez genion garrantzirik ematen beste, plano eta irudi batzuekin egin dugun moduan. Gorde baino ez dugu egin", azaldu digu artxibozainak.

LOPEZ DE LAZARRAGAK EKARRIA

Planoa Oñatira nola iritsi zen ziurtasunez inork ez daki, baina ustea da Bidaurretako komentuari fundatzaile Lopez de Lazarragaren fundatzaile izan zela.



Arantxa Gastesi, Sevillako katedralako lehen planoak

Historian aditua den Jerardo Elortza oñatiarrak ere hala izan zela uste du: "Lazarraga urte haietan Errege-Erregina Katolikoek konfiantzako gizona izan zen. Isabelen testamentu-beteazalea izan osten idazkari ere izan zela uste dut; eta beste kargu batzuk ere izan zituen gortean. Garai hartan noblea zela esan duenik ere bada, baina orduan Lazarragatarrak ez ziren nobleak, kapareak beharbada, jende inportantea bai, dudarik gabe, baina nobleak ez. Familia hori ez da noblea izan oraintsu arte. Horiek dira Sotomayorreko dukeak, oraingo Martinez de Irujo familiakoak. Horietako bat ezkondu zen Albako dukesarekin, abizena hartu zuen eta Martinez de Irujok ekarri zuen titulua orain dela ehun urte. Familia garrantzitsua izan da Oñatin. Orain Etxe Haundi jatetxea dagoen baserrikoak dira berez, baina plaza ondoko dorretxera joan ziren XV. mendean bizi izatera, beste etxea mantendu zuten arren. Hortaz, beti izan da familia aberatsa, izen handikoa eta garrantzitsua herrian orain dela gutxira arte eta titulua izan zuten XIX. mendean. Lazarragatarraren izena oso ezaguna da Oñatin", azaldu digu Jerardo Elortzak.

ARTEA

Bidaurretako komentua dotorea bezain arrunta izanik, artearen altxorren gordailu da

Bidaurretako komentua arte aldetik duen pisua esanguratsua da, eta hala esan digu Jerardo Elortzak: "Bi erretaula dauzka, oso dotoreak: bat platereskoa eta bestea barrokoa".

Orain dela 20 urte pasa sartu zen Elortza komentuan Oñatiko historia eta arte bilduma egiteko. "Barrutik ez da horren dotorea, baina bai interesgarria, eta jatorrizko egitura oso ondo gorde du: klaustroa; mojen gelak eta pasabide luzea; jangela XVI. mendeko azulejoak dituena... Orain, Bidaurretara joanez gero ikus daitezke bakarrik komentuko sarrera eta eliza". Haren esanetan, "Flandestik ekarritako Ama Birjina eta santuen irudi txiki batzuk ere badaude, eta baita koadroak ere".

Laster beteko dira 500 urte komentua eraikitzen hasi zirela eta Elortzak esan digu interesgarria litzatekeela "erakusketaren bat egitea eta urtean behin edo birritan zabaltzea Bidaurretako komentua jendeak bere balioaren berri izateko, euren bizimoduan trabarik egin barik, noski".



esku artean duela. Hura da, Araceli Azurtzarekin batera, Bidaurretako komentuko artxiboaren arduraduna.

LEIRE KORTABARRIA

Lazarragak XVI. mendean agindu zuen Bidaurretako komentua eraikitzea, ez zelako Oñatiko kondearekin konpondu. Jerardo Elortzak kontatutakoaren arabera, "Lopez de Lazarragak eskatu zion kondeari parrokiaren kapera bat egiteko, bertan lurperatzeko, eta ez zion baimenik eman. Diotenez, kondea nahiko burugogorra zen. Hortaz, Lazarragak agindu zuen bere eliza egitea. Oñati ez zen Gipuzkoa garai hartan, baina diotenez eremu honetako lehenengo mojen komentua izan zen".

Testuinguru horretan, ez da hain harriztekoa plano Oñatin, Bidaurretan, agertzea. Komentua eraikitzen hasi ziren 1510ean eta hamar urte inguru iraun zuten lanek. "Seguru aski bere paperak eman zituen komenturako eta paperen artean baita plano hori ere", dio Elortzak.

Artxiboko arduradunak ere bat datoz horrekin eta historiarren ikuspegitik azaldu digute prozesua: "Lurrikara baten ondorioz, katedraleko zinborioa zartatu zen. Horren harira, Lazarragak batzorde bat izendatu zuen Ruesga eta Malpaso arkitektoekin konponketak nola egin erabakitzeke. Aldi berean, gure komentua egitekotan zen. Hortaz,

"Lopez de Lazarragak eskatu zion Oñatiko kondeari parrokiaren kapera egiteko, eta baimenik eman ez ziolako Bidaurretako komentua eraikitzea agindu zuen"

"Sevillatik eskatu digute urrian egingo duten erakusketa baterako ea utziko diegun plano; eta gero, orain arte bezala Oñatin gorde dezagun, itzuli egingo digute"

uste da Larrañagak arkitekto horiek ekarri zituela Oñatira Bidaurretako elizarako ideiak emateko eta orduan ekarri zuela Sevillako plano originala. Horrelako gauzek pisua eta garrantzia irabazten dute denboraren joanean; izan ere, egiten dihardutenean, ia oharkabean pasatzen dira eta galduz gero beste bat egiten da. Guk uste dugu plano gurera iritsi zela eliza egiten hasi zirenean. Sevillako batzarra 1499an egin zuten eta gurera geroago etorri ziren fundatzailea eta arkitektoak, eta eraikuntza lanak gure elizan 1509an hasi ziren; aurki beteko dira bost mende lehen harria ipini zutela".

ESKALAN LEHENA

Aurkitu duten plano hori omen da lehenengoa eskalara egindakoa, eta sekulako balioa duena. Izan ere, adituen esanetan, garai hartan ez zegoen ohiturarik planoak eskalara egiteko. Harginek orduan ez zekiten marrazten eta eraikinen trazatuak tamaina errealean egiten zituzten makilen eta harrien laguntzaz. Hortaz, espero dute plano honek katedralaren eta garaiko arkitekturan gainekeo klabeak emango dituela, orduan hasi zirelako metodo horiek erabiltzen.

SEVILLA ETA OÑATI

Oñatik eta Sevillak merkataritza harremanak izan zituzten XVI. eta XVII. mendeetan

Plano batek lotu ditu Sevilla eta Oñati, baina urtetan izan da beste loturarik elkarren artean. Jose Antonio Azpiatzuk Oñatiko historialariak merkataritzan izandako garrantzia azpimarratu du: "XVI. eta XVII. mendeetan, Amerikarekiko merkataritzaren monopolioa zuen. 1540an euskal komunitateak Errukizko Amaren kongregazioa sortu zuen eta gipuzkoarrek eta bizkaitarrek euren interesak defendatu zituzten erakunde horren bidez. Oñatiarrak ere baziren elkarre horretako kide; ez, ordea, nafarrak eta arabarrak. Gipuzkoako eta Bizkaiko pertsonaiekin, elkarren txandan, zerrenda osatu zuten eta tartean ziren Julian de Verganzo eta Celedon de Asurdui oñatiarrak ere". Azpiatzuk azaldu digu Oñati erakunde horretan sartzeko hainbat arrazoi bitxi daudela: "Oñati hiribildu noblea eta onradua da, non jende eskuzabal eta balio handiko pertsonak dauden eta Sevillara euren tratu eta merkataritza jardueran prestatuak diren herritarrek bidali dituen. Gainera, lotura, anaitasun eta laguntasun harremanak izan ditu Gipuzkoa eta Bizkaiarekin". Horrela, Oñati barrualdeko euskaldunendako erreferentzia bilakatu zen itsasoko merkataritzari eta zehazki Sevillarekiko harremanari dagokionez.

ZAHARBERRITZEA

Aurkikuntzaren berriak sona izan du inguruan eta mojek esan digutenez, plano zaharberritzeke konpromisoa hartu dute Sevillan. "Planoa paperean egin da eta tolestuta egonik hainbeste urtean, hondatuz edo ahulduz joan da. Gainera, eskatu digute urrian egingo duten erakusketa baterako ea utziko diegun plano. Erantzun diegu gu ere poztu gaituela aurkikuntzak eta utzi egingo diegula. Gainera, segurtasun osoz zainduko dutela ziurtatu digute eta ondoren guk jarraituko dugu Oñatin, Bidaurretako komentuan gordetzen orain artean bezala. Zaharberritze kontua ez dakigu nola egingo dugun. Izan ere, hemen gertuan koadroekin lan egiten dutenak ezagutzen ditugu, inoiz zaharberritu dituztelako gure koadroak, baina pape rarekin lan egiten duen inoren berri ez daukagu oraingoz. Hortaz, beharbada Sevillan egingo

dute lana, ez genukeelako nahi guk ezer gaizki egin eta ardura gure esku uzterik. Gure komentuko plano, esaterako, garai bertsukoa da eta gordea dugu, baina zatiak falta zaizkio, nola hala itsatsita dago... Baina kontuan hartu behar da Sevillakoa txikiagoa dela eta hobeto mantenduta dagoela. Hala ere, hainbeste urteren ostean, berritzeke beharra badu. Orain zain gaude ea nola ipini euren eskutan plano", azaldu digu Bidaurretako moja Araceli Azurtzak.

Klausurakoa da Bidaurretako komentua eta dokumentu garrantzitsu hori ere halaxe egon da urtean, klausuran, ezkutuan gordeta. Araceli Azurtzaren esanetan, "gure bizitza moduan gordean mantendu dugun zerbait izan da. Parekatzeko modukoak dira gure bizimodua eta planoarena, biak isilean, gordeta egon direlako. Gainera, komentuko planoak beste urte dauzka".



MONDRAGON GOI ESCOLA POLITEKNIKA

GOI-MAILAKO

HEZIKETA ZIKLOAK



ETEO, KOOP. E.

www.eps.mondragon.edu

2008-2009

www.eteo.mondragon.edu

Ezohiko matrikula epea

uztailaren 17tik 22ra



Lanerako gertu!

ESKAINITZA AKADEMIKOA

| MGEP | ETEO |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> •Eregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak •Informatika Sistemen Administrazioa •Informatika Aplikazioen Garapena •Proiektu Mekanikoen Garapena •Mekanizazio Bidezko Produksioa •Industri Ekipoaren Mantenimendua | <ul style="list-style-type: none"> •Administrazioa eta Finantzak •Idazkaritza •Merkataritza Kudeaketa eta Marketignia •Nazioarteko Merkataritza |



Hamarnaka lagun bildu ziren joan den martitzenean Arrasaten egindako agerraldian.

MIRIAN BITERI

AZPIEGITURAK > ABIADURA HANDIKO TRENA

Gaurko elkarretaratzera joateko dei egin dute AHTren aurkakoek

Abiadura Handiko Trenaren obrak Debagoiengan hasi direla salatzen direla elkarretaratzea egingo dute gaur Arrasateko plazan, 19:00etan

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Joan den astean Abiadura Handiko Trenaren (AHT) obrak hasi ziren gurean. Eskoriatzako Marin eta Mazmela auzoetan dagoeneko makinak sartu dituzte; Aramaion, berriz, Bolinburu baserri inguruan.

Hori dela eta, Deba bailarako AHTren aurkako kideek agerraldia egin zuten martitzenean Arrasateko Kulturaten. Eskualde osoan hamarnaka lagun bildu ziren han, azpiegitura horri ezetza emateko eta erakundeen jarrera gogor salatzen.

Egoera horren aurrean, protestak antolatzen hasi direla jakinarazi zuten. Hala, gaurko, egubakoitza, elkarretaratzea deitu dute Arrasateko Herriko Plazan, 19:00etan. Horrendako aukeratu duten leloa *Obrak Gelditu! AHT-rik ez!* da. Ondoren, azpiegitura horren lanen gaineko bilera informatiboa egingo dute gaztetxean.

Martitzeneko agerraldian Maier Usobiagak eta Hilario Manzanedok jardun zuten bozeramaile. Obrak "isilean eta ezkutuan" hasi direla salatu zuten: "Beste behin, munduko lur eta uren jabe direla sinisten duten politikari eta diruzale jauntxoek udako egunak baliatu dituzte modu makurrean ama lurrari inoizko zauririk itzelen egingo".

Gaineratu zuten horrelako ekintzekin Eusko Jaurlaritzako eta Espainiako Ministerioko ordezkariak berriro erakutsi dutela herri eta norbanakoen gainetik "inposatzen" ari diren "makroproiektua" dela.

"ONARTEZINA"

Ohartarazi zuten, baina, ez dutela "inolaz" onartuko azpiegitura "antisoziala, ekonomikoki baliabide eta diru zahutzailea eta ekologikoki txikitzailea". Hain zuzen, adierazi zuten egitasmo horrek dakarren gizarte eredu "jasangaitza" dela.

Deba bailarako AHTren aurkako kideen esanetan, erakundeek "arreta txikiak" jarri diote herriari. Horren harira, gizartearen "gehiengoa" proiektu horren aurka dagoela azpimarratu zuten.

Garai "benetan larriak" ari garela bizitzen esan ostean, nabarmendu zuten proiektu

ESANAK

"Orain da garaia, munstro honi behin betiko ezetza esateko, proiektua aurrera atera nahi dutenei gelditzea exijitzeko"

M. Usobiaga > AHTren aurkako

horrekiko oposizioa "gero eta handiagoa eta geldiezina" dela eta, lanak udan hasi badira ere, dituzten "baliabide guztiak" erabiliko dituztela obra "basati" horiek gelditzeko. Deba bailarako AHTren aurkako kideen arabera, "orain da garaia, munstro honi behin betiko ezetza esateko, proiektu hau aurrera atera nahi dutenei gelditzea exijitzeko eta guztion artean denon beharrak



Abiadura Handiko Trenaren lanak, Eskoriatzako lurretan.

GOIENKARIA

aseko dituen proiektu soziala eraikitzeko". Azkenik, astelehenean Lukuko obretan izandako heriotza salatu gura izan zuten. Lan baldintza txarrei eta segurtasun neurri faltari leporatu zioten heriotza hori.

"BOTERE ABUSUA"

Bestalde, Aramaioko herritar kaltetuen izenean, Judith Arriolabengoak AHTren gainean dagoen "botere-abusua" arbuatu zuten: "Itxura denez, denak balio du". Hala, jakinarazi zuten proiektuaren onarpen eta tramitazioan jarraitu beharreko prozedurak "behin eta berriro salto" egin dituztela: "Legeen gainetik, okupatu aurreko aktak egiteke daukela, makinak sartu dituzte".

Horretaz aparte, azken hilabeteotan, herriaren poliziaren presentzia eta kontrolak ugartu direla azaldu zuten: "Proiektu txikitzaile honen obrak inposatzen ari dira, poliziaren indarkeriaz eta beldurrarazteaz baliatuz".

Amaitu aurretik, gizartearen "benetako hausnarketa" egiteko dei egin zuten Arriolabengoak. Bigarren gonbita ere egin gura izan zuten: "Nahi duena Aramaioko Bolinburu ingurura etor daiteke, bertan egun gutxitan egindako eraso ekologikoez ikaratzeko".

Bailarako gainontzeko tarteretan, bestalde, berritasunak dauka. Onbideko Juan Karlos Belokik azaldu du dagoeneko Udaltxeko bidegurutzearen inguruko proiektu basikoa egina dagoela; horren gaineko berririk, baina, ez dagoela dio. Aramaio-Arrasate eta Arrasate-Elorrio tartean, gainera, katastroetan aldatu egon direla eta berriro argitaratu behar dutela Espainiako Aldizkari Ofizialean esan du.

ERREPIDEAK > MOZKETAK ETA LANAK

Eskoriatzako zirkulazioa desbideratuko dute gaur

Eskoriatzako sarrerako GI-627 errepidea moztuko dute 22:00etatik 06:00etara

San Bernabe atsedenekuko oinezkoendako pasabide berria amaitzeko lanak egingo dituzte

MIREIA BIKUÑA > ESKORIATZA

AP-1 autobideko lanak aurrera doaz, eta, azken egunotan Aretxabaletan gertatu den antzera, Eskoriatzan errepidea itxi eta zirkulazioa desbideratuko dute gaur gauean. Hain zuzen, GI-627 errepidea itxi egingo dute 29. kilometro puntuan, 22:00etatik 06:00etara. Tarte horretan ibilgailu arinak Eskoriatzako hirigunetik desbideratuko dituzte, eta ibilgailu astunak GI-632 errepidetik, Kanpanzartik.

OINEZKOENDAKO PASABIDEA

Eskoriatza parean, GI-627 errepidearen gainean, oinezkoendako pasabide berria egiten dihardute; hain justu ere, San Bernabeko atsedenekuan egingo dute pasabidea. Aurrefabrikatutako 17 metro eta 70 tonako habea jarriko dute, oinezkoendako pasabidearen hirugarren baxoa (*vano*) osatzeko. Lan horiekin eta aurretik eginda daudenekin bukatuko dute 51 metroko oinezkoendako pasabidea.

ARETXABALETAKO MOZKETAK

Arbizelaiko zubi-bidea egiten segitzeko astelehenean hasi ziren, Aretxabaletako sarreran, GI-627 errepideko zirkulazioa desbideratzen. Errepide mozketak gaur eta bihar egingo dituzte, 22:00etatik 06:00etara. Hain zuzen ere, 32,450 kilometro puntutik 32,560 kilometro punturaino. Hala, ibilgailuak Aretxabaletako iparraldeko lotuneko bide-adarretatik desbideratuko dituzte.

AP-1 autobidean, Arrasate eta Aretxabaleta artean egiten dabilzan Arbizelaiko zubiaren

taula jartzen dabilza asteon, eta, segurtasun baldintzarik egokienetan jartzeko, itxi egin dute Aretxabaletako saihesbidea.

Babes atariak jartzen dihardute langileek, Arbizelaiko zubia osatuko duen 123 metroko taula jartzeko gero. Atariek sei metroko altuera izango dute eta 110 metroko tartean jarriko dituzte. Zubiak 408 metro izango ditu guztira, eta horietatik 151 metro dagoeneko eraikita daude. Orain 123 metro jarriko dituzte, eta abuztuan geratzen diren 134 metroak.

DIRURIK EZ ARABAKO ALDUNDIARI

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez dio dirurik eman Arabakoari; AP-1 autobideko lanetan izandako atzerapenengatik, Arabako Diputazioak diruz konpentsatzeko egindako eskariari ezetz erantzun dio. Alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak gogorarazi dio Gipuzkoak bere gain hartu zuela Izuzkitzako tunelaren kostua, nahiz eta tunel horretako kilometroetako bat Arabatik pasatzen den. Beste alde batetik, Gipuzkoako Diputazioak esan du autobidea egiteko eta finantzatzeko izenpepetu zuten akordioan ez dela konpentsazio neuririk jasotzen.

Arabako Diputazioak sei mila euro eskatu dizkio Gipuzkoakoari autobidearen lanetan izandako atzerapenengatik –Arabako exekutiboak aurreikusten du 465.000 euro galtzen dituela egunero–.



Eskoriatzako San Bernabe oinezkoendako pasabidean lanak egiten dihardute.

GOIENKARIA

OÑATIKO ERREPIDEAN LANAK


Bestalde, Oñatitik igarotzen den GI-2630 errepideko hainbat zati berritzeko partida onartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Hain justu ere, zoruaren egitura zaharberrituko dute 14,870. eta 17,910. kilometro puntuen arte-

an –Olapotoko azkeneko semaforotik Belatxarako gasolindegira doan errepide zatia–. Guztira, 1,7 kilometro berrituko dituzte. Besteak beste, egun dagoen zorua fresatu eta berritu, hormigoizko areka batzuk egin eta goratu, eta sarbideetan sakanguneak egingo

dituzte. Gainera, kutxetak berrituko dituzte. Gipuzkoako Diputazioak zehaztu duenez, zaharberritzearen aurrekontua 861.000 euro izango da. Enkante bidez esleituko dira eta hiru hilabeteko epea izango dute Oñatiko lanok egiteko.

Arbizelaiko zubia: AP-1 autobideko zatirik ikusgarriena

Aretxabaletako sarreran, GI-627 errepidearen ezkerretara, eraikitzen dihardute Arbizelaiko zubi-bidea. Zubiak 560 metro luze eta zazpi pilare izango ditu. Pilare horietako biren arteko distantzia 140 metro izango da; horregatik, kableekin babestuko dute zubia. Irudian, zubia zela geratuko den.



GOIENKARIA

DATUA

51
METRO

Hori da San Bernabeko atsedenekuko oinezkoen pasabideak izango duen luzera. Orain arte 35 metro egin dituzte, eta gaurko zirkulazio mozketekin gainerako 17 metroak egingo dituzte.

Ford Focus Berria 14.900€

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g.
ARRASATE-MONDRAGÓN

Feel the difference

Bi zonako aire-girogailua. Abiadura-Kontrola. Egonkortasun-Kontrola (ESP). Trakzio-Kontrola (TCS). Frenoak ez Blokeatzeko Sistema (ABS). CD6000 Audioa

Pamiela argialetxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA VIII. Saiakera saria


antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gai buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 €

Lanak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea-31013 IRUÑEA.

Irailaren 30a arte.

Tel.: 948 326535
soltxate@pamiela.org
Aruak: www.pamiela.org



2008

> ARRASATE

KZguneko ikastaroak, bertan behera

Arrasateko KZgunek gogorazten du uztailako ikastaroak bertan behera geratu direla. Bestalde, iraileko ikastaroak iragarri ditu: bat-bateko mezularitza (irailaren 3an eta 4an); Eustat (irailaren 4an); sinadura elektronikoa (irailaren 5ean) eta kontsumitzaila sarean (irailaren 5ean). Argibideak 943 79 35 54 telefono zenbakian edo tutor.arrasate@kzgunea.net helbidean. KZGunea (Otalora, 10) astelehenetik ostiralera dago zabalik, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

> ARRASATE

San Josepeko harrobiaren ideia lehiaketa

Arrasateko Udalak jakitera eman duenez, San Josepeko harrobiaren ideien lehiaketan irailaren 30era arte izango da zabalik. Proposamena aurkeztu dezakete lehiaketan aurrez izena emanda daukaten pertsona eta enpresek; guztira 67 inskripzio orri jaso zituzten. Jasotako lanak Kulturaren jarriko dira erakusgai urriaren 14tik azaroaren 9ra arte. 2009ko apirillean jakingo da irabazlea nor den.

> BERGARA

Gaztelania euskararen maila berean erabiltzea eskatu du PSE-EEK

Bergarako Udaleko PSE-EE alderdiak gaztelaniaren erabileran normalizatua egiteko eskatu dio Agurne Barruso alkateari. Sozialistek kalera-tu duten prentsa oharrean diote, udal argitalpenetan, besteak beste, euskara eta gaztelania ez daudela "maila berean". Gaineratzen dute "hizkuntza politikak ez duela hizkuntza bat inposatu behar, baizik eta gizarteratu egin behar dela". Hala, Bergarako sozialistek, osoko bilkuretan, batzorde informatzaileetan eta udal argitalpen guztietan "euskara eta gaztelania maila berean" erabiltzeko eskatu diote Agurne Barruso alkateari.

MANKOMUNITATEA > OHIKO BATZARRA HERENEGUN

Mankomunitatea, egoitza berrian lanean irailaren 1etik

Mankomunitateak bilera egin zuen eguaztenean; Lurraldebus hobetzeko lanean dihardute Diputazioarekin

EDU MENDIBIL > ARRASATE

Abuztuko oporren aurretiko azken batzarra egin zuen Mankomunitateak herenegun, Arrasateko udaletxean. Hainbat gai aztertu zituzten eguazteneko ohi-ko bileran. Besteak beste, Zaldibar eraikinaren erreforma lanak egiteko kontratuaren azken aldatketak onartu zituzten Mankomunitateko kideek. Izan ere, irailaren 1etik aurrera Nafarroa Etorbideko eraikin berrian izango dira lanean Mankomunitateko langileak. Hogeitabat langilek jardungo dute bertan lanean eta han kokatuko dituzte baita Lanbide Hastapeneko programa eta Enpresa Ekintzetarako zentroa. Eraikin berriko lanak bukatze- ar daude eta, esan bezala, ikasturte berriari Nafarroa Etorbideko egoitza berrian ekingo dio Mankomunitateak. Horrekin lotuta, aurrerantzean bilera guztiak han egitea aztertu zuten



Mankomunitateko egoitza berria, Arrasateko Nafarroa Etorbidean. IMANOL SORIANO

eguzteneko bilkuran. Izan ere, gaur egun herriz herri egiten dituzte bilerok, txandaka. Bali-teke hemendik aurrera eraikin berrian egitea bilerak, baina ez zuten horren gaineko erabakirik hartu. Hurrengo bilera irailaren 17an egingo dute.

Bestalde, joan den astean Debagoieneko alkateek Diputazio-ko garraio arduraduna den Pilar Aranarekin bilera egin zuten Arrasaten. Lurraldebus zerbitzuaren gainean jardun zuten ibarreko alkateek Pilar Aranarekin eta irailan beste

bilera bat egiteko geratu ziren. Lurraldebus zerbitzuaren hobetzea dute helburu bi aldeek.

HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Era berean, Mankomunitateko hizkuntza irizpideak onartu zituzten eguaztenean. Ahozko harremanak, publizitatea eta bes-telako hartu-emanetan zelan jokatu izan zuten aztergai. Gai horren gaineko arduradun politikoa izendatzea ere jasotzen zen eguazteneko gai zerrendan, baina izendapena mahai gainean geratu zen.

Galde-erreguen txandan, besteak beste, hezur-muin emaleen gainean Osakidetzari bidalitako idatzia izan zuten aztergai eguaztenean. Mankomunitateak zera eskatu zion Osakidetzari: hezur-muina ematea errazteko eta horretarako medioak jartzeko. Debagoieneko Mankomunitatea sentsibilizatuta dago aipatutako gaiarekin eta organoak eta hezur-muina ematea bultzatu nahi du, Osakidetzarekin elkarlanean.

Eguaztenean aztertutako beste gaien artean, hondakinen prebentzioarako kanpaina eta Epeleko zabortegiko segurtasun eta osasun plana ere onartu zituzten. Esan bezala, hurrengo bilera irailan egingo dute.

ZERBITZUAK > OÑATI

Tanatorio zerbitzu berria Oñatin

E.M. > OÑATI

Oñatiko Moyua Hileta Zerbitzuak tanatorioa inauguratu zuen atzo, Kasablanka auzoan. Inaugurazio ekitaldian, besteak beste, Sabino Zuazabeitia apaizak, Udaleko ordezkariak eta Moyuako arduradunek hartu zuten parte. Tanatorioak 365 m²-ko azalera dauka eta hiru gaubeila-gela ditu. Aurre-

rantzean, herritarren zerbitzura izango da, 10:00etatik 20:00etara. Miguel Angel Moyuaren hitzetan, "herritarren eskaria betetzera dator tanatorioa, orain arte Arrasatera edo Bergarara jo behar izaten dutelako oñatiarrek, halako momentu tristeetan. Hainbat proiektu aztertu ondoren, gauza ona da tanatorioa izatea Oñatin".



Atzoko inaugurazio ekitaldia.

TXOMIN MADINA

Euskarak batzen gaitu



Astelehenetik barikura
eguneko menua

Asteburuetan
plater konbinatuak, ogitartekoak eta menu bereziak

Kafe antzokia - Maala 2 ELGETA - 943 78 90 85

Martin Garitano > Kazetaria

"Estatuak erabat beharrezkoa ikusiko balu antzeko astakeria bat egitea, egingo luke"

NEREA MENOR > BERGARA

Sorreratik itxi zuten arte "ahots kritikogotorlekua" izan da *Egin*. Aurtan, bahiketaren 10. urteurrena betetzen da. Martin Garitanorekin egon gara, eta egunkaria ixtearekin batera hainbat kazetariren ogi-bidea eta ilusioak bertan behera nola gelditu ziren azaldu digu.

Nola gogoratzen duzu duela 10 urte *Egin* itxi zuten momentua?

Ahaztu ezinezko momentua izan zen hura. Etapa berri bati hasiera eman nahi genion uda hartan eta bat-batean polizia jositako ikusi genuen gure lantegia, langile guztiak kalean, polizia langileen atzetik, ardura zuten batzuk espetxeratuta... Ahaztu ezina; ez dut uste halako esperientzia bat inoiz ahaztuko dudarik.

Zer sentitu zenuen?

200 gizon armatu zure lanpostuaren atean daudenean eta ez dizutenean sartzen uzten eta, gainera, mehatxatu egiten zaituztenean... Amorrua da sentitu nuen momentu hartan.

Zergatik itxi zuten *Egin*? Aurretik beste saiakerarik egon zen?

Franco hil ondoren, demokraziaren oihartzuna egin zuten bakarrak *Deia* eta *Egin* izan ziren, besteak frankismotik zetozen eta. Gure ahotsa oso kritikoa eta traba handia zen, gustu gutxikoa betikoentzako. Aldaketa politikari beldurra ziotelako –eta diotelako– itxi zuten, eta edozein aldaketa politikoa gerta daitekeenean, beldurra dioten horiek eskura dituzten tresna guztiak erabiltzen dituzte bestea jo ahal izateko. Momentu hartan, *Egin* itxi eta hilabete gutxi batzuetara Lizarra-



Martin Garitano.

Garazi sortu zen. Aldaketa garaian beldurra duenak biolentziaz jokatzeko du. Aurretik, zigortzeko eta itozteko saiakerak ere egon ziren.

Nolakoa izan zen gizarteak erakutsi zuen elkartasuna?

Oso harro nago horrekin, eta momentu oso hunkigarriak bizi izan nituen euskal gizartearen elkartasuna hain gertu bizitzen. Adibide asko eman ditzaket, eta horietako bat izan daiteke egunkaria itxi eta hurrengo egunean *Euskadi información*-en ale

"Gure ahotsa oso kritikoa eta traba handia zen, gustu gutxikoa betikoentzako"

"Polizia langileen atzetik, ardura zuten batzuk espetxeratuta... ahaztu ezina da"

batzuk atera genituenean eta haiek biderkatu egin zirenean. Kiosko guztietan egon ziren, eta hondartza guztietan. Milaka gizon eta emakumeren lanak egin zuten hori posible.

18/98 makrosumarioa *Egin*-en aurkako epaiketa ere izan zen?

Bai; nolabait, *Egin* ere epaitu dute makrosumarioan. Ezin dugu ahaztu *Egin*-eko ardura-dun batzuk eta kazetari batzuk espetxeratu egin dituztela; eta zein lotsagarria den adierazpen askatasunaren alde, prentsa askearen alde eta, azken finean, kazetaritzan lan egiteagatik mendebaleko Europa honetan, XXI. mende honetan, Jose Luis Elkoro, Jabier Salutregi, Patxo Murga eta tankera horretako gizon zintzoak espetxeratzea.

Arazo horiei guztiei nola egiten zaie aurre?

Herriak aurrera egiten du: komunikabide batzuk ixten dituzte, baina beste batzuk irekitzen dira; alderdi politiko batzuk ilegalizatzen dituzte, baina beste batzuek alderdi politiko berriak sortzen dituzte. Nire ustez, erantzunak hortik etorri behar du, eta horrek egiten die min eraso egiten diotenei euskal gizarteari edo euskal gizarte abertzaleari.

Hamar urte pasa ondoren, pentsatzeko denbora eduki eta gero, nola ikusten duzu gertatutakoa?

Astakeria hutsa izan zen, baina errepikatze tentaldia izan dezakete. Gauzak aldatu egin dira nolabait, baina, neurri txiki batean, eta Estatuak erabat beharrezkoa ikusiko balu antzerako astakeria bat egitea, egingo luke.

Kulturaten izan da martitzenean, Egin Irratiko zuzendaria

Egin Irratiko esatari eta zuzendari izan zen 10 urtez Marian Beitialarrangoitia, eta gaur egun Hernaniko alkatea da. Martitzenean Kulturaten izan zen, "adierazpen askatasunaren aldeko" berbaldia egiten. Gogora ekarri zuen 1999ko gau hartan 200 langile baino gehiago geratu zirela langabezian eta une haietan, "EAJK alfonbra gorria jarri" ziola Estatuari, hark "itxiera buru zezan". Beitialarrangoitiak gogoratu zuen Egin Irratikoa dela, "han ikasi nuen lanbidea eta asko zor diot".



Beitialarrangoitia, Kulturaten egindako hitzaldian.

MONDRABERRI

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Uztaileko irabazleak

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
20 euro abendura arte

ZU IZAN ZARA IRABAZLEA, ZORIONAK!

DVD-a
EROSKI
zurekin



Irabazleak:
Amaia Arana Beitia
(Arrasate)

KAMISETA+POLTSA
skunkfunk



Irabazleak:
Idoia Axpe Aranegi
(Arrasate)

KAMISETA+ALPARGATAK+ CDA

karrikiri
Euzko Eskalariaren Alkartasuna



Irabazleak:
Ramon Eraña Gallastegi
(Aretxabaleta)

SARI NAGUSIA:

HONDARRIBIKO ARTIZARRA LANDETXEAN GAU BAT
ARGIÑE ZURUTUZA ALBERDI
(BEASAIN)



Artizarra nekazaldirismoa
www.nekatur.net/artizarra
943 64 23 37 / 655 72 18 34

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, hain zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

gure artekoak

FIAT 500 > Urte hasieran merkaturatu zuen FIAT etxeak 500 berria; hain zuzen, FIAT 500 autoa sortu zeneko 50. urteurrenean. Gainera, 2008. urteko auto izendatu dute FIAT 500.

Meltxor Markiegi > Markiegi kontzesionarioko arduraduna

"Lehengo Fiat 500 autoaren eguneratutako erreplika da"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Fiat 500 lehenengo aldiz merkaturatu zeneko 50. urteurrena aprobetxatu du Fiat etxeak 500 autoaren modelo berria aurkezteko. Izan ere, aurten bete dira 50 urte lehenengoz Fiat 500 autoa merkatura zela; hala, urte hasieran merkaturatu zuen Fiatek 500 berria.

Bergarako Markiegi kontzesionarioko Meltxor Markiegik esan du "eguneratutako" erreplika dela autoa berria. Hau da, lehenengo autoaren sena mantendu egiten da, baina segurtasun aldetik gaur egungo sistema guztiak ditu. Mekanikari dagokionez ere, eguneratuta dago autoa.

Autoaren neurriari dagokionez, lehenengoaren neurri bera du orainoak. Auto txikia da, hirian samur ibitzekoa. Diseinu aldetik, berriz, aldaketa txiki batzuk ditu.

INGURUNEA ERRESPECTATU

Diseinuak garrantzi handia du Fiat 500 modeloan; detaile guztiak zaindu dira. "Gainera, nork bere gustuaren arabera autoa pertsonalizatzeko aukera dauka", dio Markiegik. Garai bateko Fiat 500 autoak zituen hainbat detaile jartzeko aukera eskaintzen du berriak. Besteak beste, hainbat *sticker*-pegatina-zahar itxura hartzeko.



Meltxor Markiegi, Markiegi kontzesionarioko arduraduna, haren eskuinean dagoen berriko Fiat 500 autoarekin. A.E.

Fiat 500 Sport 1.2 69 ZP

| | |
|---------------|----------------------------------|
| Prezioa | 13.150 euro |
| Luzera | 3,55 metro |
| Zabalera | 1,65 metro |
| Maletategia | 185 litro ⁽¹⁾ |
| Kontsumoa | 5,1 litro /100 km ⁽²⁾ |
| Abiadura | 160 km/h ⁽³⁾ |
| Otik 100era | 12,9 seg. |
| CO2 isurketak | 119 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

HIRU MOTOR AUKERA

Motor aukerari dagokionez, hiru motor aukera daude: gasolinazko bi -1.2 69 ZP eta 1.4 100 ZP- eta dieselezko bakarra -1.3 75 ZP-. Gainera, hiru ekipamendu ezberdin daude aukeran.

Meltxor Markiegik azaldu du etxeko bigarren auto bezala aurkeztu dutela Fiat 500 berria: "Errepidean baino gehiago hirian ibiltzeko egokia da autoa". Gainera, ingurumena errespetatzen du autoak. CO2 isurketa txikiak ditu: 119 g/km; hortaz, ez dago zertan matrikulazio zer-garik ordaindu.

begi-bistan



Baranda berria (Oñati) 2008/07/11

Argazkia: Mireia Bikuña.
Testua: Arantzasu Ezkibel.

Oñatiko fruta eta barazki azokara igotzeko maldan jarri dute baranda. Eurria egiten duenean lurra labainkor egoten denez, Udalak erabaki du baranda jartzea, inork minik har ez dezan.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

etxeko leihotik



Eneko Azkarate > 'eazkarate@goiena.com'

Oporren atarian, denok gaude aldarte onean

Udan sartuta, oporren usainean, liskarretan jarduteko gogo gutxi daukagu denok. Jaiegunak noiz ailegatuko zain, egutegiari begira gabiltza, behin eta berriro. Eta giro ederrean gaudenez, pulpitu honetatik inoren aurka txarto esaka ibiltzea ez da egokiena.

Testuinguru honetan, hobe da ondo egindakoak nabarmentzea, *Boss*-ek lagatako zapora bikaina oroimenean dautzagula. Esaterako, oso ideia ona iruditu zait Oñatiko Udalaren erabaki bat: 600 euroko dirulaguntza emango die abuztuan 15 egunetan ixten ez duten taberna, jatetxe eta dendariei. Turismoa bultzatzen diharduen herri batek horrelako ekimenak beharrezko ditu, tamalez eta berez, taberna, jatetxe eta dendako jabeek zabaltzeko premia-rik ikusten ez dutelako.

Bergarako Udalean ere aldarte onean daude: Plan Orokorra aho batez onartu du udalbatzak, agintzen dauden harridurarako. Izan ere, Plan berrian ez dute jaso aurreko agintaldian onartu zen Planeko puntu eztabaidatsuen, Zabalotegi erditik zeharkatuz, Koldo Elizalde eta Tokieder lotuko dituen kalearen egitasmoa. Eta, hala ere, EAJk eta EAK ere Plana onartu dute.

> **Zabalotegiko bizilagunak pozik egongo dira Bergarako udalbatzak hartutako erabakiarekin. Halere, alde zaharra oinezkoendako errekupeparatu nahi bada, alternatibaren bat topatu beharko zaio Boluko trafikoari.**

> **Antzuolako Udalaren ekimen bat ere txalotzekoa da: autobusak ipini dituzte egubakoitz eta zapatu gauean Bergaratik joan-etorria egiteko. Iaz hasitako bidea ondu egin dute, zerbitzua indartzuz.**


"Udako testuinguru honetan, hobe da ondo egindakoak nabarmentzea"

izen propioak



Javier Retegi

EUSKO IKASKUNTZA



Xabier Arnaiz

TXIRRINDULARIA



Jon Sarasua

IRAKASLEA

Etxepare Euskal Institutuko patronatua aurkeztu dute; eta, Javier Retegi bergararra da kideetako bat. Euskara eta euskal kultura kanpora zabaltzea da patronatuaren helburua. Zuzendaritza kontseilua eta zuzendaria izendatzeke dauke oraindik.

Ulma taldeko txirrindulari oñatiarra Gipuzkoako selekzioarekin egon da Frantzian La Cantonale proban parte hartzen. 10 kilometroko erlojupekoan 8. postuan helmugaratu zen Arnaiz. Arratsaldean, ostera, 101 kilometroko etapen 18. postua lortu zuen.

EHUK antolatutako *Aniztasun berrien harira* udako ikastaroaren barruan hartu du parte Jon Sarasua aretxabaletarra. Aniztasunari eta, bereziki, eleaniztasunari heldu zion Hueziko irakasleak martitzeneko hitzaldian: *Elean hitz, eleanitz* izan zen mintzaldia.

Euskal Herriko PPK presidente berria aukeratzeko kongresua egin zuen aurreko aste bukaeratik, Antonio Basagoitik hartu du Maria San Gilen lekukoa. Bilboko kongresuan egon zen Arrasateko Udaleko Alderdi Popularreko zinegotzia. Kongresuaz, Ibarretxeren galdeketaz, Udalaren egoeraz eta etorkizunaz egin dugu berba Itziar Lamarainekin.

Itziar Lamarain > PPKo bozeramailea Arrasateko Udalean

"Lanean gabiltza Udalean, sozialistak batzordeetara etortzen ez diren arren"

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Itziar Lamarain pozik dago Euskadiko PPKo kongresuak emandako emaitzarekin; besteak beste, zuzendaritza batzorde berriko kide izendatu dutelako. Hainbat gairen inguruan egin dugu berba Arrasateko Udaleko Alderdi Popularreko bozeramailearekin.

Aurreko aste bukaeran egin zenuten kongresua Euskadiko Alderdi Popularreko. Ze balorazio egiten duzu?

Pozik nago kongresuak emandakoarekin. Maria San Gilek ez jarraitzea erabaki ondoren, tentsio eta kezka handia nuen, baina orain gustura nago emaitzarekin.

Antonio Basagoitik hartu du Maria San Gilen lekukoa. Nola ikusten duzu aldaketa?

Nire ustez, alderdian genuen krisia konpontzeko hautagairik proposena Antonio Basagoiti zen, eta lortutako adostasunak arrazoia eman dit. Dena den, garbi daukat Alderdi Popularra ez dela aldatuko Basagoitiarekin. PPK orain arte egin duen politikarekin jarraituko du, ez da aldatuko. Agian, Basagoitik ez du Mari San Gilek zuen berba egiteko modua, ez ditu berba gogorak erabiltzen. Hortaz, politika berarekin jarraituko dugu, baina hitz gozoagoak erabilita.

PPko kideok onartu berri duzue EAJ dela oztopo ETA desagertzeko. Hala dela uste duzu?

Nik garbi daukat EAJ, EA eta Aralar alderdiek ez dutela terrorismoa defendatzen. Baina batzuetan oztopoak jarri dituzte terrorismoaren aurkako legeak aplikatzerako garaian, eta ikuspegi horretatik esan daiteke EAJ oztopo dela terrorismoarekin bukatzeko.

Zure alderdikide batzuek ez dute begi onez ikusten Basagoitiren aukeraketa.

Gutxiengoa izan da Antonio Basagoitiren kontra egin duena; baina, nire ustez, Maria San Gilekiko sentiberatasun kontua izan da gehiago.

Santi Abascal zen Basagoitiren aurka zegoenetako bat, baina hark aurkeztutako emendakinak onartu genituen, eta aldeko botoa eman zion Basagoitiri. Hortaz, gehiengo handi batek begi onez ikusten du Euskadiko PPKo presidente berria:



Itziar Lamarain, Arrasaten.

MIREIA BIKUÑA

bozketan 61 alderdikide baka- rrik abstenitu ziren. Gainera, Antonio Basagoitiarekin lan egingo duten kide guztiak oso baliagarriak dira.

Ekainaren 20an onartu zuen Legebiltzarrak herri galdeketak egiteko lege proposamena. PSE-EE eta PPKo zinegotziek kontra bozkatu zuten eta EHAK-ko zinegotziak abstenitu egin ziren, bat izan ezik. Ze iritzi duzu horren gainean?

Nik beti esan dut, gura edo ez, legeak betetzeko direla. Nik ez ditut zergak ordaindu gura, baina egin behar dut. Bada, Ibarretxeren galdeketarekin berdin gertatzen da: legez kanpokoa da, besteak beste, Konstituzioak onartzen ez duelako.

Bestalde, uste dut euskal herritarrek bateratzeko ez dela biderik egokiena. Horregatik guztiagatik, aurka bozkatu genuen.

ZUZENDARITZA BERRIA

"Basagoitiarekin lan egingo duten kide guztiak oso baliagarriak dira"

GALDEKETA

"Ibarretxeren galdeketa legez kanpokoa da; besteak beste, Konstituzioak ez duelako onartzen"

UDALAREN ETORKIZUNA

"Botoa eman diguten herritarren alde lanean jarraituko dugu"

Herri galdeketa egingo dela uste duzu?

Ez dut uste. Legez kanpokoa denez, oztopo guztiak jarriko dizkio legeak berak. Besteak beste, Gasteiz eta Donostiako udalek esan dute ez datozela bat galdeketarekin, eta udalen parte-hartzea ezinbestekoa da Ibarretxerendako.

Datorren urtean Legebiltzarrerako hauteskundeak egingo dituzte. Zein da Alderdi Popularraren helburua?

Gure helburu nagusia bakea lortzea da. Horretarako, baina, ETAK borroka armatua utzi behar du derrigorrez. Orduan jarriko gara alderdi guztiak mahai baten, Euskal Herriak merezi duen etorkizuna eztabaiatzeko.

Lau hilabete pasa dira Isaias Carrasco hil zutela, eta Arrasateko Udalean dagoen egoe-

ra ezohikoa da, besteak beste, Ino Galparsoro espetxean dagoela bi hilabete eta erdi pasa dira-eta. Nolako giroa dago?

Oso gogorra izan zen Isaias Carrascoren hilketa, baina egoera lasaitu egin dela uste dut. Arrasateko Udalean bi hilabete-ko etena izan dugu, baina lanean jarraitzen dugu. Egia da egun asko galdu ditugula Isaias Carrascoren hilketarekin eta Ino Galparsororen atxiloketarekin. Dena den, tentsioa egotea normala da, baina bakoitzak duen ideologia kontuetan sartu barik, uste dut Arrasateko Udalak berreskuratutako lan erritmoa.

PSE-EEko Arrasateko bozeramaile Paco Gartzia hau dio: "Udala geldidago". Hala da?

Ez, ez da egia. Azkenaldian, ia egunero ditugu batzordeak. Gu lanean gabiltza. Beste kontu bat da Alderdi Sozialistako zinegotziek ez dutela parte hartzen batzordeetan. Euren jakingo dute zergatik hartu duten jarraera hori, baina jakin dezatela Udalak lan erritmoa berreskuratutako duela. Baina aurrera doan edo ez jakiteko batzordeetara joan beharra dago.

Bestalde, Paco Gartzia esan du azkeneko osoko bilkuran ez nuela ezer esan Ino Galparsororen argazkia kentzeko eskaera egin zutenean. Bada, nik esaten diot maiatzeko osoko bilkuran argazkia toki berean zegoela, eta ez zutela aretotik alde egin. Ez diot inori onartuko nire betebeharrak egiten ez ditudala esatea.

Mozio etikoek eta zentsura mozioek porrot egin zuten Arrasaten. Zer dela-eta?

Isaias Carrasco hil zuten egunean bertan esan nuen bere bizi-lagun baten heriotza gaitzesten ez duen alkateak ez duela merezi kargu hori izaterik. Hori ikusita, zentsura mozioa proposatu nuen apirilaren 3an alkatea Udaltetik botatzeko. Alderdi Sozialistako zinegotziak ez ziren etorri zentsura mozioaren bozketara, eta alkatearen kalitatezko botoarekin ez genuen zentsura mozioa onartu. Alderdi Sozialistak zentsura mozioa aurkeztu zuenean nik sinatu nuen, baina gainerako zinegotziek ez.

Nola ikusten duzu Arrasateko Udalaren etorkizuna?

Botoa eman diguten herritarren alde lanean jarraituko dugu.



zabalik

Oskar Elizburu

Aurrera pausua!

Euskal Herriko seme-alaboi zailla egitten jaku, edozer aztertzian, zer eta nunguak garan zehaztia. Baloraziñoren bat egin bihar eta *–zeren arabera egingo dot orainguan?* Euskal Herri osuari, EAERI, Iparraldiari, herrialdiari, eskualdiari edo herriari eragiten dotsan arabera azterketak egiteko kapazak izan bihar dogula uste dot. Gaurkuan, gauzak ikusteko moduen artian, botellia erdi beteta ikusteko gogoa hartu dau indarra, nere kasuan.

Euskal herritar moduan begiratu ezker, *Kontsumitzaillien Dekretuak* euskariaren normalizaziñua lortzeko gabeziak dauka: eremuka aplikatuko da, elebidunen kopuruaren arabera, enpresa txikiei eragiñik ez... Kontseiluak ondo azaldu ditte eraginkorra izateko falta dittuenak.

Baina, debagoiendar moduan begiratu ezker, euskararendako itzelezko aukeria eukiko dogu. Gure eskualdian %33ko elebidunen tasa herri guztixetan gainditzen dogu; hortaz, eragiña herri guztixetako saltoki haundixetan, enpresa haundixetan, bezeruei begira lan egitten daben elkarguetan... izango da. Bezeruei begirako langillegua behintzat bi, hiru edo lau urteko epian euskaraz be atenditzeko moduan jarri biharko dabe, ikasteko aukeria eta laguntzak emongo ei dira; eta zigorrak be egongo ei dira. Azkenian arlo pribatuan be emon biharko dira pausua; *kontsumitzaillie* izatiak be ekarriko dosku euskaraz atendiduta izateko eskubidia, legezko eskubidia, lehenengo aldiz.

Aurrerapausu itzela izan leike, aukeria erabiltzen badogu; *txipa* aldatu eta euskaria erabiltziari eta erabilleraren aldarrikapenari bihar daben garrantzia emoten badotsagu. Gure aukera egittia ezinbestekua dogu, pausoz-pauso, ibillixan, antxintxika, takarraran, ariñeketan edo korrika; bakoitzak bere abixaran, baiña geratu barik. Euskeraz bizitzeko bidia zabalzia gure esku dago, egin geinke eta egingo dogu. Emon pausua aurrera!

"Kontsumitzaillien Dekretua itzelezko aukeria da gure eskualderako"

"Arlo pribatuan, euskaraz atendiduta izateko legezko eskubidia ekarriko dosku"

KONTSUMITZAILEAREN ARRETA BULEGORIK BADAGO? Arrasateko irakurle bat guregana zuzendu da hauxe esaten: "Poltsikoko telefonoaren fakturaren gaineko kexa bat daukat, eta kontsumitzaile elkarte edo arreta zerbitzu batera bideratu gura nuke. Gogoan dut Arrasaten bazegoela halako zerbitzu bat. Gaur egun badago horrelakorik?"

Gure irakurleak esaten duen moduan, Arrasaten, garai baten, egon zen kontsumitzaileak atenditzeko bulego bat, baina kendu egin zuten. Aretxabaletan ere, orain gutxi arte egon da. Gaur egun, ordea, Debagoien osoan ez dago horrelako zerbitzurik, ez udalen batena, ez elkarte pribaturen batena ere.

Arrasateko Udaleko BAZen hauxe esan digute: "Inoiz norbaiten deitzen badigu kontsumo kezka edo erreklamazio batekin, Eusko Jaurlaritzak horretarako duen telefono zerbakia ematen diogu, 900 60 05 00. Telefonoz ezin badute konpondu, hiribururen batera jotzeko aukera dute. Bestela, kontsumitzailearendako udal arreta zerbitzua duen herri

herritarrak galdezka

gertuena Eibar da, baina, Udalaren zerbitzua denez, ez daude behartuta Eibartik kanpoko deiak atenditzera".

Horrez gain, Eibarren badauka gure irakurleak kontsumitzaile elkarte baten ordezkari-tza: Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasuneko bulegoa, hain zuzen; 943 20 19 87 telefono zenbakian atendituko dute. Donostian, berriz, 943 43 11 24 zenbakian daude.

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidalguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

PENTSIOAREN IGOERA NEUK ESKATU BEHAR DUT?

Pentsioa jasotzen duen emakume bat guregana zuzendu da. Espainiako Gobernuak onartu du pentsio txikiak Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin berdintzea, eta emakume horri esan ei diote onuradunek eurek eskatu behar dutela hori.

Oñatiko Gizarte Zerbitzuetakoe esan digute orain arte Oinarriko Errenta kobratu dutenei berez igoko dietela hori. Bestetik, orain arte pentsio txikiak kobratzen zituztenek baina Oinarriko Errentaren gainetik, nor bere udalean eskatu behar dute horiek igoera. Bigarren multzo horietakoak hauek dira: urteko diru-sarrerak 14gatik biderkatuz eta 12gatik zatitu ondoren, 700 eurotik behera geratzen direnak. Gehienak zahartzaro, ezintasun edo alarguntasun pentsioen onuradunak dira. Hemendik eta urtarila arte, bizikidetzaren unitate osaren diru-sarrerak hartuko dira kontuan norbaiti pentsioa igo behar zaion ikusteko: hau da, etxean bizi diren guztien diru-sarrerak zenbatuko dira.

marrakiz

Unai Busturia



blog-top

Hamaika urte pasatu dira "Ermukoa" gertatu zenetik

Mikel Larreategi
eibar.org/blogak/erral

A tzo Antena 3 telebista katean, Miguel Ángel Blanco Ermuko PPre zinegotziaren hilketaren inguruko pelikula bat eman zuten (...). Orain dela hamaika urteko momentuak gogoratze-ko balio izan zidan. Eta ez hori

bakarrrik, orduan jazotakoak nola ahaztu ditugun konturatzeko ere (...).

Amamak "zeozer pasatu da ez?" esan zidan, eta telebistan entzun nuen albistea. Ostiraleko gauza bat dut gogoan. Deporretik irten egin behar izan genuen taberna itxi egin zelako manifestazioaren orduan. Eibar erdialdeko dendak itxita zeuden.

Larunbatean, (...) Arrate Irratiak, programazio guztia eten eta musika bakarrrik jarri zuen, eta noizean behin "EuskoTrenak Bilbon egingo den manifestaziorako tren bereziak jarriko ditu" zioen

Bernardok. Eta han joan ginen (...). Gogoan dut hango jendetza eta nola politikari bat baino gehiago gure ondortik pasatu zen konzentrazioaren erdialde-ira. Igandean Garaioa joan ginen. Jendearen aurpegietan irakurtzen zen ez zela igande arrunt bat. Jende asko zegoen irratiaren eskuan, azken albisteak entzuten. Kotxean bueltan gentozela entzun genuen azken berria. Gauean, ohean, malkoa ere irten zitzaidan begitik.

Atzokoak (...) honetarako balio izan didate. Memoria historikoa berreskuratzeko, eta gaur egungo gauzei eta egoerei beste era batera begiratzeko.

Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarria Saitetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) Erredaktzioa Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larratiz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantza Ezkibel, Irati Agirreazaldeg, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua, Nerea Menor Oinarrizko diseinua Goio Arana Maketazioa Imanol Soriano, Kepa Martelo, Oxel Arrieta Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiarrak Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.400 ale • Difusioa: 19.056 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko
Jaurlaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

Eragindako mutazioa Eroskin

Simon Martinez de Arroiabe, Anton Elortza eta Agustin Zugasti
Mondragon Taldeko kideak
Arrasate

Iberdrolan eta, oro har, enpresa handietan, botere-gunea Euskal Herritik kanpora ateratzeko aukera zabalik egotea erne dagoena- rentzat kezka-iturri izan da. Ona da, ordea, kezkatze hori, erabat normalizatu gabe dagoen herri txiki baten etorkizuna —gureaz ari gara— bertako enpresarik estrategikoenek hartutako konpromisoaren baldintzapean baitago, hein batez.

Oso litekeena da epe laburrean adiera horretako eragiketa latz bat gorpuztea. Eroski euskal talde kooperatibo espainiar talde kooperatibo bihurtzeko atzera gabeko bidetik abia liteke, bere filial espainoletan langileak masiboki bazkide bihurtu eta, hortaz, boterea pixkanaka beren esku hartzen badute. Aukera horri heltzekotan, ez dirudi eragiketa urrun dagoenik Eroskiren zentrala Madrilen kokatzea, enpresalagikak ez ezik, gehiengo instituzionalen logikak ere hala agintzen baitu.

Kontua aintzat hartzekoa da, alde baterako zein besterako alarmismorik gabe, eta bestelako aukerak proposatzeko argumentuak, era berean, alarmismorik gabe jorratu behar dira. Artikulu hau idazteko erabakiaren funtsa, tamalez, gai honen inguruan eztabaida egiteko hautabide falta nabarmena da (hori ere, "demokrazia enpresarial" batean biziki kezkagarria bada ere).

Eztabaida saihesteko moduetako bat, euskal eremuaren aldeko jarrerara guztiak (gehiengoa osatuko luketenak, seguruenik, neurtu egingo balira) deskalfikatzea da. Enpresen erabaki-eremu nazionalak defendatzea ohiko kontua da eta, eragin ere, estatu baten mekanismoek horrela eragiten dute maiz. Baina horrela-ko mekanismoak ez dauzkan gizaritari daukatenek era guztietak"-keriak" egozten dizkiote, muturrerainoko zinismoa erakutsiz, hauek naturaltasun osoz egiten dutenaren ehunetik bat ere hark planteatzen badu. Euskal eremuak muga errealik ez izateaz pozik egon gaitzek mugen aldeko ez garenok, geure erabaki eremutik abiatuta nolabaite-

ko bokazio unibertsalista daukagunok, alegia. Espainiak berriz, muga errealerrealak dauzka, beren ondorio eta guzti.

Sarkastikoa da, oso, Eroski talde espainol bihurtu nahi dutenek erabaki-eremu kooperatibo historikoak deslegitimatzeo diskurtsoa erabiltzea: irekierarik ez agertzea leporatzen digute, beren burua euskal eremua gainditu duen modernotasunaren jabe hartuta... eta espainol eremura egiten dute, nahiz eta hori euskal eremua baino askoz ere mugadunago den, askoz ere mugatuago eta blindatuago den. Diskurtso hori bera darabilte jarrerara savatertarrek, euskal eremuaren kontra aritzeko: taktikoki "mugen aurkako" diskurtso filosofiko unibertsalista horretaz baliatzen dira baina, une politikoa erabakigarrian, beren pasio ultra-espainolista nabarmendu zaie beti. Ohiko kontua dugu hori ere.

Ezaguna dugu ilusionisten trukuen funtsa: ikuslearen begirada zerbaitetara bideratzen dute, beraiek egiten ari direna agerian ez geratzeko. Eroskiko zuzendaritzaren diskurtsoan gorpuzten den trukua espainiar nazionalismoko magoek darabilten berbera da, merkatu-diskurtsoak horren malgutasunak desitxuratu samar dagoen arren. Kide garen herriaren alde eta kohesioz jokatzearren, erabaki kooperatiboaren euskal eremua defendatzeko planteamendua (gehien-goarena, atxikipenak neurtuko lituzkeen testa zintzotasunez egingo balitz) agertu bezain laster, etiketa ezarri zaio: nazionalista da. Egiari zor, kontrol-eremua mugarik gabeko nazio bat izan ordez, kontrol-eremua mugadun nazio bat izatea da Eroskiko zuzendaritzak lortu nahi duena. Eroskin, balizko planteamendu "aperturista" eta unibertsalisten horizontea zehazki mugatua dago: Eroski enpresa talde espainol bihurtzea.

Akats historikoak errepikatzeo arriskuan gaude. Gure herriak bizi duen asaldaketa eta liskar horien klabe nagusietako bat, iraultza industrialaren hastapenean burgesia industrialak Espainiaren alde jokatu izana da, europar merkatuko aukerak ahultzen ari zirelarik estatuan ikusi baitzituen ateak zabalik (errenazimendu-ostekoan punta-puntako ekonomia eraikia bazuen ere). “¿Qué remedio hay para conservar este ramo de la industria? Españolizarlo, pues no quedándole más salida que a

España y sus dominios, es de necesidad hacerlo español” dio Merkataritza Ganberaren 1832ko Justifikazio Memo-riak. Apustu ekonomiko eroso- enak agindutako orientazio horrek ere etorkizunean egongaitasuna ekartzen lagunduko zuen, indar ekonomiko horien eta herriaren gehiengoaren baitan sorturiko helmugan arteko dibortzioa eraginik. Ehunka urte eman ditugu haustura (faktura) hori ordaintzen.

Aspaldian Negurik egini-ko apustu hartan baliatu ziren elementuen antzekoak darabiltzaten, badirudi Eroskiko zuzendariak Espainiaren nozioarekin bat egitearen aldeko direla. Eta, eragiketa horretara begira, bertan berariazko interesa daukan espainiar indar politikoen harreman politikoa eratu dituzte. Euskal erabaki eremuari eustearen alde omen legokeen gehiengo isilak, berriz, ez du inolako jarduerarik agertu. Bada arazo erantsi bat, ordea: kooperatibetan hori ez da kapital-eragiketa hutsa, bazkide-gorputz osoaren eragiketa baizik, eta horrek zeharo bestelako ondorio kualitatiboak ditu. Epe ertain eta luzera, oso litekeena da kidegoa adierazten duten elementuetan haustura latzak jazotzea, bere ondorio larri eta guzti. Mega-talde espainiar bat osatzeko burutazioa izan dutenek motibazio kooperatiboaren funtsezko aspektu asko saihestu dituzte. Esan gabe doa: eragiketa horretan asko jokatzen ari gara.

Ba ote da Eroski taldea antolatzeo bestelako formularik? Horixe badela; eta, gainera, talde kooperatiboaren etorkizunari dagokionez, hobeak dira beste horiek: bide argiak, enpresaren ikuspegitik egokiak, kooperatiba ideien geroaldiarekin konpromiso sakonagoa daukatenak. Enpresa hobetu daiteke, hein egoki batean haz daiteke, balioen arabera, jatorrizko eremuen nortasunari uko egin gabe, etorkizunean kohesio-arazo larriak izango lituzketen megataldeetan barreiatu gabe eta, azkenean, kooperatibaren hazia orokorki galtzeko arriskua hartu gabe. Talde espainola sortze aldera egiteo baliatzen den argudioa arras sentikorra da, kooperatibisten bihotza hunkitzen baitu: bazkide izateo eskubidea zabaltea, alegia. Arrazoi hori, dena den, beste hainbat errealitatekin erkatu beharra dago, kooperatibaren ideia zaindu-ko bada. Ahul dabilen koope-

ratiba-kultura bati egin dakioken okerrena bat-batean bestelako geografieta- ra hedatzea da, hauetan dagoen oinarria are eta ahulagoa baita eta, ondorioz, ideia hori endekatzeko arriskua biziagoa. Badira Eroski kooperatibaren etorkizuna eusteko bide egokiagoak. Baina horietaz eztabaidatzeko tarte gutxi uzten du Eroskik.

Ederki dakigu gauzak horrela izateak Mondragon taldeko hainbat kooperatibetan probokatzen duen kezka larria dela, gertatzen ari denaz bazkide gehientsuenak jabetuak ez dauden arren. Egoera honek badu kezkatze-ko moduko beste pare bat ezaugarri, ordea: kinka larri honen aurrean Mondragon korporazioko goi-organoetan egonkortu omen den nagitasun mentala, batetik, eta, goian aipaturiko truku ideologikoa ikusirik, erakutsi duten paralisia, bestetik.

Horrek guztiak, egunez egun zabalago bihurtzen ari den talde kooperatiboa nortasun eta erreferentzi iturriak geroz eta azkarrago galtzera eroan dezake, luze gabe. Izarrietan hazte hori eta erreferentzia- eta nortasun-eremuei eustea uztartzen asmatu ezean, kohesio gabezia eta izaeraren arrail- tzea izango da etorkizunean kooperatiben kontu behinena. Oinak buztinezkoak dauzkan erraldoia nola hazten ari den so omen daude zuzendari korporatiboak, begia zalan- tzak lausoturik.

Harrobiez...

Felix Hernandez
(Arrasateko Aralarkidea)
Arrasate

Udal agintariak berriro ere aurretik hitzartuta dagoena- ren kontra jo dute. Kapitalak berriro ere irabazi egin du, berdin dio Udalean eskumak zein ezkerrek agintzea. San Josepeko harrobiak 1995. urtetik aurrera, 19 sektorea gune industrial moduan birkalifikatzeko hitzarmena sinatu zenetik, momentu oro gura duena egin du. Eta agian batek baino gehiagok pentsatu zuen ANV-EAE Udalean izaki, egoera aldatuko zela, baina ez da horrelakorik gertatu.

1997ko apiriletik 2003ko abenduaren 15a arte harrobi honek 2.065.629 Tn material ustiatu zituen, aurretik adostu zena baino 385.629 Tn gehiago (+%23).

2004ko apirilaren 21ean leherketa gehiago egiteo baimena eskatu zuten,

ingurua berreskuratzeko proiektua aitzakia hartuta. Hitzarmen horrekin harrobiaren historia bukatuta zegoela uste genuen, baina... berriro datoz ate joka.

Arrasaten kokatuta dagoen Udalaitz harrobia ere ahaztu egin omen. Non gelditu dira "Udalatx ez zulatut" zioten pankarta eta oihuak? Egiten ari diren meategiaren jarraipenik egiten al du inork? Agian AHTri bidea erraztu nahian dabilta...

ANV agintean ez dagoen udalerrietan AHTri buruzko herri kontsultaren alde jo ta sua ari da, agintean dagoen hainbatetan kontsulta egika-ritu du, baina Arrasaten planteatu ere ez da egin. Nola da posible? Udal gobernua harrobiaren alde, AHTren alde... al dago akaso?

Eskerrik asko, guztioi

Jaime Gomez
(Santa Marinako txarangako zuzendaria)
Arrasate

Santa Marina auzoko txaranga- ren partetik, mila esker aurrean laguntza eman digu- zuten denda guztioi, SUDC elkarteari, Arrasateko Udalari eta, nola ez, jaietan parte hartu duzuen guztioi ere bai. Zeuei esker, zapatuan *Kojonudo* ekitaldia egin ahal izan genuen eta horrek bultzada eman digu datorren urtean berriro lanean jarraitzeo eta agian gauza berriak antolatzeo. Aupa, denoi!

OHARRA

Datorren astean GOIENKARIA argita- ratuko dugu egunean, hilaren 24an; izan ere, egubakoitza, 25, jai eguna baita. Gainera, datorren astekoa opor aurreko azkena izango da. Oporren ostean, irailaren 5ean argitaratuko dugu berriro ere GOIENKARIA. Bes- talde, *Asteleheneko Goienkaria*, 21ean kaleratuko da eta gero, oporretatik bueltan, irailaren 1ean.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karak- tere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin bate- ra bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefona:
943 25 05 05



Faxa:
943 25 05 12



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Zure bizimodurako txartel egokia



Orain, **VISA Gazte** berriari esker, zure poltsikoa erosoago ibiliko da. Begira:

- ▶ **Zure ordainketak atzeratu egin ditzakezu.** Eta, berehala ordaindu nahi izanda ere, hurrengo hilabeteko lehen egunera arte ez duzu ezer ordainduko.
- ▶ **Erosketa bakoitzeko, puntuak metatuko dituzu** (5 euroko puntu 1), **eta gero puntuok hainbat opari ederrengatik trukatu.**
- ▶ **3 hilabete interesik gabe** lehenengo atzerapen edo geroratzearekin, 2009ko urtarrilaren 31 baino lehen egiten baduzu.
- ▶ **Beharpen eta baldintza bereziak** izango dituzu.
- ▶ **Segurtasuneko alerta, aseguruak barne...** eta askoz gehiago!!

Informa zaitez hemen: www.gaztekutxa.net



gazte kutxa

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

Herriak

Arrasate > 16-17 Bergara > 22-21 Aretxabaleta > 24-25 Oñati > 26
Eskoriatza > 27 Antzuola > 28 Elgeta > 29 Aramaio > 30 Leintz Gatzaga > 31



> **ARRASATE**
Pedro Biteri zenari gorazarre egingo diote gaur iluntzean > **17**




> **ARETXABALETA**
Babes ofizialeko etxebizitzaren zozketako izenak, jendaurrean > **24**



> **OÑATI**
Alkatea: "Abuztuaren zabaltearen dutenei 600 euro emango diegu" > **24**



> **LEINTZ GATZAGA**
'Altxorraren bila' jolasarekin bukatuko dituzte udalekuak > **31**



PLANOAK Agorrosingo kanpoko igerilekuak izango duen itxura ikusi daiteke planoaren ezkerreko aldean, eskuman, argiago, gaur egungo eremua.

BERGARAKO UDALA

BERGARA > ZERBITZUAK

Kanpoko igerileku bako azken uda izan daiteke aurtengoa Bergaran

ARAZOAK

Berdegunea non handitu eta igerilekua nola estali dira arazo handienak

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Kanpoko igerilekua egiteko asmoa du Udalak eta beraz, aurtengo uda izan daiteke kanpoko igerileku bako azkena. Behin-behineko planoak baditu, irailen jasoko du exekuzio proiektua eta lehiaketa publikora aterako ditu lanak. Asmoa da obrak urrian hastea.

OBRAK

Irailen jasoko du Udalak exekuzio proiektua, eta lanak urrian hastea da asmoa

BERDEGUEA HANDITZEN

Goiko planoan ikusten den moduan, egun belardia dagoen eremu gehiena okupatuko du kanpoko igerilekuak. Berdegune berria non kokatu da orain aztertzen ari direna. Martin Etxeberria Kirol zinetziak azaldu bezala, aukera ezberdinak aztertzen ari dira: "Goiko aldera zabaltzea nahi dugu, adibidez, baina errepidearen eta gune erabilgarriaren artean distantzia minimo bat egon behar da eta oraindik ez digute

zehaztu zenbat metro aprobetxatu ditzakegun eremu horretan. Beste aukera bat da Ipintzako futbol zelaiaren parean dagoen eremua hartzea. Lur-erazketa egin behar da hor eta lana dago, baina ikusi nahi dugu posible den edo ez. Bestalde, mendietako urak nola eta nondik nora bideratu

DATUA

380

METRO KOADRO UR

Kanpoko igerilekuak 380 metro koadro ur izango ditu, eta barruko handiak 525 ditu. Bestela esanda, barrukoak 10 kale ditu, eta kanpokoak zortzi izango lituzke borobila izan ordez karratua balitz.

behar diren ere ikusi behar da, euri-ura jasotzeko arazo teknikoak daudelako. Aldundiko teknikariek lagunduko digute horretan".

ESTALITAKOAK

Berdegunea egokitzeko arazoak gain, igerilekua nola estali da momentu honetan kirol ardura duteen kezka nagusia. "Igerileku hau ez da igeri egiteko izango, jolaserako izango da, eta pentsatzen dugu, udan ez ezik, urteko beste sasoiaren ere jendeak erabiliko duela. Horretarako, ordea, estali egin behar da, eta estaltzeko sistema diseinatzen edo aztertzen ari gara. Hernanin, esaterako, igerilekua estali nahian ari dira, baina izugarritzko kostua du. Horregatik, guk dena gertu utzi nahi dugu, instalazioa eginda, egunen batean estaltzea erabakitzen dugunerako", dio Unai Asurmendik, kirol teknikariak. Izan ere, hasiera batean agerikoa izango da kanpoko igerilekua.

Estaltzeko modu bat da igerilekuaren bueltan zutabe batzuk jartzea. "Zutabe horien gainean errailak egongo liriteke, igerilekua tapatzeko plakak desplazatzeko. Alboak ere tapatu egingo dira, noski", azaldu du Asurmendik. Teilape horren azpia nola aprobetxatu ere aztertzen dabilta.

DUTXATIK PASA BEHAR
Kanpoko igerilekuak forma borobila izango du eta hiru kota ur. Hesi batek itxiko duen eremu barruan egongo da eta, igerilekutik hesi bitarteko tartean, barruko igerilekuan dauden moduko baldosak jarriko dituzte. Hesi hori puntu baten bakarrik egongo da

(20. orrialdean jarraitzen du)

kale inkesta

Zerbaiten falta sumatu duzu Antzuolako jaien egitarauan?



Lorea Oya
Ikaslea
Bergara



Dani Escobar
Langilea
Antzuola



Itziar Baleztena
Langilea
Antzuola



Carlos Gonzalez
Langilea
Antzuola



Edurne Ormazabal
Ikaslea
Antzuola

Ni ez naiz herrikoa, baina urtero etortzen naiz zapatu gauean, giro oso polita egoten delako. Gainera, pasa den urtean ez bezala, aurten autobusak jarriko dituzte jaietara etorri nahi duenarendako.

Egitarauari eman diot begiratu bat eta egokia iruditzen zait, ez nuke ezer aldatuko, dagoen moduan utz dezatela. Giroa bikaina izaten da jaietan zehar, baina batez ere zapatuan.

Egitaraua begiratu dut, eta faltan sumatzen dudana da hontzaren jaitzieren ondoren pasa den urtean umeekin egin zen afaria. Bestela, umeendako eguen eta egubakoitzeko egitaraua ondo dago.

Ez dut egitaraua irakurri, baina pasa den urtekoak bezalakoak baldin badira egoki ikusten ditut. Jaietatik gehien gustatzen zaidana kalean sortzen den giroa da, batez ere asteburuetan.

Aurten egitaraua begiratu, dauden kontzertuak asko gustatzen zaizkit. Jaietan, kontzertuak eta sortzen den giroa dira gustukoak ditudanak. Jaietako egunik onena zapatua da.

5 galdera...

Ainhoa Arbelaitz

Xipizaro ludotekakoa
Bergara

1. Aurten, ikasturtea amaitu berri, ze balorazio eginguten duzue?

Kontuan hartuta eskaintzen ditugun plazak mugatuak direla, erantzun oso ona jaso dugu. Aurten geneuzkan helburuak bete egin ditugu.

2. Udan, ludotekak udalekuetara bideratzen dira? Zenbat neska-mutikok ematen dute izena?

Ez dago zertan bideratua egon. Haur bat urtean zehar ludotekan egon daiteke, baina gero udalekuetara ez joan; bi gauza guztiz ezberdinak dira. Aurten, adibidez, ludotekan 60 neska-mutiko ibili dira, eta udalekuetan, 350 neska-mutiko inguru. Kontuan hartu behar da ludoteka nahiko txikia dela; udalekuetan, berriz, antolaketa guztiz ezberdina da, lekua ere ezberdina da...

3. Zein desberdintasun dago urtean zeharrean ludotekaren eta udarako antolatzen direnen artean?

Neska-mutikoei aisialdian ondo pasatzea da bietan helburu nagusia. Ludoteka barruko ekintzetara dago gehiago begira. Udaleku irekietan, berriz, taldeak handiagoak dira, adinaren arabera daude antolatuta, eta adin bakoitzerako antolaketa ezberdina dago.

4. Urtetik urtera, ludotekan eta udalekuetan izena ematen duten haurren kopurua jaitsi egin da?

Normalean, beti mantendu da udalekuetan izena ematen dutenen kopurua. Ludotekan, aurten, adibidez, nahiko izenemate handia izan dugu.

5. Seme-alabak udalekuetara eramanez edo ez dudana dabiltean gurasoek zer esango zenieke?

Urte guztian neska-mutikoak diziplina baten pean daude eta ondo dago opor garaian askatasun pixka bat gehiago izatea; neuk bidaliko nituzke, inongo dudarik gabe.

txistuak



GOIENKARIA

Olaiturrin autoak aparkatuta



Oñatiko irakurle batek bidali digu aste honetako kexa: "Begi-bistan dago Oñatiko Olaiturrin auto gidariek ez dituztela lurreko marrak kontuan hartzen. Non daude herri honetako jolas-tokiak?" Kexa horri erantzunez, Oñatiko Udaltzaingoak adierazi digu, kiroldegiak ekintza baterako deitu ezean, autoek libre dutela Olaiturrin aparkatzea, betiere, zuzen eta egoki.

asteko datua

10

Hamar dira, Oñatiko Udaltzaingoaren arabera, urtero herriko kaleetan abandonatuta topatzen dituzten autoak. Jeneralean, gabeak zeintzuk diren jakiten saiatzen dira, eta auto-kroserako ere erabiltzen ditu jendeak.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

usteak uste

Irati Agirreazaldegia

Udan ere, ura, guztion ardura

Batzuetan begiratu orduko zerura, galdera datorrigu burura. Benetan, heldu da? Benetan ote da uda? Lainoek estaltzen dute agerian behar lukeen hura. Hala ere, beroari aurre egiteko onena: ura.

Ura igerilekuetan, ura iturrietan, ura edalontzian edo botiletan. Uda iritsi orduko uraren gainean berbetan; neguko euriteen ondorioz sobera dugulakobatzuetan eta lehorteengatik faltan besteetan.

Gurean, gora begira ipini eta euri apur bat hasi orduko ur tantengatik protesta eta Katalunian tantarik ez dutelako orduan kezka.

Euskararen kasuan, kanpainaren arabera, *pixka bat es mucho*, baina nago urarenean gehiegi erabiltzen dugula konturatzeko ez ote den izango beharbada berandutxo.

Inolako kontrolik gabe erabiltzen dugu eta ez digu ardura. Neurria hartzeko garaia heldu da. Izan arren uda, ez dezagun alperrik xahutu beste batzuen faltaren kontuara. Txorrota behar denean bakarririk ireki dezagun eta eta behar den modura. Tantatik tantura hain preziatua den likidoaren markagailua gure alde ez ezik denon alde ipintzeko neurrian erabili dezagun ura.



ZERBITZUAK > ABUZTUKO GIDA

Abuztuko zerbitzuekin gida argitaratuko dute

Beste urte batzuetan jendea udal bulegoetara joan izan da hainbat zerbitzuren gainean galdezka; horri erantzuteko aterako dute gida

UBANE MADERA > ARRASATE

Udalaren Enplegu eta Garapen Ekonomiko Zerbitzuak, aurtengo abuztura begira, Arrasaten abuztuan publikorako irekita egongo diren establezimenduen gida egin gura du. Gida hori udal webgunean ipiniko dute, eta baita udalerriko bestelako puntu batzuetan ere: udal iragarki tauletan, Biztanleen Arreta Zerbitzuan, Udaltzaingoan eta abar.

HERRITARRAK, GALDEZKA

Marga Garmendiak, Enplegu Saileko teknikari-buruak emandako azalpenen arabera, ekimenaren helburua da "Arrasaten geratzen direnei edo kanpotik etorri ahal direnei jakinaraztea zein zerbitzu izango dituzten herrian".

Lehenagoko urteetan izandako esperientzian oinarrituta erabaki dute gida ateratzea: "Udale-

txean abuztuan sumatzen da urtero hainbat pertsona etortzen direla udal bulegoetara hainbat zerbitzuren gainean galdezka. Horri erantzuna emateko pentsatu dugu gida egitea. Eta zelanbait abuztuan zabalik daukatenei mesede egiteko ere bai, euren zerbitzua iragartzen dugu-eta. Ibai Arte elkarrekin berba eginda dugu eta ideia ona iruditu zaie".

UZTAILAREN 24RAKO

Gaur, egubakoitza, arteko epea zabaldu dute gidan agertu gura dutenen izenak batzeko. Dena den, gaineratu dute astelehenean azken ordukoen bat aurkeztuz gero, onartuko dutela. Eguaztenerako, dagoeneko 34 zerbitzuren fitxak jasota zituzten. Horren harira, Garmendiak aditzera eman du "publikora zuzendutako edozein zerbitzuko" eman deza-

keela izena gidan azaltzeko: "Bereziki pentsatuta dago egunero jardunerako zerbitzuetarako, baina ez dugu pentsatu mugarik ipintzea. Sar daitezke erakuntzako gremioak, okindegiak, tabernak eta beste".

Udalaren asmoa da gida gertu izatea uztailearen 24rako web orrian eskegitzea. "Egun horretarako ez bada, hurrengo astean ipiniko dugu", esan du Garmendiak.

UDAL ZERBITZUEN ORDUTEGIA

Bestalde, Udalak berak ere jakinarazi du Udal zerbitzuen abuztuko ordutegia. Hala, Biztanleen Arreta Zerbitzua astelehenean egubakoitzera izango da zabalik, 08:30etik 14:00etara. Biblioteka ere, irailaren 12ra arte, astelehenean egubakoitzera izango da zabalik, 09:00etatik 14:30era. Eta Musakolako kiroldegia egunero, 09:00etatik 21:00etara zabalduko dute eta igerilekuak ere egunero, baina 10:00etatik 20:30era. Bukatzeko, Udaltzaingoak ohi duen moduan, 24 orduko zerbitzua emango du.

ANIMALIAK > KATUEN UGALKETA

Katuendako tratu etikoa gura du EB-Zutik koalizioak

U.M. > ARRASATE

Ezker Batua-Zutik koalizioak "gaitzetsi" egin du kaleko katuen ugalketari aurre egiteko Udalaren "ehiza-neurria". Zerbitzu Sailari eskatu dio "katuen koloniak behar bezala kudeatzeko, katuak ez hiltzeko eta animalioi tratamendu etikoa eskaintzeko". Hain justu, koalizioak proposatu du katuen kolonien kontrolak egitea. Ander Rodriguez bozeramaileak esan duenez, "jatekoa eta edateko ura eduki dezaten, garbi egon daitezten eta infektiorik sor ez dadin. Horrez gainera, koloniak kontrolatzeko, emeak antzutu-ko dira (arrak, geroago), eta parasitoak kenduko zaizkie". Rodriguezek salatu du katuen

kontrolerako Udalarekin lanean ziharduen Zaunk enpresak katuak akabatu egiten dituela, eta horregatik eskatu dituzte bide alternatiboak.

ENPRESA BERRIA

Horren harira, Patxi Arburua Zerbitzu Saileko arduradunak jakinarazi du gai hori berraztertzen dabilzala. Etagaineratu du dagoeneko aldatu dutela katuen harrapaketa arduratzen zen enpresa. Zaunk enpresak katuak harrapatu eta berehala akabatzen zituela ikusita, utzi egin dute eta Bergarako Elur enpresa kontratatu dute. Sei hilabeterako konpromisoa hartu dute herekin, katuen ugalketari zela aurre egin aztertzen duten bitartean.

> JAIK

Gaur, egubakoitza, eta martitzenean, kaleko jaiak ospatuko dituzte Maala Errebalakoek

Domekan hasiko dira Maala kaleko jaiak, Errabalean hil direnen alde esango duten mezarekin, 12:30ean San Frantziskon. Horren ostean, txistulariekin kalejira egingo dute eta Maalako erretiratuendako luntxa izango da Plus Ultra tabernan. Gero, martitzenean segituko du jaiak, uztailearen 22an. Besteak beste, 17:00etan ume jolasak eta txokolate-jana izango dira, 21:00etan afaria, 23:00etan musika eta dantza eta 23:30ean, suzko errubarak.

AZPIEGITURAK > HARROBIAK

Herri-galdeketa eske tren eta harrobien gainean

Aralarrek herriko harrobien egoera salatu, eta eskatu du herriari galdetzeko

U.M. > ARRASATE

San Josepe harrobia dela-eta Aralarrek Udal Gobernuaren jarrera salatu du, joan den astean EB-Zutik eta PP alderdiek egin zuten moduan. Hau salatu du: "San Josepeko harrobiak, 1995. urtetik

aurrera, 19 sektorea gune industrial moduan birkalifikatzeko hitzarmena sinatu zenetik, momentu oro gura duena egin du. Eta agian batek baino gehiagok pentsatuko zuen EAE udalean izaki egoera aldatuko zela, baina ez da horrelakorik gertatu". Datuak ere eman ditu: "1997ko apiriletik 2003ko abenduaren 15a arte harrobi horrek 2.065.629 tona material ustiatu zituen, aurretik adostu zena baino 385.629 tona gehiago".

Salaketa horrekin batera, Udaltzeko harrobiaren egoera ere

salatu du Aralarrek: "Udalaitz harrobia ere ahaztu egin omen dute. Non gelditu dira Udaltz ez zulatuzioten pankarta eta oihukak? Egiten ari diren meategiaren jarraipenik egiten al du inork? Agian AHTri bidea erraztu nahian dabilza..."

Bada, hori ikusita, Aralarrek proposatzen duena da herri-galdeketa egitea, harrobiaren gainean: "Adibidez, ustiaketa mota hori gustatzen zaigun, komeni zaigun..." Eta tren azkarraren gainean ere galdetzea proposatzen du.



Udalatx barruan harrobia ustiatzen dihardute azken urteotan.

GOIENKARIA

**BASATI
TABERNA**
TRAGUAK
943 711768

UGARTE
Industria
hornidurak
San Andres auzoa 2. 5-6
Pab.
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

GIZARTEA > PEDRO BITERIRI OMENALDIA

Pedro Biteriri gorazarre egingo diote gaur iluntzean

Arrasateko filantropoaren gaineko ikerketa lana egiteko beka antolatzen ere badabilta

UBANE MADERA > ARRASATE

Gaur, egubakoitza, 175 urte bete dira Pedro Biteri Arana (1833-1908) filantropo arrasatearra jaio zela. Bada, urteurren hori gogora ekartzeko gorazarre ekitaldia antolatu du Udalak.

Hain justu, 19:30ean hasiko da, Pedro Biteriren beraren omenezko monumentuan, Grupo San Juanen dagoen Alfonso X. plazan, beraz.

ABERASTASUNA HERRIARENDAKO

Eguaztenean aurkeztu zuten ekitaldia prentsaurrekoan. Besteak beste, Oihana Aranburu jarduneko alkateak gogora ekarri zuen Pedro Biterik herriaren onurarako utzi zuela bere aberastasuna, eta haxe azpimarratu zuen: "Haren testamentuak jasotzen duen moduan, Biteri Fundazioaren lana moralki haurrengana zuzenduko da, batez ere; hau da, heziketaz arduratzen ez diren familien haurrengana, babes-premia handien

dutenengana, beraz". Horren ondorioa izan zen Biteri eskola, eta kontuan hartuta herriko neska-mutiko ugari ikasi zutela han, "herritarrak omenaldian parte hartzea gustatuko litzaiguke", esan zuen Aranburuk.

Prentsaurrekoan jakinarazitakoaren arabera, Josemari Velez de Mendizabal historiagile eta idazleak aurkeztuko du gaurko ekitaldia. Lore eskaintza egingo dute monumentuaren aurrean, Arrasateko hainbat neska-mutikoren eskutik; ohorezko agurra dantzatuko dute, dantzari eta txistulariek lagunduta, eta Goikobalu abesbatzak saiotxo egingo du. Horrez gainera, Benito Lertxundirekin urte luzean jardun duten Pello Ramirez eta Juanxo Zeberio musikariek ere egingo dute saioa, biolontxelo, akordeoi eta pianoarekin. Ekitaldia borobiltzeko luncha emango dute eta sorpresaren bat izango dela ere iragarri dute.



Oihana Aranburu eta Jon Garai, eguazteneko prentsaurrekoan.

ARTEMAN

> MUSIKA

Punk-rock eta hardcore doinuak gaur gauean 3.60 aretoan, 22:30ean

Surfin Kaos (Donostialdea), Plan B (Donostia) eta Captain Nemo (Andoain-Lazkao-Eskoriatza) musika taldeen esku izango da gaur, egubakoitza, gaueko kontzertua 3.60 aretoan. Punk-rock eta hardcore doinuak, beraz, jaun eta jabe izango dira, 22:30ean hasita, San Andresko musika aretoan.

> MUSIKA

Afrikako eta Amerikako erritmoak, Monterron parkean

Bi kontzertu egongo dira gaur Monterron parkean, Udazabal egitarauaren barruan: 22:30ean, Garifuna Collective taldeak joko du, Erdialdeko Amerikakoak baina afrikar sustraidun musikarekin; eta, 00:00etan, Habib Koite maliarrak, bere herriko instrumentu tradizionalak eta modernoak uztartuaz.



GOIENKARIA

Bedoñatik Iparraldera, BATUren eskutik

Bedoñako Kultura Elkartek (BATU) antolatuta, irteera egin zuten auzoko 35 lagunek uztailaren 12an. Lehenengo, Baionara joan ziren. Han, Erdi Aroko azoka ikusi zuten eta gero, eguraldi txarra zela-eta, txikiteoan ibiltzea erabaki zuten. Baionatik Ezpeletara joan ziren -oso herri polita, bedoñarren esanetan. Kontatu dute Ezpeletako Euskadi jatetxean bazkaldu zutela; eta, txangoa bukatzeko, Sarako Ostolopitz baserri museoan ikusi zuten. Bedoñako Kultura Elkartea berria da. Auzotarren arteko harremana indartzeko sortu dute eta harrezkero egin dute makinatxo bat ekitaldi. Esaterako, argazkiko irteera aurtengo bigarrena da eta dagoeneko hirugarrena antolatzen dabilta: "Udazkenean Errioxara joateko asmoa dugu, auzotarrek hala eskatuta", esan dute.

Berlingo
CITROËN BERLINGO BERRIA.
BENETAN NAGUSI DIRENENDAKO

NAGUSIA ZARA?

JAKIN EZAZU NAGUSIMETROA BETETA

1. Zuk erabakitzen duzu lanegunaren hasiera eta bukaera? BAI EZ

2. Zuk erabakitzen duzu zenbat denbora duzun bazkaltzeko? BAI EZ

3. Zuk erabakitzen duzu noiz joango zaren oporretara? BAI EZ

4. Zuk erabakitzen dituzu enpresako txartelen koloreak? BAI EZ

5. Zuk erabakitzen duzu enpresara nola jantzita joan? BAI EZ

Baiezkoak 1etik 2ra baldin badira: ez zara nagusia; 2tik 4ra: erdi nagusia zara; 5etik 5: nagusia zara.

Citroën-ek Berlingo berriaren merkaturatzearekin batera nagusimetroa aurkeztu du: nagusia zaren jakiteko metodo ezin hobea. Citroën Berlingo berria ez baita edozein ibilgailu. Erabat birsortua, monobolumen baten erosotasuna eta 4x4 baten indar guztia ditu bateratuta. Joan zaituz gertuen duzun Citroën auto kontzesionariora eta deskubri ezazu Citroën Berlingo berria, nagusia.

Eta, bidez batez, merkaturatzen ibilgailu komertzialen artean liderrak diren aukerak aurkeztuko dizkizugu:

Talleres Chapime, S.C.L.
Debagoieneko Citroën Kontzesionario ofiziala.
San Andres auzoa 5. Arrasate | Tel.: 943 79 45 22
Tailerreko ordutegia: Asteleheneetik egubakoitzera: 8:00-13:00 eta 15:00-19:00
Zapatuetan, enpresa eta langile autonomoei zuzendutako matentze lan zerbitzua. (Aurrez deitu)

CITROËN
Citroën-ek edozer egin dezake zuegatik

Amaia Doyague > Arraunlaria

"Irailean Kontxako Banderan egoteko, lehenago Gipuzkoako Txapelketa irabazi behar dugu"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Amaia Doyaguek (Arrasate, 1983) hiru urte daramatza Tolosan bizitzen, eta hara joan eta segituan Tolosaldeko Arraun Klubean sartu zen. Denboraldian zehar batean lehiatzen da, baina hilaren 23an Gipuzkoako Arraun Txapelketa jokatu du Donostian, eta hilaren 31n Euskadiko Txapelketan izango da, Lekeition.

Txapelketetan buru-belarri ibili behar duzue uztailaren amaieran.

Bai, eta txapelketa horietan lan ona egiteko oso gogor gabilta entrenatzen, martitzenetan bakarrik hartzen dugu atseden.

Ze aurreikuspen dituzue?

Egia esateko, lehenengo aldia da traineruan lehiatuko garena, emakumezkoen lehenengo txapelketa izango da, eta ez dakit zelan ibiliko den talde bakoitza. Dakidan gauza bakarra da gure moduan gainontzekoak ere gogor entrenatzen dabilzala.

Zenbat talde izango zarete?

Emakumezkoen kategorian hiru traineruk hartuko dugu esku. Zumaiaiko eta Getariko neskek talde bat osatuko dute, Pasai Donibane eta Hondarribiko neskek beste bat eta tolosarrok osatuko dugu hirugarrena.

Lehenengo txanda gurea izango da, emakumezkoena, eta 19:00etan lehiatuko gara. Ondoren etorriko dira gizonezkoen kategoriak.

Eta hilaren 31n Euskadiko Txapelketa izango da Lekeition.

Hori da. Pentsatzen dut txapelketa horretarako beste traineru bat gehituko dela, Bizkaian beste talde bat dagoelako.

Eta, telebistan ikusi ahal izango ditugu zuen probak?

Ba, ez dakit, baina ongi toterriak izango lirakeke, seguru. Gaur egun komunikabideetan azaltzea oso garrantzitsua da, eta etortzen badira, ederto.

Expon egin zenuten proba telebistaz eman zuen ETBk.

Bai, hura izan zen telebistarekin izan dugun lehenengo harremana, estropada guztia emittitu zuten, eta bazen ordua! Emakumeak beti geratzen gara bigarren mailan, eta ez da batere justua. Ikuskizun bera eskaintzen dugu, gizonezkoen moduan entrenatzen gara eta guk ere merezi dugu errekonozimendu hori.

Denboraldian zehar batean trainerua baino ontzi txikiagoa lehiatzen zarete. Posible izango litzateke traineruen emakumezko liga bat?

Egia esateko, oraingo oso zail ikusten dut. Batel bakoitzean lauzpabost lagunek hartzen dute esku, eta 70 kiloko ontziak dira. Traineru batean, baina, hamalau lagun sartzen dira, 200 kiloko ontzia mugitzeko. Alde horretatik, jende faltan ibiliko ginakeke liga bat osatzeko. Oraingo txapelketak hainbat klubetako neskek batuta egingo ditugu.

Irailean ere beste hitzordu garrantzitsu bat izango duzue, Kontxako Bandera jokatu duzue-eta.

Hori ere lorpen handia izango da, baina oraindik ez dakigu bertan izango garen edo ez. Galiziak talde bat izango du, eta baita Kantabriak ere. Bizkaian talde bakarra dago, baina Gipuzkoan hiru talde gaude, eta hilaren 23ko Gipuzkoako Txapelketako



Amaia Doyague, Gipuzkoarekin Expoko bandera irabazita.

EGUZKIÑE

irabazleak ordezkatu du Gipuzkoa Kontxan. Horrek esan gura du Kontxan egoteko Gipuzkoako txapelkun izan behar dugula. Dena dela, gauza ederra izango da emakumezkoak ere Kontxan egotea. Gizonezkoak domekan lehiatuko dira, eta gure estropadak zapatuan izango dira.

Txapelketak alde batera utzita, Arrasatekoa izanda, zer dela-eta arraunean?

Arrasateko norbait arraunean ibiltzea oso gaitza da, ia ezinezkoa, asko entrenatzen garelako eta batera eta bestera ibili beharko lukeelako. Baina Tolosara etorri nintzanean, hemen-

go taldeko emakumezkoak ikusten nituen uretan sartuta, entrenatzen, eta inbidia sartu zitzaidan. Kaia etxetik bi minutura daukat, eta probatzea erabaki nuen. Eta hor nabil.

Zer behar da arraunean jarduteko?

Gainontzeko kirolean behar den gauza bera, esango nuke. Hasteko, gogoa izatea. Eta horrekin batera konpromisoa hartzea eskatzen du, oso kirol zorrotza da eta. Eta horrekin batera, indarra izatea, teknika lantzea... Azken batean, gainontzeko kirolean behar den gauza bera.

Zein da kirol horretan duzun helburua?

Batetik, gu batean ibiltzen gara gehien, eta modalitate horretan Espainiako Txapelketa da garrantzitsuen. Azken urteotan bertan parte hartzeko sailkatu gara, baina gero ez dugu gauza handirik egin.

Bestalde, emakumeok daukagun borroka horrekin jarraitzea, gainontzeko gauzeekin batera, kirolean ere berdintasunaren alde egitea, alegia.

"Gipuzkoako Txapelketara telebista etortzen bada, ongi toterria izango da"

"Neskek entrenatzen ikusita inbidia sartu zitzaidan, eta probatzea erabaki nuen"

bere ustez



Aitor Izagirre

Osagaiak: azukrea, kakao pasta...

Almendra xigortua (%25), kakao manteka, emulsiotzaila: lezitina, aroma: bainillina, kakao: gutxienez %52. Hur eta esne aztarnak izan ditzake.

Hori da Valor markako 250 gramoko txokolate-tableta baten atzean irakurri daitekeena. Valor Alacanteko enpresa bat da, eta beste hamar hizkuntzaren artean euskara ere erabiltzen du hainbat azaletan (euskara, gainera, hirugarren hizkuntza da gaztelera eta katalana eta gero).

Har dezagun orain gudan-

"Zelan da posible Alacanteko enpresa batek euskara aintzat hartzea eta Oñatiko batek ez?"

dik askoz gertuago dagoen enpresa bat: Oñatiko Zahor. Eskuetan beraien bonboiak hartuta, zazpi hizkuntza ageri dira, hori bai, euskarak ez du paketeen lekutxo ziztrin bat merezi... Zelan da posible Alacanteko enpresa batek kontuan hartzea euskara eta Oñatiko batek ez?

Zahorreko lantokian zenbat langile izango dira euskaldunak? Batzuek esango dute Valorrren marketinaren ondorio dela, baina ezin ukatu euskaldun bezala nik informazioa euskaraz daukadala marka honetako produktuetan.

Jakin dudaren arabera, Zahorrek ez du sekula euskara erabili bere produktuetan; ordua izango da, behingoz, gurea den hizkuntza erabiltzeko, ezta?


**KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK**

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

**PUB
HAIZEA**





Maialako Jaiak 08

Maialako Errebala, 8
Tel.: 943 79 56 44
arregi.arte@gmail.com

markoak margolanak
ispiluak obra grafikoa
erakusketak

Uztailaren 20a, domeka
- 12:30ean San Frantziskon meza, Arrabalean hil direnen omenez.
- Ondoren, txistulariekin kalejira.
- Arrabalako jubilatuentzat luncha Plus Ultra tabernan.

Uztailaren 22a, martitzena
- 17:00etan ume jolasak eta txokolatada.
- 21:00etan afaria kaleko bizilagunentzat.
- 23:00etan musika eta dantza.
- 23:30ean suzko erruberak.

Tel.: 943 79 70 11

100 urte
• Arrasaten,
• Arrasatekin,
• Arrasaterentzat.

Maialako Errebala 3
Tel.-Faxa: 943 79 12 72
Jai zoriontsuak opa dizkizugu!

Tel.: 943 79 45 99
943 79 18 86

Tel.: 943 79 20 57

Zure haurtxoaren denda.

Tel.: 943 79 19 14

Maialako errabala 5
Tel.: 943 79 19 25


Dietetika eta Elikadura

Tel.: 943 79 04 34

Maialako Errabala 13
ARRASATE
943 79 92 76

Maialako Arrabala 29
Tel.: 943 79 67 26

Tel.: 943 79 20 56



Jendea kanpoko berdegunean eguzkia hartzen eguaztenean.

JASONE ZABALA

Kanpoko igerileku azken uda izan daiteke Bergaran

(13. orrialdetik dator)

zabalik, eta hortik pasa beharko dira berdegunetik igerilekura doazen guztiak, eta alderantziz. "Pasabide horretan putzu bat eta dutxa egongo dira, eta denak busti beharko dira igerilekura joateko. Igerilekuak asko zikintzen dira, eta hori saihestea da helburua", dio Kirol teknikariak. Bestalde, barruko igerilekuko alboetako kristalak zabaldu egingo dira gero ere, kan-

poko eta barruko ur putzuak lotzeko. Kanpoko igerileku barruan, bestalde, txirrista eta korrontearen aurka doan ur eremu bat, behintzat, egongo dira.

URRIAN HASIKO DITUZTE LANAK

Irailean jasoko du Udalak kanpoko igerilekuaren exekuzio proiektua. Lehiaketa publikora aterako ditu lanak segidan, eta asmoa du lanak urrian hasteko. "Askoz beranduago hasiz gero, ez digu astirik emango hurrengo udako lanak bukatzeko. Kanpoko eta barruko igerilekuen arteko ur konexioak, ur-harguneak, ur-arazleta, eta antzerako lanak egiteko ere komeni da barruko igerilekua itxita

dagoenean egitea, eta Aste Santuko egunak aproposak izango lirarteke horretarako. Ikusi egin behar, ordea, lanak nola doazen ordurako", dio Martin Etxeberria Kirol zinegotziak.

Neurriei begiratu, kanpoko igerilekuak 380 metro koadro ur izango ditu. "Konparazio bat egiteko, barruko igerileku handiak hamar kale ditu, eta kanpokoak zortzi izango lituzkem lauki zuzena balitz", argitu du Unai Asurmendi kirol teknikariak. Proiektuaren aurrekontua bi milioi euro pasakoa da.

Urtean zehar 800 erabiltzaile ditu Agorrosinek astelehenetik eguenera, eta udan, 1.300.

ERABILTZAILEEN IRITZIAK



Virginia Movellana

"Ez dago txikiendako igerileku egokirik. Ondo eta beharrezkoa ikusten dut kanpoko igerilekua egitea, eta berdegunea handitzea, berritzen ari diren Ipintza futbol zelaiari kenduko nioke zati bat. Hala ere, orain ematen duten zerbitzuarekin gustura gaude".



Antonia Heras

"Nahiago dut igerilekuak kanpoan edukitzea, lehen moduan. Hala ere, instalazio berriak oso egokiak dira. Bestalde, pertsona nagusi asko etortzen dira igerilekura eta lehen hamakak egoten ziren etzateko, baina orain ez dago ezer eta jendeak faltan igartzen ditu".



Ainhoa Aranburu

"Barrukoak baino gustukoagoak ditut kanpoko igerilekuak. Gaur, adibidez, bazkaltzera etorri gara lagunak eta apur bat urrun gelditzen da barruraino joan beharra bazkaldu eta gero. Hala eta guztiz ere, gustura gaude barruko igerilekuekin".

POLITIKA > URTEBETE UDALBATZAK

Agintaldiaren lehen urteko balorazioa egin dute alderdiek

Aralar pozik dago gobernuan, PSE-EEK uste du ez dela ezer aurreratu, eta EAJK eta EAK, goizegi dela iritzia emateko

nakoak bereiztu eta aurrera egin dugu. Ilusioarekin jarraituko dugu lanean, eskuartean ditugun proiektuak gauzatzeko".

PSE-EE: "EZ DA URTE ONA IZAN"

"Gure ustez, urte hau ez da ona izan: epaitegiaren aurkako bonba leherketa, Isaias Carrascoren hilketa... bi lagun baino ez ziren etorri doluminak ematera. Kanean jendeak babesten gaitu, baina udaletxean beste aldera begiratzen dute denek", dio PSE-EE alderdiko M. Karmen Barrenetxeak. Herriko proiektuei begira, Udalak ez duela ezertan aurrera egin dio: "Adibidez, komun publiko barik jarraitzen dugu, igerilekuko proiektua bukatu gabe dago, aparkaleku arazoak ditugu, udaletxean ez dugu euskarazko momentuko itzultzailerik, lur azpiko aparkalekuko lanak ez dira hasi, Zubieta eta Masterreka kaleetako lanak poliki doaz eta Artekalekoetan garrantia gutxi dago". Proiektuak gauzatzeko, alderdiekin adostasuna lortu gura dutela gaineratu du Barrenetxeak.

EA: "GOIZ DA"

EAKo Lauri Askargortarendako oraindik goiz da balorazioa egiteko. "Gobernuan dauden batzuk Udaletik kanpora egon ziren lehengo agintaldian, eta urtea azkar pasa da, martxa hartzen. Bestalde, oraingo gobernuak aldaketak egin ditu eta denbora behar da aldaketa horiek ikusteko. Adibidez, Udala guztiz zabaldu diote herriari, batzordeetara zinegotziak zein herritarrak joan daitezke, eta hori positiboa da. Bestetik, agintaldirako duten plan estrategikoa ere erakutsi digute eta hor ikusten da gauzak garbi dituztela. Gero ikusi behar orain jasotakoa betetzen duten edo ez, eta hori garrantzitsua da. Plan Orokorra ere aldatu egin dute eta ikusiko dugu ze alternatiba bilatzen dioten Zabalotegiko errepideari".

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Joan den asteko GOIENKARIAN elkarrizketa egin genion Agurte Berruso alkateari kargu horretan diharduen lehen urteari erreparoa egiteko. Udaltzako osatzen duten gainerako alderdien balorazioa jaso dugu aste honetan.

EAJ: "HASIERA FASEAN"

EAJko German Muruamendiarazendako urtebete gutxi da balorazio sakon bat egiteko. "Agintaldirako aurkeztu duten proiektua hasiera fasean dago oraindik, adibidez. Bestalde, Plan Orokorri buruz irailean emango dugu iritzia", dio EAJko ordezkariak. Horrekin batera aurreratu du datorren astean prentsa ohar baten bidez balorazio zabalagoa emango duela alderdi jeltzaleak.

ARALAR: "OSO GUSTORA"

Aurreko agintaldian ere gobernuan egon zen Aralar, eta orduko esperientziarekin konparatuta, oraingoa hobea dela dio alderdiko Mikel Etxanizek: "Batetik, funtzionatzeko era guztiz ezberdina da, erabaki guztiak denen artean hartzen ditugu, parte-hartzea handiagoa da. Gobernuan dugun pisua ere handiagoa da; bestetik, gure botoa erabakigarria izan daiteke, eta lehen, berriz, sinbolikoa zela esan daiteke". Mikel Etxanizek balorazio positiboa egiten du. "Gobernuan oso gustura gaude. Herritarren parte-hartzea ere sustatu da eta pozik gaude. Tentsio momentuak ere izan ditugu, baina ardurako politikoa eta herritarrengara

Zerbitzu berria
labanak eta guraizeak zorrotzen ditugu

San Pedro 8 Tel. / Faxa: 943 76 27 70
20570 BERGARA (GIPUZKOA)

BIZKOTXOAK. ERREILENOAK ETA TOSTOAK

BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

ERAKUSKETA > MARGOLANAK

Pilar Muñoz bilbotarraren margolanak ikusgai egongo dira uztailean Nahikarin

Tamaina ertaineko 18 lanek osatzen dute erakusketa; eta uztail amaiera arte egongo dira tabernan

NEREA MENOR > BERGARA

Pilar Muñoz margolariaren lanak ikusgai daude Nahikari tabernan. Margolari bilbotar hori urtean zehar eginko lanak aurkezten dabil Bergaran: paisaiak,

eraikinak, kolore suabeak... Guztiak du lekua ikusgai jarri dituen 18 lan ertain horien barruan. Uztailaren lehen ipini zuten Nahikari tabernako hormetan zintzilik eta bertan izango ditugu hila-bete osoan.

IBILBIDE LUZEA

Artxanda mendiaren magalean jaiotakoa da Pilar Muñoz; bilbotarra, beraz. Oso gazte hasi zen margotzen eta urteekin arkatza eta ikatz-ziria erabiltzen hasi zen; besteak beste, natura hilak,

zirriborroak eta estilo askotarikoa postalak marrazteko. Geroago, euskal paisaiak eta kostaldeak irudikatzen hasi zen, akuarela erabiliz bere estilo artistiko moduan.

Felix Agirre margolariaren akademian ikasi zuen urtetan. Garai hartan, 1985. urtean, bere lehen erakusketa kolektiboa antolatu zuen Bilboko Ercilla Hotelean. Bederatzi urte geroago, 1994an, bakarkako erakusketak egiten hasi zen: Getxon eta Lekeition ikusi dituzte haren

lanak; baita Bilboko Juan Larrea erakusketa-aretoan ere.

ARTISTA ASKO

Urteekin, Nahikari taberna-galeria bihurtu da. Artista eta elkarre ezberdinek euren lanak jarri dituzte: Usoa Mendikute, Aitor Sarasketa, Komite Internazionalista eta Arrasateko Margo taldea dira horren adibide. Abuztuan, oporrak direla-eta ez da erakusketarik egongo, baina irailean margo berriek apainduko dituzte tabernako hormak.

bere ustez



Unai Lopez

Ekonomiaren egoeraren gainean

Ezinezkoa da azkeneko egun hauetan egunkariaren bat hartuz gero estutzen gaituen egoera ekonomikoaren inguruan datu ezkor berririk ez jasotzea. Edonork ulertzeko moduko adierazle ugariekin bonbardatzen gaituzte behin eta berriz. Egoera hain larria ote? Egia esanda, adierazle hauek ez dira nolanahikoak: petrolio edo urre beltza 200 dolarren bidean gelditu gabe; autoen salmenta %30 jaitsi; gobernuaren barne ekoizkin gordinaren igoeraren aurreikuspena %1era ezin

"Euriborra, markak hausten; eta antzeko beste hamaika argi gorri ikusmugan"

heldu; prezioen gorakadan ere aspaldiko daturik okerrera oraingoa, iazko uztailarekin alderatuz %5 gora; Euriborra, markak hausten; eta antzeko beste hamaika argi gorri ikusmugan. Datu hauekin kontsumoa jaistea ez da harrizkoa, eta hau gertatuz gero, are eta beltzagoa dator kiguetorkizuna. Gobernua ibili badabil merkata eutsiko duen neurri ekonomikoak hartu nahian. Hala ere, horrelako krisialdian argi ikus daiteke mundu mailan ematen diren aldagaien aurrean edozein gobernuak jai duela egoerari eusteko ahaleginean. Edozein estatutako ongizatea, ekonomian eta eskaintza-eskaera kontrolatzen duten enpresa handien eskuetan gaudela ezin dugu ukatu. Kapitalismoa hizki handiekin.

Kurtso amaiera ospatzeko, Zaragozan izan ziren EPAkoak

Duela hilabete amaitu zituzten ikastaroak EPAn; hori ospatzeko bi irteera egin zituzten eskolatik: argazkian, Zaragozako Expoa ikustera joan zirenak agertzen dira. Egun pasa joan ziren eta pabiloi ezberdinak ikusi zituzten, baita eguerdiko desfilea ere. Datorren ikasturteko ikastaroetan matrikulatzeko epea irailaren 2tik 12ra egongo da zabalik.



ITZIAR GALLEGU

EDEL

TAPIZ DENDA

Etterako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.


Bidekurutzeta 14 BERGARA

KONDE

PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA



JAUJA

KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Kayak Taberna

Abuztuan eguneko menua

Terraza ederra, sekulako giroa!

Parking ederra

09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11



- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitarakoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

MUSIKA > ESPOLOIKO KONTZERTUAK

Jose Luis Pardoren rhythm and blues doinuak, Espoloian

Gitarrista eta abeslari
argentinarrek azken
diskoa, 'That's right',
aurkeztuko du

JASONE ZABALA > BERGARA

Espoloian egiten diharduten kontzertuen barruan, gaur gauean izango da hirugarrena. Jose Luis Pardo argentinarrek rhythm and blues doinuak eskainiko ditu The Mojo Workers-ekin batera, 22:30ean.

JOSE LUIS PARDO, 'BLUESMAN'-A

26 urte besterik ez izateko, Jose Luis Pardo abeslari eta gitarristaren ibilbidea harrigarria da. Hamar urte baino ez dira bluesa jotzen hasi zela Buenos Aires jaioterriko ostatueta. Argentinako gitarristarik handien artean nabarmentzeaz gain, blues musikaren AEBetako hiri mitikoetan jo du, agertokia John Primer, Billy Branch, Super Chicken Jhonson, Ray Killer Allison eta beste hainbat *bluesman*-ekin partekatuz.

THE MOJO WORKERS

Jose Luis Pardok The Mojo Workers sortu zuen 2004an, eta lehenengo diskoa kaleratu ondoren, taldea bere momenturik onenean dago, eta *That's right* argitaratu du 2008aren atarian; azken disko horren aurkezpena egingo du gaur gauean Espoloian.

AZKENA, UZTAILAREN 25EAN

Bestalde, Espoloiko kontzertuen barruan, datorren astekoa izango da laugarrena eta azkena. Terela Gradin & GEM Trio Galizia izango dira gure artean. Jazz gai klasikoak eta egungo musikagileen gaien bertsiak eskainiko dituzte.



Irudian, Jose Luis Pardo & The Mojo Workers.

BERGARAKO UDALA



LOKATZA TXIRRINDULARI ELKARTEA

Mikel Aristi, Lezon irabazle

Pasa den uztailaren 6an, Sumofic taldeko Mikel Aristi bergararrak Lezoko lasterketa irabazi zuen. Lehen urteko kadete mailako lasterketa gogorra izan zen, eraso ugari egon baitziren proba osoan. Taldetxo bat sortu zen eta horien artean Mikel Aristi zegoen; azken kilometroetan taldetik alde egitea lortu zuen. Atzetik, Andoingo Xabier Perezek harrapatu zuen, baina esprintean Aristi azkarrago ibili zen. Lokatza Ziklismo Eskolak aurten lortu duen lehen garaipena izan da.

> KONTZERTUA

Donostiako Mariaren Bihotza abesbatzak kontzertua egingo du Mariaren Lagundia elizan

Bihar, uztailak 19, Bergarako Orfeoak antolatuta kontzertua emango du Donostiako Mariaren Bihotza abesbatzak Mariaren Lagundia elizan, 20:00etan. Kontzertu horrekin, bada, Bergarako eta Donostiako abesbatzek egin duten elkartrukea amaitutzat emango dute. Eskainiko dizkiguten lanen artean nabarmentzekoa da, besteak beste, euskal musikako lan polifonikoak. 2003a ezkerro abesbatzaren zuzendari lanetan Miren Urbieta dabil. Hain zuzen ere, 1962an Antonio Sierra Valgañon (1926-2003) klaretar organista, konpositore eta zuzendariak sortu zuen 30 ahots naha-siko Donostiako abesbatza hori.



GAZTELV, S. A.
BURDINDEGIA

HORNIDURA INDUSTRIALAK

Mintegi kalea 1
20570 BERGARATel.: 943 76 34 50 • 943 76 32 48
Faxa: 943 76 32 52
E-mail: gaztelu.s.a@euskalnet.net
Web: www.ferreteriagaztelu.com

SANTOS

Etxetresna elektrikoak
eta argiztapenaMasterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

disdira

ile apaindegia
edertze gelaMasterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II


Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

**GORLAKO
KANTINA**

zabalik!

martitzenetik igandera 12:00etatik itxi arte
jaiegunetan 10:30etatik
astelehenetan itxita

- ogitartekoak
-
- pintxoak
-
- plater konbinatuak
-
- eguneko menua
-
- karta

Harremanetarako telefonoa:
627 81 82 12UZTILAK 19, LARUNBATA,
ARRATSALDEKO 7ETAN HASTA

Ainhoa erloju denda
Boni Laskurain 2

Akort publizitatea
Mugertza 7

Amparo ile apaindegia
Boni Laskurain 3-4

Antia harategia
Matxiategi 8

Aralar taberna
Matxiategi 3

Ayurveda & Sotai zentroa
Fleming 3

Belire eskulanak
Oxirondo 4

Berotzi ile apaindegia
Fleming 5

Biak arrandegia
Matxiategi 7

Eladio oinetakoak
Matxiategi 2

Estella ortopedia
Matxiategi 5

Etxalar kafetegia
Boni Laskurain 4

Etxeberria estankoa
Fleming 7

Gorosti loradenda
Matxiategi 1

Herran
Matxiategi 3-4

Ikasle liburu denda
Fleming 11

Itziar mertzeria
Matxiategi 1

**Juana Elgetarra
mertzeria**
Zubieta 38

Kayak taberna
Matxiategi 3

Mizpildi okindegia
Matxiategi 1

Olabe okindegia
Matxiategi 4

Saloki mertzeria
Matxiategi 2

Toki-ona bodegoia
Matxiategi 1

Yon Bilbao elektrizitatea
Fleming 11

Ondo pasau Santamainetan!

ETXEBIZITZAK > TASATUAK ETA BABES OFIZIALEKOAK

Ikusgai, babes ofizialeko etxebizitzaren zozketan sartuko direnen zerrendak

Urrian zozketatuko dituzte babes ofizialeko 100 etxeak; egubakoitzean, ostera, hutsik geratutako 15 etxebizitza tasatuak banatu zituzten

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Joan den egubakoitzean zozketatu zituen Udalak libre geratutako 15 etxebizitza tasatuak. 21 lagunek eman zuten izena, baina horietatik bost atzera bota zituzten eskatutako baldintzak ez zituztelako betetzen: lau, gutxieneko diru sarrerarik ez zutelako, eta bat, beste etxe baten jabe zelako. Notarioak, alkateak eta Bruesa enpresako ordezkari batek osatu zuten epaimahaia.

Zozketa egin ostean, izena emandako bat atzera bota zen; hortaz, guztiendako egon ziren



Deba ibaiaren beste aldean dabil egiten Bruesa enpresa eraikitzailea etxebizitza tasatuak.

MIRARI ALTUBE

etxebizitzak. Baliteke oraindik besteren bat atzera botatzea eta etxeak libre geratzea; hala gertatuz gero, urte bukaera inguruan

beste zozketa bat egingo dute. Gainera, orduan erabakiko luke Udalak etxeen jabe izateko jarritako baldintzaren bat aldatu

gura duen; aurretik etxea izatea, esaterako. Horren helburua izango litzateke 185 etxebizitza tasatuetatik bat ere ez geratzea hutsik.

BABES OFIZIALEKOAK URRIAN

Babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa, ostera, urrian egingo dute. Oraindik ez dute datarik zehaztu, baina onartutako eta atzera botatutako zerrendak dagoneko udaletxean dituzte interesatuek ikusteko. Eskaera egindako guztiek Etxebidetik bidalitako eskutitza jaso dute egunotan erabakiaren berri emanaz, eta ezetzaren kasuan arrazoia azalduaz. Hala ere, udaletxeko zerrendan begiratzea komeni da hanka-sartzerik ez dagoela ziurtatzeko. Erreklamazioak aurkezteko epea abuztuaren 8an bukatuko da.

Deba ibaiaren beste aldean babes ofizialeko 100 etxe egingo dituzte. Onartutako eskaerekin hiru zerrenda egin dituzte: ezindua; lau urte baino gehiago Etxebiden izena emandakoa; eta 25 eta 35 urte artekoa. Azken zerrenda hori da, hain zuzen, luzeena, 80 izen ingururekin. Baina hiru zerrendak bat eginda ere ez dira 130 izenetara iristen onartutakoak.

KULTURA > KULTURA ETXEAREN KUDEAKETA

Arkupe kudeatzeko lehiaketa deitu du berriro Udalak

Eguaztenean argitaratu zuten lehiaketa deialdia, eta abuztuaren 29a izango da eskaintzak aurkezteko azken eguna; oinarriak udaletxean dituzte

M.A. > ARETXABALETA

Uztailaren 3an egindako osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak kultura etxea kudeatzeko lehiaketa hutsik uztea eta beste deialdi bat egitea. Eguaztenean, hilak 16, argitaratu dute Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean bigarren lehiaketa deialdia, eta oinarriak udaletxean dituzte ikusgai.

Hala ere, kudeatzeko aurreikusi duten kopurua 400.000 euro da, eta antolatutako jarduerak sortutako etekinak eta gastuak enpresaren kargu izango dira. Abuztuaren 29a izango da eskaintzak aurkezteko azken eguna, eta irailaren 2an zabalduko dituzte egindako eskaintzok, zeini esleitu erabakitzeke.

Balorazio irizpide batzuk aldatu dituzte orainoan: jarduera egitarauak hamar puntu gutxiago du; Aretxabaletako eza-gutza soziokulturalak, bost gutxiago; metodologiak, funtzionatzeko erak eta giza baliabideek pisu bera dute; eta enpresak duen esperientzia hamar puntutik hogeiz izatera pasatu da.



Santa Kurtz kalean dagoen Arkupe kultura etxea.

MIRARI ALTUBE

Iber

Loteria
Paper denda
Liburuak

Otalora 2. ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

Jon Díaz
Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



Parket
flotatzaileak



AZKARATE
AROSTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

Arrotz lanetan behar
duzun guztia

Ateak • Leihoak
Horma-armairuak • Tarimak
Parketak • Sukaldeak

www.goiena.net/blogak/azkarate

ELKARTASUNA > HIRUATX ELKARTEA

Nekazariekin dabil Hiruatx Mitemeleten

Ekuatore Gineako nekazarien egoera aztertzen dabilta, elikagaiak izan ditzaten ziurtatzeko

MIRARI ALTUBE > ARETXABAETA

Ekuatore Gineako proiektuaren berri eman die Hiruatx elkarteak bazkide eta kolaboratzaileei egunotan. Komiki bidez jakinarazi die martxa onean doala 2005ean abian jarritako proiektua: oilaskoak hazi eta saltzeko kooperatiba. Orain, nekazaritzaren egoera hobetu gura dute, eta horretarako, bi teknikari agronomo eta koordinazio lanetarako arduraduna daude bertan.

NEKAZARITZA EGOERA AZTERTZEN

Apirilean ailegatu ziren hiru kolaboratzaileak Mitemeletera, nekazariei lagundu eta Hiruatxen proiektuari bultzada garrantzitsua ematera. Nekazaritzaren egoeraren azterketa egin dute lehenengo: familien egoera, nekazaritza metodoak, lurren analisiak... Familiako ortuak jarri gura dituzte abian herritarren elikadura hobetzeko. Horrekin batera, oiloak hazten dituen koope-



Mitemeleteko nekazari bat, oihana izandako lurra lantzen.

MUNDUKIDE

ratibak behar duen pentsua egiteko laboreak lortzeko plana egingo dute. Helburua da Mitemele te inguru guztirako elikagaiak ziurtatzea, eta zelan hornitu erakustea. Gainera, familia errenta osatzeko salmenta bultzatu gura dute. Teknikari agronomoek

lurren analisisien gaineko lehen txostena bidali dute, eta laster iritsiko dira beste batzuk.

URTEBETEAN, 51.000 EURO

Hiruatx elkarteak 100.000 euro bidaltzeko konpromisoa hartu zuen iaz. Bi urtean bidaliko luke-

te diru hori proiektuari laguntzeko, eta iaiztik hona dagoeneko 51.000 euro batu dituzte. Horregatik guztiagatik, eskerak eman gura dizkie Hiruatxek kolaboratzaileei, eta bide bereetik jarraitzeko laguntzen animatzen ditu guztiak.

KIROLAK > KIROL ZERBITZUAK

Kirol jarduerak emateko deialdia

M.A. > ARETXABAETA

Kirol zerbitzuak zeinek eman erabakitzeko lehiaketa deia egin du Udalak. Hilaren 10ean argitaratu zuen deialdia, eta hamabost eguneko epea dago eskaintzak aurkezteko. Oinarrien berri Udalaren webgunean dute interesatuek: www.aretxabaeta.com; deialdi eta lan eskaintzen atalean begiratu behar da.

BI URTERAKO KONTRATUA

Aretxabaletako kirol etxea ixtearekin batera bukatu zaio kontratua orain arte kirol jarduerak kudeatu dituen Goiena Sport enpresari. Gutxienez bi urte egongo dira aretxabaletarrak kirol etxe barik, baina kirol jarduera barik ez dira geratuko. Ilargi plazan dagoen Zainduz fitness zentroa erosi zuen Udalak orain hilabete batzuk, eta bertan emango dituzte jarduerak. Bi



Gimnasia saioa egiten kirol etxean.

MIRARI ALTUBE

urterako kontratua egingo diote hartuko duten enpresari -kirol etxea egin bitartean emateko zerbitzua-, eta luzatu egingo diote kontratua kirol etxeko lanak luzatu egiten badira. Zerbitzu hauek eskaini beharko ditu: aerobika, sasoiaren egoteko gimnasia,

spinninga, hirugarren adinekoren gimnasia, Atzegikoen gimnasia, banakako entrenamenduak eta beste kirol programa batzuk. Gorputz tratamenduei dagokionez, ostera, fisioterapia, masajea, sauna eta solariuma jarriko ditu herritarren zerbitzura.

> ANTZERKIA

Hipo eta Tomax pailazoen eskaintako ikuskizuna bihar (17:00) Arkupe kultura etxean

Hipo eta Tomax pailazoen sukaldari bihurtuko dira, eta Argiñano sukaldari famatuaren telebistako platoan egingo dute topo. Arkupe kultura etxean eskainiko dute ikuskizuna 4 urtetik gorako umeendako bihar, hilak 19 (17:00). Sarrera 5 euro da.

> IKASTAROA

Loramendi EEk gaurko antolatuta zeukan ardo dastatze eguna atzeratu egin dute irailera

Gaur, hilak 18, egin behar zuen Loramendi Euskara Elkarteak ardo dastatze herrikoia Mitarte kalean. Baina azken orduko ezusteko bat dela eta atzeratu egin dute ekitaldia, eta iraileko bigarren egubakoitzean egingo dute.


> ERAKUSKETA

Uztaila bukatu artean egongo da ikusgai 'Kantauriko Koloreak' argazki bilduma Arkupen

Arkupeko erakusketa gelan dagoen *Kantauriko koloreak* argazki bilduma hilabetea bukatu artean egongo da. Txomin Rivera urpeko argazkilaria adituarenak dira, eta Getaria (Gipuzkoa) inguruan ateratako argazkirik dotoreenak ditu ikusgai. Goizez (11:00-13:00) eta arratsaldean (18:00-20:00) dago zabalik.



1979urtetik zure zerbitzura



EGUZKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4

20550 Aretxabaleta

Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941

E-mail: info@eguzkigraf.com

Lurdes Idoiaga > Alkatea

"Abuztuan 15 egunetan zabaltzen duten negozioek 600 euroko laguntza jasoko dute"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Urtebete pasa da udal hauteskundeak egin zirenetik, eta balorazioa eskatzeko egin dugu berba alkatearekin.

Nolako balorazioa egiten duzu?

Agintaldi guztietako lehen urtea bezala, oso intentsua eta interesgarria izan da. Urtebete honetan lau urteko agintaldia planifikatu dugu. Gainera, gobernu kide ditudan zinegotziek lana gogotik egin dutela esan behar dut, eta baita gainerako zinegotziek ere.

Zeintzuk dira egun eskuarte-an dituzuen proiektuak?

Une honetan, epe motzera bukatu beharrekoak eta agintaldi osorako proiektuak ditugu. Aurreko agintalditik datoz Lanbus egitasmoa, besteak beste. Eta agintaldi honetan martxan jarri ditugun artean, epe motzera bukatuko ditugu Azkoagaineko eta ludotekako lanak. Bestalde, epe luzerako ditugu Urrutzuko kirol gune berria, Eteoko fakultatearen kokapen berria, Errekalde auzoko lanak eta bidegorrien proiektua, besteak beste.

Bestalde, hiltegia gogo handiz aurrera eramaten eta Oñatiko 16 nekazal auzoetako gaiak kudeatzen lanean dihardugu Mendi eta Nekazaritza batzordean. Era berean, Kultura batzordean ere lanean jarraitzen dugu.

Zertan da Lanbus egitasmoa?

Guztiz bukatuta daukagu proiektua: bi autobus egongo dira zerbitzua ematen, eta orduetgia ere zehaztu dugu. Udalak kostuaren herena ordainduko du, eta orain gurekin lanean egon diren 11 enpresek erabaki beharko dute, bakarka, ze finantzaketa mota erabiliko duten beraien langileekin. Bestalde, Foru Aldundiak aplikazio informatiko bat egin behar du, Lurraldeusek erabiltzen duen sistema gurera egokitzeko. Gure asmoa da azaro aldera zerbitzua martxan jartzea.

Errekalde auzoan egin beharreko hobekuntza lanen inguruan, zer diozu?

Proiektua eskatu behar dugu laster. Errekalden dagoen aparkaleku faltari irtenbidea ematea kontuan izango da lanak esleitzeko. Bestalde, aipatu behar dut Errekalden hainbat bizilagunek ez dituztela garajeak autoak aparkatzeko erabiltzen. Baina hala ere, soluzio teknikorik balego eta hango bizilagunak garajeak erosteko gertu baleude, lurrazpiko garajeak egitea aztertuko genuke. Auzo horren kasuan, bizilagunek osatutako batzorde batekin gabilta lanean.



Lurdes Idoiaga, udaletxeko bulegoan.

MIREIA BIKUÑA

Bidegorrien inguruko txostenak zer dio?

Irailean Txirrinka taldearekin egindako bilera baten ostean, teknikari bat kontratatzea erabaki genuen; hain zuzen, Txirrinkak gomendatutako Ander Irazusta hasi zen proiektua lantzen. Ekainaren 18an jaso genuen behin-behineko proiektua. Eguazteneko bileran, Txirrinka taldekoek ikusi zuten txostena, eta orain, proposamenak egiteko tartea izango dute. Teknikariak ikusi beharko du proposamenak teknikoki bideragarriaren diren, eta guztiekin behin betiko proiektua egingo du. Teknikaria izango da bidegorrien gaineko bilerak egingo dituena. Hortaz, bidegorrien sarea ez du Udalak bakarrik erabakiko; elkarlanean onorioa izango da.

Abuztuan dendak eta tabernak zabalik egoteko dirulaguntzak emango dituzue.

Azkeneko urteotan ikusi dugu abuztuan denda, taberna eta zerbitzu gehienak itxita egon direla, turismoaren eta herritarren kalterako. Horren harira, proposamen zehatza egin genien Txanda elkarte kideei eta kide ez direnei: abuztuan 15 egunez

"Lanbus proiektua bukatuta daukagu, eta azaro aldera martxan jarri nahiko genuke"

"Ludotekako plangintza aztertzen dihardu Euskara eta Hezkuntza zerbitzua"

"Agindutako proiektu guztiak egingo ditugu, edo, behintzat, ondo garatuta utziko ditugu"

jarraian, goiz eta arratsalde zabaldu ezker, 600 euroko laguntza emango geniel. Oraingo, 30 izen jaso ditugu. Neurri horrek abuztuan gutxieneko zerbitzuak egotea bermatuko du.

Atzerapenarekin, baina pasaden astean hasi zarete lurrazpiko aparkalekuak erabiltzeagatik kobratzen. Zergatik atzerapena?

Egia esan, guk uste baino askoz gehiago luzatu da. Lanak

bukatu zituztenean, kobratzen hasi aurretik hiru hilabetez, proba modura, lurrazpiko parkingak doan jarri genituen. Baina kobratzen hasteko ordua asko atzeratu da, beti ere, arazo teknikoak barne: zuntz optikoarekin eta bi aparkalekuen arteko konexioarekin arazoak izan genituen, besteak beste. Baina, azkenean, hasi gara kobratzen. Lurrazpiko parkingak erabiltzea ohitura kontua da. Datu bat emango dut: etorkizunean plazako aparkalekua dagoen espazioari beste erabilera bat emateko asmotan gaude, eta aparkalekuak murriztuko ditugu.

Kasablankan, etxe tasatuek ez dute harrera ona izan herritarren artean. Zergatik?

Nire ustez, faktore ezberdinekin egin dute bat gai honetan: krisiak, hipoteka-kredituen garestitzeak, langabeziak eta etxeen prezioek, besteak beste. Gainera, jendea babestutako etxeen zain dago, tasatutakoak baino merkeagoak dira-eta. Ugarkaldeko azken etxebizitza tasatuak urri aldera zozketatuko dituzte. Bestalde, San Martingoak nahiko atzeratuta ibili dira; dena den, urrian zozketa egiteko asmoa dute.

Usakoko hobekuntza lanak zergatik egin dituzte?

Badira hiru urte Osasun sailak Usakon hobekuntza lanak egin behar genituela zioela, baina hobekuntza horiek debekuak errespetatzea ekarri dute. Askorentako, Usako leku librean izan da beti, baina, orain, arau batzuk bete behar dituzte. Beharbada, xarma apur bat galdu du, baina egin beharreko lanak ziren.

Ludotekako lanak noiz bukatuko dituzte?

Lanak irailerako bukatuko dituzte, eta urri aldera jarriko dugu martxan. Une honetan, Euskara eta Hezkuntza Zerbitzuan, ikasturterako plangintza egiten dabilta. Astelehenetik egubakoitzera zabalduko dugu, hiru orduz, eta ordu eta erdiko jardunaldiak egingo dituzte.

Azkoagain berritzeko lanak aurrera doaz. Epeak beteko dira?

Baldintzetan zehaztu genuen abuztuaren 31rako bukatuta egon beharko zirela. Oraingo, lanak ondo doaz. Hasieran aurreikusitako lanez gain, beste batzuk ere egingo dituzte: alde batetik, taberna berria egingo dute; eta beste alde batetik, teilapea zegoen atzeko horma berria egingo dute. Bestalde, Altxibartik Azkoagainera doan bidean egin beharreko lanak aztertzen gabilta: besteak beste, espaloia txukundu eta zabaldu eta argiztatzea egin beharko ditugu. Azkoagaineko lanak bukatu ondoren, Ibarrakok hasiko dituzte.

Gaztetxea aldarrikatzeko Gazte Batzarrak aurkeztutako mozioa ez zenuten onartu. Orduetik, hartu-emanik izan duzue gazteekin?

Mozioa aurkeztu zutenean esan genien halako gaiak ez direla mozio bidez onartzen. Guk esan genien proiektu bat lantzeko, eta horren inguruan berba egingo genuela. Baina jakin dezatez, udaletxeko atea, beste edozein proiektuarekin egingo dugun bezala, zabalik dituztela.

Urte honetan, nolako hartu-emanan izan duzue gainerako alderdietako zinegotziekin?

Garbi utzi gura dut gu lanean etortzen garela, eta hartu-eman ona dut zinegotzi guztiekin, batzuetan adostasunik lortzen ez dugun arren.

Datozen hiru urteotarako, lan asko geratzen da?

Lan asko dugu aurretik, baina ziur nago agindutako proiektu guztiak egingo ditugula, edo, behintzat, ondo garatuta utziko ditugula.

KULTURA > ERREKAN GORA

Logela multimediararen 'Mokaua' ikuskizunaren txanda iritsi da

Errekan Gora jaialdiaren barruan aurreikusitako emanaldi multimedia da Elorrioko taldearena

Unibertsitateko klaustroan izango da, 23:00etan, eta, aurrekoetan bezala, sarrera doan da

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Errekan Gora jaialdiaren egitarauaren barruan, Logela Multimedia taldearen *Mokaua* ikuskizuna ikusi ahal izango dute eskoriatzarrek aste bukaeran. Huzezi unibertsitateko klaustroan eskainiko dute emanaldia bihar, zapatua, 23:00etan. Eguraldiak ez badu laguntzen, kiroldegian izango da hori. Sarrera doan da.

Elorrioko hiru gaztek osatzen dute Logela Multimedia: bi musikariek eta bideo sortzaile batek. Ander Garaizabalek ahotsa jartzen du eta hitzak sortzen ditu, besteak beste. Gorka Molerok, berriz, musika instrumentu asko jotzen ditu; eta Imanol Garaizabalek bideo sortzailea da. Partaide horiez gain, kolaboratzaileak ere badituzte inguruan.

Taldearen helburu nagusia DVD, CD eta Internet formatuetan ekoizpen digitalak sortzea eta, aldi berean, sorkuntza hori zuzenekoetara, agertoki gainera eramatea da. Hain zuzen ere, horixe egingo dute sortu duten azken lanarekin zapatu gauean Eskoriatzan.

INTERAKZIOA

Mokaua delako ikuskizunean, musikariek abestiak jotzen dituzten bitartean, Imanol Garaizabalek bideo-sortzaileak irudiak nahasten ditu zuzenean. Emanaldi horren ezaugarri nagusia interakzioa da. Musikariak ager-

toki gainean jarritako pantaila erraldoi garden bateko irudietan integratzen dira, eta musika, irudiak eta mugimenduak zuzenean sinkronizatzen dira.

Ikuskizun multimedia koloretua da *Mokaua*. Hamaika abestiz osatuta dago. Horretaz aparte, bost esketx umoretsu ikuste-

ko aukera izango dute bihar gauean unibertsitateko klaustroan hurbiltzen direnek.

Jakina denez, Eskoriatzako Udalak, herriko Aitzorrotz eta Elorrioko Arriola kultura elkarrekin laguntzarekin, Errekan Gora izeneko jaialdia antolatu du, aurten lehenengoz. Elorrioko Musikaire jaialdiaren haritik sortu dute Errekan Gora. Hala, uztaileko zapatuetan kultura ekitaldi bana egiten dihardute; elkarrekin artean zerikusirik ez duten ekitaldiak, hain zuzen ere.

Hilaren 26an izango da aurten egitarauko azken ikuskizuna: fado emanaldia egingo du

Portugalgo Fado Em Si Bemol musika taldeak. Kontzertua, esan bezala, zapatuan, hilak 26, izango da, Santa Marina plazan, 23:00etan.

TXATARRERIA KEATON

Bestalde, gogorazi behar da Errekan Goraren lehen ikuskizuna bertan behera geratu zela eguraldiagatik. Kultura sailak jakinarazi du hilaren 24an, eguena, izango dela Txatarrerria Keaton musika taldearen kontzertua, plazan. Eguraldia txarra bada, kiroldegian egingo dira Fado Em Si Bemol eta Txatarrerria Keatonen emanaldiak.



Logela Multimediakoak Arrasaten izan ziren joan zen udazkenean.

GOIENKARIA

LEHIAKETA

Inkernuk postal lehiaketa antolatu du

Irailaren bukaerara arte aurkez daitezke udako oporretako postalak

M.B. > ESKORIATZA

Inkernu tabernak postal lehiaketa antolatu du aurten ere. Eskoriatzarren artean aurretik izan duen harrera ona kontuan hartuta, berriro antolatzea erabaki dute; laugarren aldiz, hain zuzen ere. Irailaren bukaerara arte egongo da irudiak aurkezteko astia.

Antolatzaileek azaldu dutenez, postalak tabernan aurkeztu behar dira. Urtero egiten den moduan, jasotzen diren postalekin zozketa egingo da. Saridunak afaria irabaziko du, Gatza-gain jate-txean.

Aurreko urteetan 50 postaletik gora aurkeztu izan direla gogora ekarri dute antolatzaileek. Gaia librea da, baina udako oporrekin lotutako irudiak eramaten dira bereziki Inkernura. Aurkeztutako postal guztiekin, gainera, erakusketa egingo dute Inkernun. Hilabete inguru emango dute han, ikusi nahi dituztenendako.

ARGAZKI LEHIAKETA

Bestalde, Udalak antolatutako argazki lehiaketan parte hartzeko epea gaur, egubakoitza, amaitzen da. San Pedro jaietan hartutako irudiak aurkez daitezke. Bakoitzak, gehienez, jaietako hamar argazki aurkez ditzake. Irudiak www.eskoriatza.net webgunean daude ikusgai.

AISIALDIA > UMEAK

Aurreikusitako bezala egiten ari dira udaleku irekiak

Ez da aparteko arazorik izan, oraingoz: ekintzak ondo irten dira, partaidetza handiarekin

M.B. > ESKORIATZA

Pozik daude aurtengo udaleku irekietako zuzendari Amaia Zugasti eta Maite Uribebebarria. Orain arteko ekitaldi guztiak aurreikusitako bezala egin ahal izan direla diote: "Ekintzak ondo irten dira, partaidetza handia izan da eta, gainera, eguraldiak lagundu du".

Eskulanak, jokoak eta euskal olinpiadak izan dituzte, besteak beste, oraingoz. Gainera, rokdromoan, Gamarran eta Landako urtegiaren ere izan dira.

Zuzendariak gogorazi dute oraindik ekitaldi asko geratzen direla egiteke, hala nola gaur, barikua, Gorbeiko parke naturalean egingo duten egun pasa

eta nagusienek datorren astelehenean Negurixan pasako duten gaua.

URAREN JAIA

Ekimen arrakastatsuen uraren jaialdiarena dela diote: "Primeran pasatzen dute, ur jokoak egiten eta bata besteari bustitzen. Talde bakoitzak bi edo hiru aldiz egiten du hori". Azken jaialdia ere gustuko dute. Hilaren 23an, eguaztena, izango da hori. Aurten 171 ume eta 19 begirale daude.



Eguaztenean Gamarran izan ziren.

GOIENKARIA

bere ustez



Ugaitz Iturbe

Nazionalista txapeldunak Lisboan

Aurtengo ikasturtean Europan izan naiz, Erasmusaren Europan. Portugalgo banderez josiriko Lisboan.

Hango kaleetan gorria eta berdea ziren nagusi, baina ez dira falta izan beste kolore mordoxka bat ikusteko aukerak ere.

Italiar, alemaniar eta espainiarren artean bizi izan naiz, besteak beste.

Hauek kanpotik joandakoak ginen ikasleoren artean hiru multzo handienak izaki, azterketa azkar batean,

"Espainiarrek espainiarizat jotzen dute euren burua, baita nirea ere"

eta orokortzea egokiena ez den arren, zera esan nezake: alemaniarrek ez dute inongo nortasun arazorik, ez euren herrian ezta nazioartean ere, eta euren herrian gustura asko bizi dira (hauek ez dute ulertzen nolatan nahi duen herri txiki batek independentzia).

Italiarrek historia laburra dute italiar moduan, eta nabariak dira euren artean dauden ezberdintasun handiak; hala ere, nazio bakar bat izateko nahia ere nabaria da.

Espainiarrek, berriz, espainiarizat jotzen dute euren burua, eta baita nirea, eta beste makina bat jenderena ere. Hauek ozen esan beharra dute "¡Viva España!" halakorik existituko bada!



Maristek egokitu zuten garai batean San Jose parkea, eta lautadan santuaren irudia dago.

IRATI AGIRREAZALDEGI

AISIALDIA > SAN JOSE PARKEA

Egokitzen lanetan dihardute San Josen

Udalak herritarrak animatu nahi ditu San Jose parkea aisialdi gune moduan gehiago erabiltzera, eta konponketa lanak egiten dabil

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

San Jose parkea herritik gertu dagoela ikusita, aisialdigune moduan erabiltzera animatu nahi dituzte herritarrak. "Udal arduradunok animatu nahi ditugu parkea erabiltzera eta bertan dauden bista ederrekin gozatzera. Parkea denon artean zaintzen badugu, hobeto egongo da".

ARBOLAK ETA BIDEA

Horretarako, egokitze lanak egiten dihardute parkearen egoera hobetzeko, eta aurrerantzean beste lan batzuk egingo dituzte. Joan den neguan, errearen eta bidearen artean 50 arbola landatu zituzten, eta, egoera onean dauden arren, jaien ostean belarra moztu eta ingurua garbituko dute.

Beste arazo bat zen San Jose-rako bidea. Hondeatzaile txiki batekin harriak kendu zituzten eta bidea berdindu; baita ubideak egokitu ere. Neguan San Josen dauden arbolei errepaso bat egiteko asmoa dago lehortutakoak bota eta hainbat gune bakanduz.

San Jose Parkea maristek egokitu zuten eta gaztelu erako txoko bat, haitzulo txiki bat eta goiko lautadan San Joseren irudia daude, besteak beste. Gainera, fruta-arbolak eta bi akazia handi ere badaude, azken horiek Euskal Herrian oso bereziak.

> ELKARTASUNA

Anelkarrek 2.850 euro jaso zituen zapatuko elkartasun jaian

Zapatuko elkartasun afarian eta guatekean ateratakoarekin pozik daude Anelkarrekoak. 2.850 euro jaso dituzte. Eskerrak eman nahi dizkiote jaiaren parte hartu duen jendeari. Baita ere afaritarako gauzak kobratu ez dizkietenei edo prezio berezia egin dietenei. Urrirako beste ekintza batzuk gertatzeko asmoa azaldu dute.

> ELIZA

Kanpandorreko ordularia martxan ipini dute

Parrokiako erlojuaren orratzak hasi dira mugitzen. Apirilean ipini zuten parrokiako kanpandorrean erlojua. Orduetik hona geldi egon da, baina astelehena ezker martxan da. Kanpai txikiak konektatu dute eta aurrerantzean haiek joko dituzte orduak.

> KIROLA

Txirrindulari 'challenge'-n 30 ume eta gaztetxo ibili dira

Txirrindulari *challenge*-a zapatuko jinkanarekin amaitu da. 30 neska-mutikok hartu dute parte eta sei probetako emaitzak batuta honakoak dira irabazleak: Urtzi Mugurutz aalebin mailan, Mikel Arregi benjamin mailan, Iñigo Aranburu aurrebenjamin mailan eta Jon Fernandez txikienetan.

((112))
SOS DEIAK

Gorosti
Taberna

ONDO PASAU JAIXAK!

943 76 62 96
Zurrategi plaza 1
ANTZUOLA

HORTZ KLINIKA

Ana Sainz Malkorra
Mediku estomatologoa
Elkargokide zk.: 20000437

Odontologia orokorra • Endodontziak
Periodontzia eta inplanteak • Proteziak

ZORIONAK, ANTZUOLAR GUZTIOI!

Herriko Plaza 4, behea 20577
Antzuola Tel.: 943 78 71 69

JAI ZORIONTSUAK ANTZUOLAR GUZTIOI!

margolan
m a r g o a k

margo industrial
margo orokorra
margo dekoratiboa
erreformak orokorrean
fatxadak

Sagasti auzoa 5-3D • ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 13 • 665 73 39 55 • 687 57 07 77

Arin Jatetxea

Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak

Etxeko berezitasuna:
Buztana eta txuleta (zaharrarena).
Enkarguak ere hartzen ditugu.

Astelehenetan eta martitzenetan itxita

Jai zoriontsuak guztioi!

Kalebarren 7. Tel.: 943 78 62 45 ANTZUOLA



Martitzenean ipini zituen Udalak igerilekuak Maalan.

LARRAITZ ZEBERIO

AISIA > IGERILEKUAK

Txirristadun puzgarriak arrakasta handia izan du

Igerilekuek hartu dute asteen Maala parkea herriko umeen gozameneko

L.Z. > ELGETA

Martitzenean bainujantzia ipini eta asko izan ziren Maala parkera hurbildu ziren umeak. Toalla belargunean zabaldu eta Udalak ipinitako igerilekuetan gustura ibili ziren jolasean. Eguraldi ona aprobetxatuz lau igerileku ipini ditu aurten Uda-

lak. Nagusiendako igerileku handia eta gainerakoendako txirristadun puzgarria eta bi igerileku txiki.

Egun bat baino gehiagotan egon dira igerilekuak Maalan. Umeak, ordea, ez dira inoiz asetzen. Uda osorako nahi dituzte igerilekuak Maalan.

HIRIGINTZA > SALBADOR KALEA

Garajeetako atek atzera ateratzeko laguntzak

Udalak bere gain hartuko du, era berean, ur hartune pribatuak berriztatzearen kostua

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Salbador kaleko urbanizazio lanen zati handiena eginda dago. Kale horretan dauden garajeen atek behar den moduan egokitu behar dira orain. Amaral de Sousa enpresako beharginak hasita daude zeregin horretan.

"Udalak gurako luke Salbador kaleko zenbaki bakoitiko garajeen atek atzeko kalera ateratzea", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak. "Ez da kasu guztietan egiterik izango, baina jabeek jakinarazi nahi diegu Udala prest dagoela lan horien %50 bere gain hartzeko". Informazio gehiago behar izanez gero, interesatuek udaletxera jo behar dute.

Fermin Iribar elgetarraren garajeari egin diote dagoeneko aldaketa. Salbador kaleko atea betiko itxi eta irteera atzeko kaletik egiten dihardute beharginek.

UR HARTUNEAK

Udalak, era berean, bere gain hartuko du ur hargune pribatuak berriztatzearen kostua. "Salbador eta Lasao kaleetako herritarrei dagokie gastu hori ordaintzea, baina Udalak erabaki du kostu hori bere gain hartzea", adierazi du alkateak.

Sare orokorretik etxerora inoko instalazioa da Udalak ordainduko duena. "Etxearen fatxadatik barrurakoa jabeek dagokie ordaintzea".



Beharginak hasita daude garajeetako sarrerak egokitzten.

L.Z.

AGINTALDIKO BALORAZIOA > ELGETAKO ABERTZALEAK

Gobernuaren "iniziatiba falta izugarria" salatu dute

Oxel Erostarberen jokabide "gogorra eta ez demokratikoa" ere kritikatu dute

L.Z. > ELGETA


Elgetako Abertzaleak taldeak Udala Gobernuaren "imaginazio eta inizatiba falta izugarria" salatu du. "Aurreko agintaldian martxan jarritako proiektuak besterik ez dute bultzatu: Salbador kaleko urbanizazio berria, Urriburu edo Torrealdeko etxeak...", adierazi dute.

Oposizioak merkataritza arazoei inizatiba bakar bat ere planteatu ez izana salatu du. "Dendak ixten ari dira (...) eta Aralar eta EAE-ANVkoek ez dute krisia kudeatzeko gaitasunik izan". Euskal Herriko mendi museoaren proiektua "pikurara bota" izana ere salatu dute. "Agintaldi hasiera aprobetxatu beharra zegoen laguntzak jasotzeko eta urtea alferrik galdu dute". Pertsonal arloko udal politikarekin ere kezkatuta daude: "Aurreko aparejadoreak epaitegira eraman du Udala, uda garairako behar den pertsonala ez da denboraz kontratatu

eta Kirol teknikariak alde egin du". Aralar eta ANV agintean daudenetik Udalaren zorra handitu egin dela ere nabarmendu du Patxi Basauriren taldeak.

ALKATE PRESIDENTZIALISTA

Oposizioaren esanetan, "alkate presidentzialista suertatu da Oxel, bere jokabidea oposizioan gauden zinegotzietatik oso gogorra izan da. Bilera askotatik kanpo laga gaitu, eta gure jokabidearen inguruan adierazpen iraingarriak eta ulergaitzak egin ditu medioetan". Aralarrek itxura parte-hartzailea eman nahi duela baina bere jarrera ez dela batera demokratikoa adierazi dute.



Patxi Basauri.

L.Z.

> PODOLOGOAREN ZERBITZUA

Uztaileko kontsulta hilaren 24an izango da, 15:00etan, eta aurrez hartu behar da txanda

Podologoak beste bisita bat egingo du Elgetara. Hilaren 24an, eguna, izango da herrian eta 15:00etatik aurrera hartuko ditu interesatuak Domingo Iturbe kaleko eguneko zentroan.

Ezinbestekoa da alde zuzenetik txanda hartzea. Horretarako, Nati Arrietari deitu behar zaio, 943-76 80 77 telefonora.

Aperribay, s.l.

Marmoldegi
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

CIE Recyde

CIE RECYDE, S.A.U.
Pagatza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
www.cieautomotive.com

AENOR
Eguzkia
Erregulazioa
ER-0182/2/95
ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

bere ustez



Sebas Arantzabal

Lan eta bizi euskaraz

Euskal Herria inoiz euskararen herria izatea nahi badugu, eguneroko jardueretan euskara normaltasunez erabiltzea ezinbestekoa dugu; etxean, kalean eta baita gehienok bizitzako ordu dezente igarotzen ditugun lantegietan ere.

Gaur egun egoera bestelakoa da. Lantegi gehienetan gaztelania da hizkuntza nagusia, baina badaude bideak egoera horri buelta emateko.

Recyden, adibidez, hiru urte daramagu lan horretan. Lehen urratsa enpresa eta langileen ordezkarien adostasuna lortzea

"Recyde enpresan (...) euskara batzordea sortu eta hiru lantalde jarri ditugu martxan"

izan zen. Dirulaguntzak medio lanean hasi ginen eta EMUNen laguntzarekin euskara batzordea sortu eta hiru lantalde jarri ditugu martxan (errotulazio, dokumentazio eta mintza taldeak). Pixkanaka lantegiko irudia, megafonia, lan bilerak edo erabiltzen diren dokumentuetan euskararen presentzia gaztelaniaren parera iritsi da. Beste pauso batzuk ere eman ditugu; IEPA denon artean egiten dugun barne aldizkaria dauka eta aurten lehenengo aldiz ospatu dugu Euskararen Eguna kirolarekin, jokoekin eta bazkariarekin.

Ez da gutxi ermuar eta eibartarrez betetako lantegi baterako. Gaur egun, erdaldu hauek normaltasunez bizi dute euskararen presentzia beraian egunero lan harremanetan.

POLITIKA > OPOSIZIOAREN BALORAZIOA

"Plan orokorra oso atzeratuta doa", dio EAJk

Oposizioko alderdiek Udal Gobernuaren urtebeteko jardunaren balorazioa egin dute

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Hamahiru hilabete bete dira Asier Agirre, Martin Arriolabengoa, Jon Errasti, Joseba Jauregi eta Ainara Inuntziaga Udal Gobernura iritsi zirela. Oposizioko alderdiek, orain, urte honetan Udal Gobernuak egindako lanaren gaineko balorazioa egin dute.

EUSKO ALDERDI JELTZALEA

Txema Vilches EAJko bozemailea da eta hark egin digu azken urte honetako jardueraren gaineko balorazioa. "EAJko zinegotziok uste dugu Aramaio Udal Gobernuaren arazo larriena estrategia zehatz baten falta dela. Hau da, ez dugu ikusten Aramaio udalaren proiektu jakin bat datozen urteetarako. Uste dugu, gainera, konpondu beharreko arazoak ez direla erlatibizatzen. Askotan garrantzi bera daukate gai simple batzuek eta Udalarendako estrategiakoak izan daitezkeen proiektuek. Azkenik, ikusten dugu gestio lanaren etekina oso txikia dela. Esfortzu handia dago eta lan egiten dela ere ikusten dugu. Baina lan horren ete-

kina eskasa dela uste dugou. Dena dela, urtebete eskas pasa da oraindik", dio Txema Vilchesek.

Abiadura Handiko Trenaren kontra ere gogor egin du Udal Gobernu berriak. Vilchesek uste du, dena den, zarata handia atera duten arren ez direla helburu errealean zentratu: "Ekimen eta ekintza asko ikusi ditugu, baina ez die gaitz garrantzitsuei heldu, hala nola indemnizazioen gestioa, herriko errekurtsio naturalak zehaztea eta horiek babesteko alternatibak aurkeztea".

Asier Agirre alkateak behin eta berriz esan du oposizioaren parte-hartzea handiagoa izatea gurako lukeela. Horren harira, Vilchesek uste du askotan Udal Gobernuak alde batera uzten duela oposizioa: "Erabakien %100 euren esku dago eta gu entzule soilak gara. Gobernura iritsi zirenean proposatu genien geuk ere udal gestioan aktiboki parte hartzea eta komisioak modu proportzionalan banatzea. Ezetz esan ziguten. Beraz, garena gara, oposizioa. Dena den, uste dut oposizio konstruktiboa garela. Gainera, asko-



Txema Vilches, EAJko zinegotzia.

A. BARRUSO



Andres Osinaga, EAko zinegotzia.

A. BARRUSO

tan eurak dira alde batera uzten gaituztenak. Osoko bilkuren aktak galdera eta eskariz beteta daude, eta horiek askotan horrela gelditzen dira, inolako erantzun barik".

Plan orokorra izan da Udal Gobernu berriaren zeregin garrantzitsuetako bat. Vilchesek uste du oso atzeratuta dagoela plan orokorra: "2007ko amaierarako bukatuta egon beharko luke. Oso atzeratuta doa. Beharbada, lehen esandako lanaren etekin txikiarekin du horrek zerikusia. Nik uste dut nora iritsi nahi den jakin barik joan direla plana lantzen. Plan orokorra oso garrantzitsua da Aramaio udalaren etorkizunarako, eta hori bukatu beharra dago".

EUSKO ALKARTASUNA

Andres Osinaga EAko zinegotzi bakarra da Aramaio udalbatzan. Osinagak uste du oposizioa izan arren bera ez dela egokiena Udal Gobernuaren lana baloratzeke: "Hori botoa eman dieten herritarrei galdetu behar zaie". Dena den, boterera iritsi ziren momentutik egunkarrietan gezurretan ibili izana leporatu dio Udal Gobernuari. Abiadura Handiko Trenaren inguruan izan duten jarrerari buruz zera uste du Osinagak: "Orain arte gai hau osoko bilkurretan inoiz ez da agertu eta norbaitek gai honi buruz azalpenak eskatu baditu, hori neu izan naiz. Gobernu batzordeak ezer egin badu, ezkutuan eta isilean egin du; eurek jakingo dute zergatik". Plan orokorrari dagokionez, Osinagak ere uste du oso atzeratuta doala: "Uste dut gai hau ez dela behar bezala bideratu, beste herri batzuetan egin dutena ikusten badugu. Urtebete baino gehiagoko atzerapena daukagu eta, dirudienez, oraindik aldaketa asko falta dira. Hau luzatzen doa".

Arriolabengoak lehenengo postua lortu zuen Bastidan

Pasa zen zapatuan Spiuk Euskadi Rankingeko proba egin zuten Bastidan eta Markel Arriolabengoa aramaioarrak lehenengo postua lortu zuen. Erraz irabazi zuen, gainera, lasterketa; bigarrenari sei minutuko alde atera zion. Ez zuen arazorik izan, beraz, txapela lortzeko. Aramaio txirrindulari gaztea sasoiko dago eta oso ondo sentitzen dela azaldu digu. Orain dela 15 egun Lleidan lortutako 30. postuak ere indar handia eman zion Bastidako proban.

Bihar, uztailak 19, Euskadiko Txapelketa egingo dute Antzinen eta han ere emaitza ona lortzeko esperantza dauka Markel Arriolabengoak.



M. ARRIOLABENGOA

> UDALA

Udaletxea itxita egongo da abuztuaren 11tik 14ra bitartean

Udal bulegoak itxita egongo dira abuztuaren 11tik 14ra; gainontzeko egunetan, berriz, udaletxean normal egingo dute lan, udako egutegiarekin: 09:00etatik 14:00etara egongo da zabalik.

Udal Liburutegiari dagokionez, abuztuaren itxita egongo da. Uztaileko lehenengo hamabostaldian arratsaldean egongo da zabalik eta bigarren hamabostaldian, berriz, goizez zabalduko dute, 10:30etik 13:00etara. Ludoteka ere itxita egongo da abuztuaren.

Kiroldegia ere itxi egingo dute abuztuaren, 25etik 29ra izan ezik; egun horietan ohiko ordutegian egongo da zabalik; 17:00etatik 21:00etara. Uztailean betiko ordutegiarekin jarraituko dute: astelehenean ostiralera 17:00etatik 21:00etara, zapatuetan 16:00etatik 20:00etara eta domeketan 09:00etatik 13:00etara.

AISIALDIA > UDALEKUAK

'Altxorraren bila' eginda, bukaera polita emango diete gaur udalekuei

Gurasoak eta umeak, guztiak geratu ziren gustura Bikuñako zalditegira egindako irteerarekin; euria egin arren, ordubeteko bira egin zuten mendian



Ogia egin zuten eguazten arratsaldean neska-mutikoei.

MIRARI ALTUBE

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Gaur esango diete agur udalekuei neska-mutikoei *Altxorraren bila* jolasa eginda. Piratex utzitako pistei jarraitu beharko diete Gatzagan gordetako altxorra topatzeko. Hainbat eskulan, jolas eta irteera egin dituzte bi astean, eta gustura baino gusturago jardun dute guztiek. Gurel guraso elkarte ere pozik dago eginda-koarekin.

MENDI BUELTA ZALDI GAINEAN

San Fermin eguna ospatu dute, kamisetak margotu dituzte eta ogia egin, Gamarrako igerilekura eta Ariznabarrako rokodromora joan dira, eta Gaztainuzketan gaua pasatu dute. Hori gutxi ez, eta aurreko zapatuan Araba aldeira joan ziren eguna pasatzera gurasoekin batera. Eguraldi txarra egin zuen, eta aldaketa batzuk egin zituzten egitarauan. Lezean mendi buelta egin beharrean Araiara jo zuten, eta Natura Eza-gutzeko Zentroa bisitatu. Galzorian dagoen muxar grisari eskainitako erakusketa ikusi zuten bertan. Arratsalderako eginda zeukaten hitzordua, osterara, bere

horretan mantendu zuten eta Bikuñara joan ziren zaldian ibiltzera. Ordubeteko itzulia egin zuten euripean 25 zaldiren gainean, eta benetan abentura polita bizi izan zuten jakinarazi digu guraso batek: "Galtzontziloak ere bustita genituen, baina oso polita izan zen mendian egindako buelta, mendi bideetatik eroan gintuzten". Txikienak zalditegian ibili ziren zaldi gainean.

POZIK EGINDAKOAREKIN

Martitzenetik eguaztenera bitartean Gaztainuzketako mendi etxeetara joan dira gaua pasatzeko

ra: "Guztiak joan dira, 3 eta 4 urteko txikiak ere bai, eta inork ez du eskatu etxera eroateko lo egitera. Gustura egon diren seinalea da hori; hortaz, arrakasta handia izan du ekintzak", esan digu Gureleko kide Aitziber Gorosabelek. Eta gainerako ekintzetan ere ez dute gurasoek egon beharrik izan zaintzaile lanik egiten.

Oraindik ez dituzte bukatu udalekuok, baina antolatzaileak pozik daude egindako ekintzekin eta umeen aldetik izandako erantzunarekin, "beti egin daiteke gehiago" gaineratu arren.

TXIRRINDULARITZA > EKITALDIK

Mendi zeharkaldia eta urteurrena, txirrindulariek

Mendi bizikleta zeharkaldia egingo dute iraileko Andramaixa jaietan, eta Dorletako Amaren urteurrena, urrian

OSPAKIZUNA URRIAREN 26AN

Urriaren 26an, domeka, ospatuko dute Dorletako Amaren irudia Arlaban gainean jarri zuteneko 50. urteurrena. Ez txirrindulari batzordeak, ez Udalak ez dute erabaki zer egin egun horretan, baina Bizkaiko abade batek urteurren horren gaineko interesa agertu du, eta zerbait egitekotan dira.

Txirrindulari batzordeak oraindik ez du inolako erabakirik hartu. Hainbat ideia bota dituzte, tartean, garai baten egiten zen "adiskidetasunaren suzia" izeneko martxa egitea; hau da, zikloturistei deialdia egin eta Arrasatetik Gatzagarainoko martxa antolatu. Badakite, baina, horrek antolakuntza lan handia eskatuko diela, eta taldean oso lagun gutxi geratzen dira. Hortaz, erabakitzeko dago guztia, eta gurago dute Andramari jaiak pasatu artean itxaron.

Udalak, osterara, adierazi du gertu dagoela ekitaldiotan laguntzeko.

M.A. > LEINTZ GATZAGA


Dorletako Ama txirrindulari batzordea buru-belarri dabil txirrindularitza ekitaldiak antolatzen. Uztailearen 6an jokatutako 30. Dorletako Ama lasterketa izan zen lehenengoa, eta oso pozik daude egondako parte-hartzearekin: "Inoiz baino txirrindulari gehiago etorri ziren, 119, eta inolako ezusteko barik burutu zen itzulia".

Andramari jaietan, irailearen 7an, egingo den mendi bizikleta zeharkaldia gertatzen dabilta orain. Eta hori pasatutakoan, urrian egingo den Dorletako Amaren urteurren ekitaldian zer egin erabakiko dute.



Mendi zeharkaldiko txirrindulariak Gatzagako plazan.

GOIENKARIA



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

XABIER URTZELAI > BERGARA

Beñat Labaienen (Bergara, 1987) adineko gazte gehienak oporretan daude. Labaien, baina, Real Madril taldeak antolatzen duen futbol campus batean harrapatu dugu, nahiz eta urtean zehar Atletico Madril taldearendako lan egiten duen, behe-kategoriak entrenatuz. Lan hori SHEE (IBEF) kirol ikasketekin tartekatzen du, eta entrena-tzaile tituluak ateratzeko ikasten dabil -guztira hiru titulu dira-.

Ze sasoi den ikusita, denboraldi-aurrea prestatzen egongo zinela uste genuen, baina ez da horrela.

Ez, ez. Atletico Madrilgo talde nagusia Mexikon dago, baina infantil mailako jokalariekin irailan hasiko gara lanean. Orain, Real Madril taldeak antolatzen duen campus batean nago, Las Rozas-ko Futbol Hirian.

Eta zer egiten duzue hor?

Leku askotatik etorritako gaztetxoak daude bertan, eta goizetan entrenatu eta arratsaldeetan partiduak izaten dituzte. Baina dena ez da futbola, gazteendako aisialdiko ekintzak ere egiten ditugu: uretako parkera, Bernabeura bisitak, jolasparkeetara...

Jokalaria ohi ezagunen seme asko dabilta hemen; esaterako, Mostovoioren semea taldean daukat.

Eta, urtean zehar Atletico Madrilgo behe-kategoriak ibilita eta egunotan Real Madrilgo campusean... bada-go alderik?

Batetik, Atletico Madril taldeko gazteekin errazagoa da lan egitea, hura selekzio bat delako, hau da, jokalaria guztiek maila oso ona dute. Eta alderantziz, campus hauetan futboleko horren ondo egiten ez duten gaztetxoak ere izaten dira.

Bestetik, kirol instalazioei dagokienez, talde zuriarenak ikusgarriak dira. Diotenez, 2010erako izango ditu gertu Atletico Madril taldeko instalazio berriak, Alcorconen, eta diotenez, oso ondo egongo dira.

Ez zen izango erraza horrela-ko talde batean sartzea.

Klubera zelan sartu nintzen kontatzeko bi urte egin behar ditut atzera. Milinco Pantic-ek -sasoi batean talde zuri-gorriko jokalaria izan zena- talde horretako fundazioarendako egiten du lan, eta harekin entrenatzera joaten nintzen zapatuetan. Eta, urte amaieran proposatu ziguten talde bat entrenatzeko aukera geneukala. Hasi batean ez nion garrantzi handirik eman, baina hilabete gutxira Quique Estebanek -Tenerife, Bartzelona eta beste hainbat taldeko jokalaria, egun Athleticoko futbol eskolan- deitu zidan, eta taldean sartzeko aukera eman.

Eta zer moduz?

Aurtengoa sekulako esperientzia izan da, ikaragarria. Alebin mailako jokalariekin nabil, eta geure ardura futbol jokalaria moduan eta neurri berean gazte horiek pertsona moduan hezte

Beñat Labaien > Atletico Madril futbol taldeko behe-kategoriako entrenatzailea

"Gazteak jokalaria eta pertsona moduan hezte da nire lana"



Beñat Labaienek hiru urte daramatza Madrilan, SHEE ikasketak egiten eta Atletico Madril taldean lanean.

AMAIA LABAIEN

"Nire ametsa Lehenengo Mailako entrenatzaile izatea da. Ez da ezinezkoa, baina bai oso zaila, beti jende bera dabil-eta bueltaka"

da. Urte oso ederra izan da, asko ikasi dudalako, eta urte amaieran gazteak etorri zitzaizkidalako eskerrak ematera. Berez, gurasoekin harremanik ez izateko esaten digu klubak, baina ezinezkoa izan da, oso guraso onak izan ditugulako. Eta hori ez da askotan gertatzen, guraso batzuek semeek baino gogo handiagoa izaten dutelako partiduak irabazteko. Baina nire ustez umee-kin lan ondo egiten duzula ikusten badute, gurasoek zure lana

"Ikasketak amaitu eta gero zaila izango da Bergarara itzultzea, futbol munduan aurrera egiteko hemen aukera handiagoak ditudalako"

asko errespetatzen dute; bestela, gainera etortzen dira segituan.

Horrenbestez, talde zuri-gorriak harrobi ona duela esan genezake.

Bai, bai, Amorrortu oso lan ona egiten dabil. Kategoria bakoitzeko lehenengo bi talde onenekin egiten du hark lan, eta guk gainontzekoekin jarduten dugu. Real Madril talde ere guk beste talde dituzte behe-kategoriak, baina baita Getafek ere. Alde horretara

"Klubak esaten digu jokalarien gurasoekin harremanik ez izateko, baina aurten ezinezkoa izan da, oso guraso-talde ona izan dugulako"

atik, klubean dagoeneko hasi dira emaitzak ikusten: Espainiako selekzioan, 19 urtez azpikoetan dabilta hiru jokalaria Atletico Madrilgoak dira, eta 17 urtez azpiko-koen selekzioan ere beste bizpahiru izan dira.

Amorrortu aipatu duzu, Realeko entrenatzaile ohia. Jende eza-gun asko ezagutuko zenuen hor.

Egia da Amorrorturekin ez dudala tratatu handirik, ez dudalako harekin lan egiten, baina oso

erreferentzia onak dauzkat. Nik Estabaranzekin egiten dut lan; baina bai, lehen telebistan ikusten nuen jendearekin egun harreman handia dut, eta hori ere berezia izan da, jende mordoa ezagutu dudalako.

Behe-kategoriak zabilta lanean; ametsik?

Nire ametsa Lehenengo Mailan entrenatzea da. Ez dut esango hori ezinezkoa denik, baina bai oso-oso zaila dela, beti dabilelako hor jende bera bueltaka. Dena dela, iraileko lehenengo entrenamendu saioa ondo egitea da orain buruan daukadana.

Eta ikasketak amaitutakoan, Bergarara itzultzeko asmorik?

Ez dakit, baina nahiko zaila izango da. Futbol munduan aurrera egin gura badut, erraztasun handiagoak izango ditut hemen Bergaran baino. Besteak beste, hemen jende mordoa ezagutu dudalako.

Atletico Madrilendako lan eginda, gertutik biziko duzu talde hori, baina beste talderik?

Ni Realekoa izan naiz beti.

Eta gustuko jokalaririk?

Realera itzuli berri den Diego Rivasekin harreman oso ona daukat. Baina jokalaria moduan sekulakoa iruditzen zaidana Bojan Krkic da. Orain ezaguna da, baina nik 14 urte zituenean ezagutu nuen, eta bai, oso ona da.



Beñat Labaien, aurten izan dituen alebin mailako jokalariekin.

AMAIA LABAIEN



Joan den urteko lasterketan, Bidelan-Kirolgi, Azpiru eta Cafes Baque taldeko ordezkariak, aldapa gora.

GOIENKARIA

TXIRRINDULARITZA > ELGETAKO 24. MENDIKO SARIA, EUSKALDUN TROFEOA

Mandaluniz: "Asentziorako maldek egingo dute entresaka, baina Elgetak erabakiko du"

Domeka goizean egingo dute Elgetan Euskaldun Trofeorako balia garria den Mendiko Saria; Azpiru Ugarteko ziklistak dira favoritoak

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Amateur mailako ziklisten denboraldia aurrera doa, Euskaldun Trofeoako 19. proba egingo dute eta domekan Elgetan (10:00). Orain arteko probetan agerian geratu da Azpiru-Ugarte taldea gainontzekoen gainetik dagoela; Bidelan-Kirolgi eta Cafes Baque datoz atzetik, baina alde handia du Azpiruk.

Azken asteotako lasterketei begiratua eginez gero, Gatzagan erakustaldia egin zuten Azpirukoek, eta joan den astean Murgian egindako lasterketan ere

talde horretakoak izan ziren lehenengo hiru sailkatuak -Fabricio Ferrari da sailkapeneko liderra. Horrenbestez, ikusteko dago domekan Elgetako maldetan nagusitasun hori erakusten duten.

ERRELEBUA BEHAR DUTE
Elgetako Mendiko Saria antolatzen Emilio Mandaluniz ibili da lanean. Aurten kolokan egon da proba hori, antolatzaileak nekata daudelako eta errelebu eske dabilzalako. Zuzendaritzara hiru lagun batu direla adierazi

digun arren, jende gehiago behar dute: "Zuzendaritza berri egin beharko litzateke, nik 24 urte daramatzat-eta. Gainera, gaur egun dena informatizatuta daukagu, eta horrek asko errazten du dena". Hala, zuzendaritzan zazpi lagun badabilta ere, domekan 40 lagun inguru ibiliko dira bidegurutzeak zaintzen, hesiak jartzen...

Probari dagokionez, Mandalunizek hainbat pista eman ditu: "Elorriotik Asentziorako maldek egingo dute lehenengo entresaka (93. kilometroa), baina ez dut uste lasterketa hor erabakiko denik. Asentziotik Epele aldera egingo dute, eta handik Bergarara. Indartsuen dauden txirrindulariek taldetxo osatuko dute hor, eta esango nuke Epelen behe batera egingo dutela guztiek, Bergararaino. Hor bai, behin Bergarara iritsitakoan, handik Elgetarako igoeran (13:00ak inguruan) ikusiko da zein dagoen indartsuen".



Tourra kanpotik

Markel Irizar > Ziklista

Tourrak aurrera jarraitzen du, eta oraindik ez dago argi nor irabaziko duen, baina dagoeneko bada-kigu zeintzuk ez diren aurrean ibiliko.

Gure taldeari dagokionez, ondo dakigu Tourra irabazteko gaitasunik ez daukagula, baina taldekideak aurrean ibiltzeko asmoz joan dira hara. Iaz oso txapelketa polita egin genuen, eta horregatik-edo, aurten taldea puztuta joan da Tourrera. Baina, gauzak dezente okertu zaizkio Euskaltel-Euskadiri. Han dauden taldekideen lekuan jarrita badakit gaizki pasatzen ibiliko direla, esfortzu handia egin eta emaitzarik ez datorrela ikustea gogorra delako.

Alde horretatik, taldekide guztiei bidali gura diezkie animuak, baina bereziki Haimar dut gogoan. Egunotan batere gustatu ez zaizkidan komentarioak entzun ditut Zubeldiaren gainean, eta amorratu egin nau horrek, ez delako batere justua. Gertutik jarraitu dut Tourrera begira izan duen prestakuntza, zenbateraino sakrifikatu den eta ondo dakit zelako gorputzaldian zegoen Tourra hasi aurretik; oso-oso indartsu zegoen.

Baina proba aurretik gaixorik egin zituen egun batzuk, eta bistan dago horrek pikutara bidali duela prestakuntza dena. Berak ez du horren gainean berba egin gura izan, isilik egon da, askok aitzakia moduan hartuko zuketelako. Kirol lorpenak alde batera utzita, inork ezin du ezbaian jarri Zubeldiaren profesionaltasuna.

Lasterketara itzulita, Menchovet eta Cadel Evansek besteen gainetik jarraitzen dute. Valverdeke behe batera egin du, aurreikustekoa zen hori.

> FUTBOLA

Elgetak ez du datorren denboraldian futbol talderik izango

Azken hilabeteotako zurrumurrua baieztatu egin da, Elgeta futbol talderik gabe geratuko da datorren denboraldiari begira. Elgetako futbol taldeak ahaleginak egin ditu lehian jarraitzeko moduko taldea osatzeko, baina, jokalaririk falta dela-eta, bertan behe batera utzi behar izan dute kirol egitasmoa. Hori horrela, orain dela bi urte sortutako klubak ez du bigarren erre-gionalean ordezkariarik izango.

Astelehenean, berriz, batzarra izango dute klubarekin jarraitu edo ez erabakitzeko. Izan ere, klubak jarraituta errazagoa izango da etorkizunean talderen bat sortzea.




AINHOA OSA

Aspin eta Hautam mendateetan ibarretik joandako laranjak nagusi

Urtero moduan, Oñatiko ziklismo peñek antolatuta ibarretik bi *autobuskada* izan dira Pirinioetako etapak bertatik bertara jarraitzen. Astelehen gauean itzuli ziren etxera, eta han ederto ibili badira ere, bada-kigu itzulera gogorra izan dutela. Debagoiendar asko izan dira Pirinioetan, baina txantxikuarren espedizioan 85 lagun joan ziren, gehienak ibarrekoak, baina baita Azpeitia, Orio eta beste herri batzuetako zaleak ere. Zapatu gauean euria egin zien, baina hortik aurrera, bikain. Gau partean, ohera joateko presa barik, eta eguneg zale laranjak txirrindulariak animatzen, ezarriak urratu arte.

Debagoieneko GREMIOAK



AROTZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

Bergara
 • Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
 • K-21
 Telleria 19 B02-B03
 T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
 www.goiena.net/blogak/azkarate

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta
 • Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
 • Instalazio elektrikoak
 • Atezain automatikoak
 • Antena kolektiboak
 Otolara 14
 T: 943 79 16 10
 F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate
 • Instalazio elektrikoak
 • Antena kolektiboak
 Zerkaosteta 15
 T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
 F: 943 79 68 21

ARETXARGI

Aretxabaleta
 • Instalazio elektrikoak
 Belorrieta 15 behea
 T: 943 532 628 / 645 734 032
 F: 943 532 629
 aretxargi@euskalnet.net

BELLIDO ELEKTRIZITATEA

Oñati
 • Erreformak orokorrean
 • Marka guztietako etxetresna elektronikoen konponketa
 Kale zaharra 60 - 3 erd.
 T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

RELE

Eskoriatza
 • Instalazio elektrikoak
 Santa Ana 12 eta 17
 T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12
 F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate
 Meatzerreka auzoa
 T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
 e.arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza
 • Hormigoizko estruktura eta urbanizazioak
 • Kontratak
 • Enpresen mantentze-lanak
 Intxartxueta 5
 T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
 F: 943 71 55 15

IGELTSEROAK

DE LA TORRE IGELTSEROTZA

Eskoriatza
 • Barruko lanetan espezialitatea
 • Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
 Intxartxueta 7, 2D
 T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27
 Dela-torre@euskalnet.net

ITURGINTZA

ARETXABAleta ITURGINTZA

Aretxabaleta
 • Sukalderako eta bainugelarako altzariak
 Santa Kurtz 24, behea
 T: 943 79 17 53
 F: 943 79 17 53

EGIA ITURGINTZA

Arrasate
 Gipuzkoa etorbidea 39, behea
 T: 943 77 01 85

IMANOL ITURGINTZA

Arrasate
 • Iturgintza
 • Berogailua eta gasa
 • Bainugelak
 Kale Txiki 9 behea
 Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

J.J. IRURE ITURGINTZA

Aretxabaleta
 • Ura
 • Gas
 • Kafekazioa
 Mitarte 15
 T: 943 793 187
 F: 943 793 187

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza
 • Iturgintza eta gasa
 • Berogailuak eta petrolio-produktuak
 • Klimatizazioa
 Aranburuzabala 15
 T: 943 71 47 14 / 606 007 369
 f.oyanguren@ctv.es

TXORROTA

Arrasate
 • Berogailua eta gasa
 • Galdarak aldatzea
 • Obra integralak
 • Zaharberritzeak
 Bolibar doktorea 5, behea C
 Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
 F: 943 77 17 13

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta
 • Instalazioen mantentze-lan guztiak
 • Berokuntza eta gasa
 • Aire girotua eta haizeztatzea
 Basabe industrialdea B-3
 T: 943 77 19 88
 F: 943 79 59 97

VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta
 • Hargintza lanak
 • Bainugelako altzariak
 • Berogailuak
 • Erretanak ipini eta garbitzea
 Santa Kurtz 7, 3. ezk.
 Tel.: 620 178 046

KONPONKETAK

MULTIARREGLOS

Arrasate
 • Konponketak: Altzariak, zoruak, zokaloak, entxufeak...
 • Instalazioak; Geletan antenak, telefonoenkableak...
 • Jartzeak: Koadroak, lanparak gordian...
 • Ahokadurak: Telebistak, bideoak, musika ekipoak...
 Tel: 699 60 97 08

LEIHOAK

ARGI-PLASTIC

Arrasate
 • PVC leihoak
 • Aluminio termikoko leihoak
 • Poliuretanozko leihoak
 Zigarrola 1- 8 pab.
 Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
 F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

ION LEIHOAK

Arrasate
 • Metal arotzgia, PVC eta arotzgia
 Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
 T: 943 79 11 35
 F: 943 77 31 20

YOSU THERMIK

Arrasate
 • Lehiho eta ate isolatzaileak
 • PVC leihoak
 • Aluminio termikoko lehihoak
 • Arotzgi mistoa (aluminio-egurra)
 Kataide poligonoa 4 Pab.
 Tel: 943 77 01 57
 F: 943 77 03 21

LEIHATEK

Arrasate
 • Lehiho eta ate isolatzaileak
 • Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
 • Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
 • Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
 Okendo 1 - behea
 T: 943 79 69 91
 ventanasleihatek@hotmail.com

LOREZAITZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta
 • Barruko zein kanpoko lorezaintza
 • Ureztatze sistemak
 • Lorentzi-euskarriak eta balkonerak
 Basabe poligonoa D-2-1
 Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
 F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate
 • Pintura orokorrean
 • Pareztatzeak
 • Errotulazioa
 Maitena 3-1.
 Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

DAVILA MARGOAK

Aretxabaleta
 • Margoak orokorrean
 San Migel 7, 3d.
 Tel.: 646 22 41 09



> JAIALDIA
Reggaea, euskal flamenkoa eta beste, Pikulitxa Roots jaialdian > 37



> ENPRESA
Internetez saltzen duen IBI delako enpresa sortu dute Arrasaten > 43

> MIREIA BAZ
Mireia Baz gaztetxe kidea, tabernaria eta Txatxilipurdiko begiralea da. Bilbon ikasten dihardu eta, ikasketak amaitu ostean, ez du amarekin etxera itzultzeko asmorik > 42



ARTaso, artea sustatzea helburu duen elkarte berria, jaio da Oñatin

Uztailaren 27an artisau azoka eta birziklatze tailerra eta erakusketa izango dira ikusgai Gandiaga Topagunean; artea sorkuntza fasean ezagutzeko aukera

JOKIN BEREZIARTUA > OÑATI
Arteari begira –arteari so–, eta artea eta kultura sustatzea helburu. Beste elkarte berri bat jaio da Oñatin. Uztailaren 27an aurkeztuko dute euren burua; egun horretarako eskulangintza azoka eta birziklatze tailerra eta erakusketa antolatu dute, eta Gandiaga Topagunean izango da. ARTaso izena hartu dute: Arantzazu inguruan kokatzen den Artaso mendixkatik dator, eta hitz joko batez

baliatu dira euren helburu nagusia –artea bultzatzea, arteari begira egotea, alegia– taldearen ize-nari lotzeko.

EZ DA SORTU BERRI DEN IDEIA
Aspalditik zuten buruan Kepa Elortza, Anjel Mari Milikua, Joxe Ramon Zarketa, Joxean Iza eta Iñaki Jauregialtzok Arantzazu moduko paraje ezin ederragoan artea eta kultura batu eta jendeari erakusteko proiektu bat sor-

tzea. Ideia, gutxienez, orain hamar urte jaio zen, baina Jauregialtzok gogoratzen duenez, "orduaz hozkailuan geratu zen ekimena". Ideia azken urte honetan jarri da martxan: ARTasokoek hurrengo domekan, hilak 27, egi bihurtuko dute euren ametsa.

Iñaki Jauregialtzo elkarteko kideak adierazi duenez, elkarte berri bat sortzeko hasierak "beti dira neketsuak", baina, aldi berean, itxaropentsu agertu da elkar-

teak aurreikusten dituen proiektuek aurrera egin dezaten. Helburua argi utzi du Jauregialtzok: "Gure asmoa artea eta kultura sustatzea da, batez ere arte plastikoak landuz eta erakutsiz".

Hala ere, kultura talde jaioberriko kideak ez dira arte ederretara bakarrik mugatuko. Aurreikusten dituzten hurrengo ekitaldietan beste arte batzuk lantzeko

ARTaso, artea sustatzea helburu duen elkarte berria jaio da Oñatin

(35. orrialdetik dator)

asmoa dute, eta, besteak beste, literatura, musika eta pintura uztartuko dira datozen arte jardunaldietan.

DIRUAK BALDINTZATUTA

Elkarteak aurrera egin dezan artea zaletasun izatea ez da nahikoa, ordea. Dirua ezinbestekoa da. Horren harira, Jauregiartzoren ustez, normala da ARTaso elkarte jaioberria diru faltagatik baldintzatuta izatea. Elkarte askotan gertatzen da, eta are gehiago, elkarte horiek zehazki kultura talde berriak direnean. Izan ere, Jauregiartzok dioenez, "arte eta kultura ez dira errentagarriak". Arantzazun arte esparru ezberdinak uztartuz –artisautza, eskultura, pintura, literatura...– ekimenak antolatzeko helburuz sortu zen ARTaso. Zeregin horretan, Jauregiartzok aditzera eman duenez, "pausoz pauso joan behar dugu, ez dugu presarik".

Hala ere, artezale oñatiarrak gaineratu du aurrekontu handiagoa izatea ondo legokeela, horrela "ekitaldi ponpoxoak punta puntako artistekin" antolatu ahal izateko. Oraingoz, baina, hau da dagoena.

ARTasoren dirulaguntza iturri nagusia, oraingoz, Oñatiko Udala da. Artisau azoka eta birziklatze tailerra antolatu ahal izateko aurrekontuaren erdia Udalak ordaindu du, esaterako. Bestalde, kultura talde berriak Gandiaga Topagunearen laguntza ere eskertu nahi izan du, euren eskura jarritako baliabide guztiengatik.

AURKEZPEN EKITALDIA

Gandiaga Topagunea, beraz, arte jardunaldi berezi baten lekuko izango da uztailaren 27an. Eskulangintza azoka eta birziklatze tailerra ikusteko ordutegia 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:00etara izango da.

Bestalde, goizeko hamaiketan aurkezpen ekitaldia egingo dute. Gandiagaren olerki bat errezitatuz abiatuko da aurkezpena

ESANAK

"Artea sustatu nahi duen lagun talde bat da ARTaso, eta bere sorrera aspalditik datorren ideia baten fruitua da"

"Udako asteburuetan Arantzazura etortzen den jende kopuru handia aprobetxatu nahi dugu ekimenak ezagutzera emateko"

Iñaki Jauregiartzo > ARTasoko kidea



Artisauak buztina nola lantzen duten bertatik bertara ikusteko aukera izango da.

GOIENKARIA

eta bertan, ARTaso elkarte bera eta azokan parte hartuko duten eskulangileak aurkezteko dituzte. Aurkezpenari itxiera emateko Xalbadarren bertso bat aukeratu dute. Jauregiartzok jakinarazi du aurkezpen ekitaldia "xumea" izango dela, "elkarte bera bezala".

ARTISAUTZA, BERTATIK BERTARA

Eskulangintzaren azokan hamar artisau izango dira eta, besteak beste, zeramika, zilarra, pilotak, kutunak, harria eta zapatak izango dira protagonista. Artisauak,

gainera, bertan landuko dituzte euren eskulanak eta, beraz, arteaz bere egoerarik puruenean –sorkuntza fasean alegia– gozatzeo aukera izango dute Gandiaga Topagunera joaten direnek.

ZABORRA ARTE BIHURTZEN

Aldi berean, birziklatze tailerra eta erakusketa ere izango da. Gonbidatu bereziak izango dira Arantzazun: Ines Gereka eta Amaia Zinkunegi, hurrenez hurren Biologian eta Arte Ederretan lizentziadunak diren bi aditu. Gehienontzat zaborra dena

arte bihurtuko dute Gereka eta Zinkunegik. Hala, papera, kartoa, txapak, latak, arropa zaharrak... erabiliko dituzte artelan ezberdinak egiteko, eta gerturatutako aho bete hortz uzteko.

'OTEIZA TOPAGUNEA' PROIEKTUA

ARTaso elkarteak etorkizunean topaketak antolatzen jarraitzeko asmoa du. Irailean, adibidez, olerki emanaldi egitekotan dabilta, Andoni Salamero eta Gerardo Markuleta olerkari famatuekin. Bestalde, Gandiaga Topaguneaz gain, egunen baten posible balitz

Kultur elkarte askotan gertatzen denez, ARTaso ere diruz justu dabil; oraingoz Oñatiko Udala izan da dirulaguntza eman duen bakarra

Aurtengo ekitaldi guztien ostean, ARTasokoak elkartearen laguntzaileekin –Oñatiko Udala eta Gandiaga Topagunea– bilduko dira balorazioa egiteko

Oteiza Topagunea delako proiektua aipatu du Jauregiartzok. "Epe luzerako helburu bat da guretzat, betidanik pentsatu izan dugulako gure ekimenak Arantzazuko aparkaleku azpian dauden kubo handi horietan antolatzea", jakinarazi du.

GONBIDAPEN IREKIA

ARTaso elkarteak uztailaren 27ko azoka eta erakusketara joateko gonbita edonori egiten dio. Beraz, haur, gazte eta gaiaren gainean interesa duen edonork hitzordua du uztailaren 27an Gandiaga Topagunean. Gainera, zeresana eman dezakeen talde berri baten jaiotzaren lekuko izango da joaten dena.



Gehienontzat zaborra dena arte egin daitekeela frogatuko dute birziklatze tailerlean. Papera -irudian- izango da lehengaietako bat.

GOIENKARIA

LITERATURA > BERRARGITALPENEA

Aldekoaren 'Euskal literaturaren historia', poltsikoan

Erein argitaletxeak Poltsiko.e saila aurkeztu du bildumako azken bi lanen berri emanez; idazle oñatiarrarena da horietako bat

I.A. > OÑATI

Erein argitaletxeak Poltsiko.e saila aurkeztu du eta horretarako bilduman sartu berri diren bi lan eman ditu ezagutzera: Bernardo Atxagaren *Ziutateaz* eta Iñaki Aldekoa autore oñatiarraren *Euskal literaturaren historia*, poltsikorako formatuan berrargitaratu dituztenak.

Poltsiko.e sailaren helburuetariko bat da liburuei bigarren aldiz bizia ematea. Izan ere, euskarazko liburuei gehienetan bakarra ematen zaie eta beste hizkuntzetan hainbat argitaraldi egiten direla esan du Iñaki Aldekoa egile eta editoreak.

MERKE ETA EROANGARRI

Azken bi lan horiekin hamabi dira Poltsiko.e saileko liburuek eta Ereinek asmoa du gehiago

kaleratzeko. Liburuaren aukeraketa egiterakoan klasikoak aukeratzeko dituzte. Horretaz gain, saiakerak kaleratzea ere egoki iritzi diote, saltzen direlako, editorearen esanetan. Bildumak harrera ona izan duela jakinarazi du.

Aldekoaren liburuaren lehen edizioa 2004an argitaratu zuten gaztelaniaz eta Jon Muñoz arduratu da euskaratzeaz. Adituen esanetan, euskal literaturaren historiaren alorrean orain arte ez da hau bezain lan osaturik euskaraz argitaratu. Aurreko guztietatik harago joan da eta lan benetan literarioak hartu ditu aintzat.

Poltsikoko formatua izanik eramangarriagoak dira eta baita merkeagoak ere. Aldekoarena 11 euroan eskura daiteke.

JAIK > ANTZUOLAKO JAIK

Musika, dantza eta jai giroa Antzuolan aste bukaeran

Gaueko autobus zerbitzua ipini dute jaietarako bidaiak segurtasunez egiteko

I.A. > ANTZUOLA

Eguenetik jai giroan sartuta daude antzuolarrak. Aste bukaeran ere ekitaldi ugari egongo da. Gaur, egubakoitza, gauean, Orots taldearekin dantzaldia izango da plazan eta Zurrategin kontzertua Klakson, Niet Rocken eta Malo taldeekin.

Zapatuan urteroko ohiturei jarraituz, Bergarako Udal Musika Bandaren bisita izango dute antzuolarrek eguerdi partean. Arratsalderako, Mairuaren Alardea dago aukeran, aurten ordu erdi atzeratu dute eta Salvador Peña mairuari omenaldia egingo diote azken urtea duela. Dantza saioa ere egingo du Oinarinek Alarde ostean.

Gauean, herri afariaren ondoren, dantza zaleendako Coctel Latino izango da plazan eta Zurrategin Sospechosos, Never Surrender eta Ipar Haizea taldeen kontzertua. Gero DJ Bullek hartuko die lekuko eta goizaldera arte musika ipintzen ibiliko da.

Domekan, oraindik jaietarako gogoia dutenek izango dute ekitaldi aukerarik. Umeendako zezentxoak eta poniak egongo dira Zurrategin eta Herriko Plazan nagusiendako Jokin Sorozabal eta Amaia Agirre bertsoari saioa.

Arratsaldean, jaiak modu egokian amaitzeko sardina jana eta sagardoa egongo dira plazan eta jasotako dirua Trikiti Egunerako izango da. Iluntzean Larrain dantza eta Joselu Anaiekin dantzaldia egingo dituzte herritarrek plazan. Gauerdiaren azken suziriak botako dituzte jaiak agurtzeko

AUTOBUS ZERBITZUA

Bestalde, Antzuolako jaietan segurtasunez ibiltzeko gaueko autobus zerbitzua ipini dute Bergara eta Zumarraga artean. Egubakoitzean, Bergaratik ordubete behin aterako dira Antzuolara autobusak 22:30ak eta 05:30ak bitartean. Bueltarakoak ere ordubete behin izango dira 23:15etik 06:15era bitartean Antzuolan. Zapatuan, Bergaran, 21.30etik 23:30era ordubete behin, eta 00:00etik 06:00etara ordu erdian behin; Antzuolan, Bergarara joateko 22:15ean eta 23:15ean eta 00:15etik 06:15era ordu erdian behin.



Doinu ezberdinak entzuteko aukera eskaintzen digu aurtengo kartelak.

GOIENKARIA

JAIALDIA > PIKULITXA ROOT'S

Musika eta dantza bihar Gorlako kantuan

19:00etan hasiko da jai pailazoekin, eta flamenko, sabel dantza eta reggae musika izango dira

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Bergara eta Azkoitia artean dagoen Gorlako kantuan inguruan izango da bihar, zapatua, Pikulitxa Root's jaialdia. 19:00etan hasiko da antolatzaileek dantza eta sentimendu jai moduan aurkeztu dutena.

Nafarroako Bihotzez taldeko bi pailazoek umeen eta nagusien gozagarri diren akrobazia ariek eta trukuak egingo dituzte jaialdiaren hasieran.

Ondoren, Armiarma taldeak Euskal Herrian egindako flamenko musika zuzenean jo eta dantzatu du. Kitarra, ahotsa, kaxa eta dantza uztartuko ditu Askoa Musikiariak zuzendutako taldeak. "Aurreko urteetan ere izan da Askoa gure artean eta sekulako giroa eta jai sortzen du onenen pare flamenkoa dantzatzuz, bere garrarekin", esan digu Iñaki Gabilondo antolatzaileak.

SABEL DANTZA

Afaldu bitartean Sopelako Espacio Abierto elkartetik sortutako A'Marhaba ekialdeko dantza taldeak mahaian artean sabel dantza ikuskizuna egingo du. Horretarako uztartuko dituzte dantzarekin antzerkia, eszenaratzea...

Gainera, Kantinatik jakinarazi digute asteburu bateko sabel dantza eta perkusio ikastaroa antolatzeke asmoa dutela talde honekin aurrerago eta jendea animatu nahi dutela ikastaro horretan parte hartzera.

GAUEAN REGGAE MUSIKA

Afalostean, Reggae musikaren txanda izango da. Ras Reguilon & Riddim Family Band bizkaitarrek eta Frantziatik eta Iparraldetik etorritako Dingwash taldeak jardungo dute.

David Reguilon da lehenengo taldearen burua eta aurrez ere egona da Gorlako kantuan beste talde batekin. Orain, reggae musikaren baitan hainbat proiektu ditu esku artean eta beharren arabera moldatzen ditu taldeak hainbat musikarirekin elkarlanean. Aurtengo jaialdira banda handi batekin etorriko da reggae doinuak eskaintzera.

Bigarren taldea Euskal Herriko eta Frantziako sei musikariek osatzen dute eta dub, jazz bai, roots eta reggae doinuak nahastu dituzte. Euren hirugarren laneko doinuak eskainiko dituzte besteak beste. Antolatzaileek diotenez, "Iparraldeko kutsu berezia nabari zaio euren musikari".

Jai kanpoan izango dela kontuan hartuta antolatzaileek jakinarazi dute zelaian lo egiteko aukera egongo dela eta nahi duen kanpin denda ere eraman dezakeela. "Urtean-urtean gero eta jende gehiago geratzen da lotan eta aurten ere hala izango dela uste dugu".

Kantinakoek azpimarratu nahi dute ez dela helburu jakinekin egiten jaialdi hau. "Bosgarren urtea da jaialdia egiten duguna eta aurrekoak ondo joan dira, beti ere eguraldiaren arabera, noski. Gorlan zer bait berezia egitea merezi zuela pentsatuta hasi ginen eta horrela sortu genuen jaialdia lagun arteko giroan, toki txiki batean eta sustraidun doinuekin eta dantzekin. Joaten den jendea gustura egoten dela uste dugu eta hori da espero duguna bertaratzen den jende guztiak ondo pasatzea".

hildakoak

- **Feliciana Palacios Navazo.** Bergaran, hilaren 11n. 79 urte.
- **Rufina Igarza Loidi.** Bergaran, hilaren 11n. 76 urte.
- **María Jesus Montes Mogollon.** Arrasaten, hilaren 12an. 76 urte.
- **Cesareo Ruiz de Zarate Urbina.** Arrasaten, hilaren 13an. 90 urte.
- **Antonio Ezkurra Larrañaga.** Arrasaten, hilaren 14an. 87 urte.
- **Regina Urrutia Zelaia.** Oñatin, hilaren 16an. 85 urte.
- **Jose Francisco Arantzabal Arantzabal.** Bergaran, hilaren 16an. 100 urte.
- **Antonio Aguilera Martin.** Eskoriatzan, hilaren 16an. 78 urte.
- **Raimundo Martin Villanueva.** Arrasaten, hilaren 17an. 73 urte.



Eva Louite donostiarra eta **Iban Blazquez** arrasatearra bihar, zapatua, ezkonduko dira Donostian. Ondoren, AEBetara joango dira eztei-bidaian. Zorionak eta oso ondo pasa, familiakoen partetik!



Oxel Apraiz eta **Nuria Davila** zapatuan, uztailaren 19an, ezkonduko dira Musakolako San Isidro elizan 12:30ean. Bazkaria Itziaroko Salegi jatetxean egingo dute eta bidaian India, Nepal eta Maldivas ezagutuko dituzte. Familiakoen eta lagunen partetik, zorionak!



Arkaitz oñatiarra eta **Eli** aretxabaletarra bihar, uztailak 19, ezkonduko dira Arantzazun. Ondoren, Zelai Zabal jatetxean egingo dute bazkaria. Zorionak, bikote, familiakoen eta lagunen partetik! Ondo pasa bihar eta zoriontsuak izan.



Josu Aranguren eta **Rakel Velasco** antzuolarrak datorren uztailaren 26an, zapatua, ezkonduko dira Arantzazuko santutegian. Elizkizuna 13:00etan izango da. Ezkonbidaia AEBetara egingo du bikoteak. Zorionak, lagun guztien partetik!



Arantxa Liberry eta **Francisco Gonzalo** oñatiarrak orain dela 25 urte ezkondu ziren, 1983ko uztailaren 23an. Zilarrezko ezteiak datorren hilaren 26an, zapatua, ospatuko dituzte familiarekin. Zorionak familiaren partetik!

ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zatoz ordezkari batara, eguazten eguerdia baino lehen:

Arrasate

Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.

Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

Elgeta

Mariasun janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.

Antzuola:

Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 100 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **120** euro.

Goienkaria: astero, 50.000 irakurle.

1. URTEURRENA

Paula Beitia Bidegain

Lehen urteurreneko meza zapatuan, uztailaren 19an, 19:00etan Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokan.

*Goian bego
Jadanik ezin sinetsi urtebete pasa dela zu joan zinetik,
baina denborak aurrera egin arren
ez zara inoiz joango gure oroimenetik.*



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

1. URTEURRENA

Filomena Goitia Orueta

Eugenio Goitiaren alarguna

Lehen urteurreneko meza zapatuan, uztailaren 19an, 19:00etan Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokan.

*Goian bego
Beti izango zaitugu gure bihotzean*



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

1. URTEURRENA

Jaime M^a Aguirre Maiztegui

M^a Sol Sansinenea Madinazkoitiaren alarguna

Lehen urteurreneko meza larunbatean, uztailaren 19an 19:00tan

Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Benita Baquedano Alberdi

Bergaran hil zen 2008ko uztailaren 5ean, 91 urte zituela

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2008ko uztailaren 18n.

ESKER ONA

Rufina Igarza Loidi

Gasteizen hil zen 2008ko uztailaren 11n, 76 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2008ko uztailaren 18an.

ESKER ONA

Cesareo Ruiz de Zarate Urbina

Juana Berrio-Otxoaren alarguna

Arrasaten hil zen 2008ko uztailaren 13an, 90 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2008ko uztailaren 18an.




bila-bila 7



hitz gezidunak

| | | | | | | |
|---------------------|------------------|----------------------|-------------------------|-----------------|--|--|
| Berriketa | | Pitzadurak | | Deiturak | | |
| * Irudiko hiriburua | | Emakume izena | | Gaixo | | |
| Handi | | Gustuko | | | | |
| Era irmoan | Behar duen unean | | | Bokala | | |
| Harriak | Rutenioa | | | Iodoa | | |
| Muga-zaindari | | | | | | |
| Begira | | | | | | |
| Oxigenoa | | 1 eta 50 | | Bokala | | |
| Koparen erdian | | Ogi, hitz elkarketan | | Bizkaiko herria | | |
| Fruitu mota | | | Korrikaren antolatzaile | | | |
| Kontratu bermatzile | | | Bokala | | | |

soluzioak



Jeroglifikoak: Elena.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 3 | 2 | 7 | 9 | 5 | 4 | 8 | 1 |
| 7 | 5 | 9 | 1 | 4 | 8 | 2 | 3 | 6 |
| 8 | 1 | 4 | 3 | 6 | 2 | 7 | 9 | 5 |
| 5 | 9 | 7 | 4 | 1 | 6 | 3 | 2 | 8 |
| 1 | 8 | 3 | 5 | 2 | 7 | 6 | 4 | 9 |
| 2 | 4 | 6 | 9 | 8 | 3 | 1 | 5 | 7 |
| 4 | 2 | 1 | 6 | 5 | 9 | 8 | 7 | 3 |
| 3 | 6 | 5 | 8 | 7 | 4 | 9 | 1 | 2 |
| 9 | 7 | 8 | 2 | 3 | 1 | 5 | 6 | 4 |


| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | K | E | T | O | P | I | H |
| K | A | E | K | O | K | O | K |
| A | L | I | L | O | S | O | S |
| N | A | Z | A | G | U | M | |
| E | K | A | K | A | R | O | A |
| Z | A | R | A | I | G | A | I |
| I | L | A | R | I | L | A | R |
| B | A | G | R | E | Z | A | G |
| A | A | K | | | | | |

sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 9 | | 8 | 2 | 3 | 1 | 5 | | |
| | 6 | | | | | | | |
| 2 | | | 9 | | 3 | | | 7 |
| 1 | | | | | | | | 9 |
| 5 | | | 4 | | 6 | | | 8 |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | 2 | 3 |
| | | 2 | 7 | 9 | 5 | 4 | | 1 |

hieroglifoa

Emakumezkoen izena.



hizki salda

Debagoienako 5 mendien izenak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| M | A | K | I | N | O | T | X | A |
| I | U | R | R | E | T | F | U | N |
| J | A | R | O | R | A | N | I | D |
| A | G | T | U | D | J | R | B | A |
| R | E | T | X | G | K | O | F | R |
| I | S | P | A | T | A | R | I | T |
| N | U | N | B | I | R | I | M | O |
| D | O | N | O | J | A | K | N | T |
| O | I | X | T | A | L | A | D | U |

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|--|--|--|---|
| U | D | A | L | A | X | | | | O |
| N | | | | | | | | | D |
| O | M | I | R | | | | | | N |
| T | | | | | | | | | I |
| R | | | | | | | | | R |
| A | | | | | | | | | A |
| V | | | | | | | | | A |
| D | | | | | | | | | J |
| N | | | | | | | | | |
| A | | | | | | | | | |

bono fotoa

1983an Elgetako herriak irudi hau eskaini zion Martin Elortza (1899-1966) Moyobambako gotzai elgetarrari. Non izan zen gotzain, Argentinan, Txilen ala Perun?

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkorobereibar



50 euroko erosketa-txartela zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileen artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Golenako edozein egoitzara

BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
Bergarako Rosita Uribarrenendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: **Azentzio.**



Foto Depilazioa



LIRAIN
ESTETIKA ZENTRUA

Bixente Ferrer 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 52 17

**Abuztuan zabalik
egongo da**

**Azkenik bukatu da
ilearen arazoa**

250 € saioa

Hanka osoak + izterrondoak

180 € saioa

Bizkarra

180 € saioa

Bularra + sabela

100 € saioa

Izterrondoak + besapeak

10. urteurreneko eskaintza berezia
4 saioko bonoa erosteagatik, saio bat doan!

Eskaintza baliagarria 2008ko uztailaren 31 arte

www.danbaka.com

DANBAKA))))

III. MUSIKA LEHIAKETA
DEBABARRENA DEBAGOIENA DURANGALDEA

**PARTE
HARTU
NAHI?**

Debagoiena, Debabarrena edo Durangaldekoa bazara eta taldean zein bakarlari gisa bazabiltza, **Danbaka Musika Lehiaketa** zain daukazu. Lehiaketako talde onenak disko bat grabatu eta kaleratuko du. Debagoieneko talde onenak ere sari bera eskuratuko du.

Oinarriak eta informazio gehiago:
www.danbaka.com.

irailak **19** izena emateko azken eguna

Mireia Baz > Gaztetzeko kidea eta ikaslea

"Orain arte egin ez den kontzertu handi bat egiteko asmoa dugu, Arrasaten"

Azkar bizi da Mireia Baz, ez du geldaldi egotea gustuko. Jai-Zale tabernako barran oso gustura badabil ere, gaztetzera da bere bizi eremu naturala. Irailetik eainera, ikasketak direla-eta, Bilbon pasatzen du denbora luzean, eta Bilbon bizitako azken bi urteek oroitzapen eta lagun ahaztezinak eman dizkiote. Ikasketak amaitzean ez da etxera bueltatuko, nahiz eta amarekin gustura bizi.

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Eguaztenean heldu zen Mireia Baz (Arrasate, 1986) Arratetik. Txatxilipurdiko begiralea da eta dagoeneko lau urte daramatza haurrekin hara eta hona. Ingeniaritza Kimikoa ikasten arituda orain arte, baina utzi egingo du, eta gaingidutako irakasgaiak baliozkotuz, Ingeniaritza Teknikoa egingo du orain. Beste bi urte Bilbon eta kito, hori da asmoa.

Argi duzu amaren etxera ez zarela bueltatuko. Zergatik?

Lau urte daramatzat kanpogan: lehenengo biak Leioan eta hurrengoak Bilbon. Urte hauetan, jende berri asko ezagutzeaz gain, asko ezagutu dut nire burua. Gainera, nire kabuz bizitzeak eman didan askatasuna galtzea oso gogorra izango litzateke niretzat, eta ez dut esperientzia hori bizi nahi. Hala ere, ezin dut ukatu amarekin oso ondo bizi naizela.

Ikasle bizitzak emandakotik, zer nabarmenduko zenuke?

Ezagututako jende berria, eta lehenagotik ezagutzen nituenak askoz hobeto ezagutzeko aukera. Bilboko Iturribide kaleko etxe-kideekin oso harreman ona izan nuen eta oraindik harreman ona daukat. Bai etxe-kideekin eta baita etxetik pasatzen zen jende guztiarekin ere.

Ikasketak aldatzekotan zaudete. Zer dela-eta hartu duzu erabaki hori?

Ingeniaritza Kimikoa luze egiten ari zait, oso luze. Oso zaila ikusten dut niretzat. Gainera, lehen urtetik Bolonia hezkuntza sistema aplikatzen hasi ziren gurekin...


Gaingidututa ditudan irakasgaiak baliozkotuz Ingeniaritza Teknikoa ateratzen saiatuko naiz. Ea bi urtean titulua eskuratu eta haurrekin zerikusia duen zerbaitegiten dudana, umek asko gustatzen zaizkit-eta.

Haurrekin gustura zaudete, beraz. Noiztik zabilte Txatxilipurdin begirale?

Txatxilipurdin, guztira, lau urte daramatzat. Udako begirale gisa nire bigarren urtea da, baina ikasturtean zehar ere aritu izan naiz tailerrak eta bestelako ekintzak egiten. Etorkizunean ere Txatxilipurdin jarraitzeko asmoa daukat, oso gustura nabil-eta.

Gaztetzekidea ere bazara. Nola hasi zinen AGAKOn?

Orain hiru urte sartu nintzen gaztetzeko biltzarrean. Ez



GOIENKARIA

PERTSONALA

Herria: Arrasate. **Adina:** 21 urte. **Ikasketak:** Ingeniaritza Kimikoa. **Zaletasunak:** Musika, haurrak eta sukaldaritza. **Gorrotatzen duzun zer edo zer?** Gezurra. **Maite duzun zer edo zer?** Lagunak **Film bat:** *Noviembre*. **Liburu bat:** *Pijama marradunaz jantzitako muti-*

koa, John Boynerena. **Musika talde bat:** Dropkick Murphys. **Parrandarako leku bat:** Arrasateko gaztetzera. **Hiri bat:** Bilbo. **Sukaldean zure espezialitatea:** Gazta tarta. **Ahaztuko ez duzun bizitzako garaia:** Bilboko Iturribide kaleko 17.ean bizitakoa.

nintzen zuzenean sartu, gaztetzera antolatutako Sardina Bakalau antzerki tailerrean hartu nuen parte. Hala, AGAKOko jendea ezagutu nuen eta giro onak eta jende beharrak bultzatuta sartu nintzen biltzarrean.

Sartu zineneko eta egungo gaztetzera bera da? Igarri duzu aldaketarik?

Baietz esango nuke. Gure aurretik izan zirenek ere esan izan digute; gaztetzera herriarekin lehen baino hartu-eman handiagoa dauka. Gazte biltzarretara gero eta jende gehiago agertzen da, gazte belaunaldi berriak. Horretan bai igarri dut aldaketa, sartu nintzenetik gazte berri asko etorri dira-eta gaztetzera.

Aldaketa onerako izan dela esan genezake orduan. Baina oraindik zer dago hobetzeko?

Asko dago hobetzeko. Oraindik ere herriaren erantzuna, parte-hartzea eta inplikazioa indartu beharra dago. Finean, gazteek gaztetzera euren etxea sentitzea da helburua.

Nolakoa da gaztetzerean egungo egoera?

Gure arteko giroa inoiz baino hobea da eta alde horretatik oso pozik gaude. Hori bai, betiko kontua: diruz oso gaizki gabilta, eta horrek gure jarduna baldintzatzen du.

Baduzue, etorkizunari begira, aipatzeko moduko proiekturik?

Bai, aspalditik gabilta ekitaldi handi bat antolatzeko asmoz. Aurten gure 17. urteurrena ospatzen dihardugu eta *Herriari dei* gure leloari jarraipena eman gura diogu ekimen honekin. Beraz, urteurreneko ospakizuna litzateke, asteburu osoari begira antolatua. Asteburu horretan, adin guztiei zuzendutako denetarikoko ekintzez gain, Arrasaten oraindik egin ez den kontzertu indartsu bat egiteko asmoa dugu.

Jai-Zale tabernan ere bazabiltzate lanean. Gustura zaudete?

Niretzat oso esperientzia polita izaten ari da. Bertan ezagutu dudana jende sekulakoa da, oso jende ona, eta ezberdina. Nire familia moduan kontsideratzen ditut han ezagutu ditudan lagunak.

Tabernako lana bera ez da lan erraza; ordutegi eskasa, lan nekeza, ahots gabe geratzea... baina, aldi berean, oso gustura nago.

TIENDASIBI

Todosoportes.com

» Página de inicio » Soportes Bici » Portabicis Homologados

Nuestras TIENDAS » Portabicis Homologados

► Nuestras TIENDAS

- Soportes Bici
 - Portabicis Homologados
 - Portabicis Trasero
 - Portabicis sobre bola
 - Portabicis para rueda
 - Portabicis Remolque
 - Accesorios

► Cesta de la compra
Su cesta de la compra está vacía.

► Búsqueda de productos

► Identificación
Nombre de usuario

Irudian, IBI enpresa arrasatearrak sortutako www.todosoportes.com webgunea.

GOIENKARIA

TEKNOLOGIA BERRIAK > ENPRESAK

Gertu da Arrasaten Internet bidez saltzen duen enpresa berria

Bi linea eratu ditu dagoeneko IBI enpresa arrasatearrak: bizikleten osagarrietan espezializatuta bata eta produktu ekologiko moduan sailkatuta dagoena bestea

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Teknologia berriez baliatuz lan egiten duen enpresa berria sortu dute Arrasaten: IBI, Intelligent Buying in Internet, hain zuzen.

Aspaldiko ideia bada ere, orain dela bi hilabete sortu zuten lau bazkidek enpresa berri hori. Jon Etxebarria horietako bat da. Azaldu duenez, IBIk hainbat dena birtual du, produktuak Inter-

net bidez saltzeko. Produktu horiek osasunarekin eta ekologiararen lotuta daude, bi lineatan: bizikletarekin lotutakoak eta produktu ekologikotzat jotzen dituztenak. Horren harira, bateria eta pila barik funtzionatzen duen MP4 erreproduzitzailea erosi daiteke, esaterako.

WEBGUNEAK

Hainbat webgune aurki dezake erabiltzaileak. Webgune orokorra www.todosoportes.com da eta han enpresaren eskaintza osoa topa daiteke. Horiez gain, beste hiru webgune baditu: www.portabicis.com, www.ecosoluciones.com eta www.soportesbici.com.

Dendak nola funtzionatzen duen ere azaldu digute. Produktuen publizitatea egiten dute Interneten eta bilatzaileetan. Erabiltzaileak hori ikusita webguneetan sartzen dira eta zer eskain-

tza dagoen begiratzen dute; eta zerbait interesgarria topatuz gero, erosi. Gainera, azpimarratu du prozesu osoan ez dagoela bitartekaririk.

4.000 BISITATIK GORA

IBIkoen esanetan, orain arteko esperientzia "oso positiboa" izan da. "Hasierako aurreikuspenak bete eta gainditu ere egin ditugu. Ikusita dendak izandako harrera, beste proiektu batzuk jarri ditugu martxan", azaldu du. Webguneak funtzionatzen hasi zirenetik, 4.000 bisitatik gora izan ditu.

Erosketa mota horren onurak ere azaldu ditu: webguneetan eskaintzen den informazioa osatua dela dio, ez baita bakarrik produktuaren gainekoa; eta gainera, erositakoa etxean bertan jasotzen dela eta produktuek berme osoa dutela.

teknologia berriak

> INFORMATIKA

Pioneer etxe japoniarrak 400 gigako memoria duen disko optikoa ezagutzera eman berri du

Pioneer etxeak, ibilgailuendako eta etxerako audio dispositiboak egiten aditua denak, 400 gigako memoria duen disko optiko berria sortu du. Kapa bikoitza duen Blu-Ray batek bil dezakeen memoria baino zortzi aldiz gehiago du horrek.

Disko optikoak hamasei kapa ditu eta Blu-Rayrekin bateragarria da. Oraindik ez da formatu horrendako grabagailurik existitzen, eta, horrenbestez, aurrez grabatutako edukiekin bakarrik salduko da oraingoz.



Disko optiko berriak hamasei kaparekin egiten du lan eta Blu-Ray sistema optikoarekin bateragarria da.

> INFORMATIKA

Euskadiko ordenagailurik zaharrenaren bila dabilta eta lehiaketa antolatu dute horretarako

Etxean daukazu ordenagailu zahar horrek balio ez duela uste baduzu, oker zabilta: 3001 Pc enpresak Euskadiko ordenagailurik zaharrena topatzeko lehiaketa antolatu du. Uztailaren 31n amaitzen da epea.

Edozein ordenagailu mota aurkez daiteke. Baina baldintza bakarra bete behar du: behar den moduan ibiltzea. Partaideek Euskal Autonomia Erkidegoan bizi behar dute. Irabazleak eskuko ordenagailu berria jasoko du.



Aurkezten diren ordenagailuek baldintza bakarra bete behar dute: behar bezala ibiltzea.

> MP4-A

Pila eta bateria barik funtzionatzen duen Eco-Player izeneko MP4a merkatuan aurki daiteke

Dagoeneko ez dugu arduratu behar MP4 irakurgailuak erabiltzen dituen pilekin edo bateriekin, horiek barik funtzionatzen duten MP4 irakurgailuak aurki ditzakegu eta gaur egungo merkatuan: Eco-Player izenekoak, hain zuzen ere.

Bi modutan karga daitezke erreproduzitzaileak: biraderari emanda edo ordenagailuaren USB bidez, hain zuzen. Lehenengo minutu bakar batean biratuz gero, 40 minutuko autonomia lortuko dugu.

Salneurria: 199 euro.



Eco-Player MP4a bateria eta pila barik dabil; biraderarekin kargatzen da, eta baita USB bidez ere.

Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA IV. LEHIAKETA



Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak



Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak

Baldintzak

- Udako argazkiak izan behar dira: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Debagoieneko edozeinek parte har dezake. (ez da adin mugarik izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Parte-hartzaileek gehienez bost argazki bidali ahal izango dituzte.
- Adierazi behar dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina eta telefonoa, eta argazkiaren deskribapen txiki bat.
- Astero argitaratuko dira ASTELEHENEKO GOIENKARIAN.
- Urriaren 6ko ASTELEHENEKO GOIENKARIAN aditzera emango dira irabazleen izenak.

Sariak

- 1. saria: Olympus E-510 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- 2. saria: Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonarendako, Arrasate Bidaiek-en eskutik.
- 3. saria: bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Har ezazu parte!

Babeslea:



Laguntzaileak:



Harpidedun egiteko:

943 08 10 50
Astelehenetik egubakoitzera
09:00etatik 18:00etara

berriak

> PROGRAMAZIOA

Maidar Undari elkarrizketa egingo dio Xabier Urtzelaiak

Pekineko olinpiadak gero eta gertuago ditugunez, Xabier Urtzelai kazetariak *Harmailatik* saioan elkarrizketa egingo dio Maidar Unda borrokari aramaioarrari. Unda olinpiadetan parte hartuko du. Bestalde, aste bukaeran jokatuak hainbat kirol hitzordu landuko dituzte astelehenean. Besteak beste, Elgetan jokatuak den mendiko saria. Horren berri, 21:15ean, *Harmailatik* saioan.

> PROGRAMAZIOA

Busturialdeko bertsolari txapelketa aste bukaeran

Zapatuan, 19:00etan emango du GOITBk Busturialdeko 2008ko bertsolari txapelketa saioa. Maiatzaren 4an jokatuak saioa da zapatuan eskainiko dutena. Txapelketan parte hartu zuten bertsolariak Iker Belaustegi, Julen Erezuma, Amaia Uribe, Xabi Enbeita, Jon Rementeria eta Ander Elortegi dira. Saioak txapelketako une onenak batuko ditu. Zaleek galdu ezinezko hitzordua izango da.

> ARRASATE IRRATIA

India bisitatzeko aukera, etxetik mugitu barik

Opor proposamenak egiten segituko dute irratiko lankideek. Leku exotikoetan jarraitu eta oraingo honetan, India bisitatzeko dute. Martitzenean da hitzordua, 11:30etik 12:00ak bitartean. Eguenean, berriz, sexologia kontuak izango dituzte berba, ordu berean eta Arrasaten sortu duten jantzi marka berria ere izango da irratiko protagonistetako bat irratian datorren astean: Koolore.

> ARRASATE IRRATIA

Brutal Melody eta Anger ikustera joateko sarrerak

Udako oporrak hartzeko sasoi iritsi zaio *Arrasate Irratiari* eta halaxe egingo du datorren egunean, uztailaren 24an. Irailaren 1ean, astelehena, itzuliko dira ohiko irratia saioekin, 107.7an. Agurta baino lehen, baina, opariak zozkatuko dituzte entzuleen artean: Aquariumerako sarrerak, Euskalteko Tourreko kamisetak eta Brutal Melody eta Anger Arrasateko musika taldeak 3.60 aretoan entzuzterako joateko sarrerak ere bai.

'ILUNPEAN' > EGUBAKOITZA, 22:15


Kandido Uranga aktore ezaguna 'Ilunpean' saioan

'Ilunpean' saioan Kandido Urangaren bizimodua nolako den jakingo dugu gaurkoan

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Kandido Uranga zumaiarra eskarmentu handiko aktorea da. Zientzia ikasketak egiten hasi zen Uranga, baina antzerkiarekin "topo" egin zuen. Hala, 70eko hamarkada ezker, antzerkia egiten ikusi dugu. Gainera, duen ahots berezia dela-eta, bikoiztaile lanak ere egiten ditu.

Zineman Julio Medemen *Vacas* filmarekin egin zen ezagun Uranga. Azkenaldian, ETBko *Balbemendi* telesailan ikusi dugu. Gaur, 22:15ean, Iker Barandiaran kazetariak *Ilunpean* saioan elkarrizketatuko du Kandido Uranga aktorea.



Balbemendi saioan ikusi dugu azkenaldian Uranga.

IKER BARANDIARAN

'JAIK' > EGUAZTENA, EGUENA ETA EGUBAKOITZA

Antzuolako jaietako giroa kaletik etxeko telebistara eroango du GOITBk

A.E. > BERGARA

Uda jairik jai ibiltzeko garaia izaten da. Hala, azken egunotan, hainbat jai ospatu dira ibarrean. Guztien berri bertatik bertara ezagutzeko aukera izan da GOITBn. Bada, aste bukaeran, Antzuolan jaiak ospatuko dituzte; eta GOITBk saio berezia egin-

go du Antzuolako kaleko giroa etxeko telebistara eramateko. Saioak eguaztenean 21:47ean, eguenean 14:15ean eta egubakoitzean 18:15ean izango dira.

Aitor Agiriano eta Amaia Txintxurreta izango dira Antzuolan jaietz gozatzen. Gaur, egubakoitza, umeen jolaspar-

kean izango dira, herriko plazan. Gainera, I. marmitako lehiaketan ere izango dira GOITBko lankideak. Marmitakoa ondo prestatzeko antzuolarrak dituzten sekretuak erakutsiko dituzte; eta, bertara hurbiltzen direnen iritziak ere jasoko dituzte.

Antzuolako jaietako protagonista, duda barik, mairua izaten da. Bada, telebistako lankideak herriko plazan egongo dira bihar Mairuaren Alardeko giroa jasotzeko. Plazan egongo diren herriarren iritziak ere jasoko dituzte Aitor Agirianok eta Amaia Txintxurretak.

telebegi

Edu Mendibil > www.goiena.net/blogak/edu

Abuztuan, Pekinera begira

Uda ez da telebista ikusteko garairik aproposena: Villarriba eta Villabajoko lehiakideen *txapuzoia* bilatzen duten lehiaketak tontoak; lehiaketa tontoagoak oraindik (*El juego de tu vida*-n: *¿Has llegado a desear la muerte de tu suegra?*); futbol taldeek euren izar berrien fitxa astronomikoak ordaintzeko Asian jokatzeko dituzten partidua aspergarriak; jairik jai egiten diren saio errepikakorak; edo itsaso ondoan, sangriaz lagunduta egiten diren saio lasaigarriak... Eta holako saio-saiakeraren bat egingo balu GOITBk Udalako igerilekuk? Zaila da Jesus Gilek, neskez inguratuta, *jacuzzian* egin zuen saio haren mailara iristea, baina...

Edozein modutan, aurten urte olimpikoa da, kirolzaleok gorritz markatuta izaten duguna. Txinoak hain superstiziosoak izanda, 2008-8-8ko data aukeratu dute inaugurazio ekitaldirako. Eskerrak Cuatro-k ez daukala Joko Olimpikoen eskusiba... Hain emaitza ona eman dien *Podemos* leloari eutsiko zioten bestela (marketing bikaina aitortu behar zaie Prisakoei). Txinan, pistan ez dakit, baina TVEko esatarien artean izango da hutsune nabarmen bat: atletismoa hain dotore narratzen zuen Gregorio Parra. Urrezko domina, hari.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu. Ume sahararrak eta Gurutze Gorriaren erreportajea; musika kontuak, *Kantaka* irratia saioan; gazte kontuak, emakumeen arraua eta beste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik eguenera

10:00-12:00 Igo Autobusera
Albistegia, Arrasateko eta ibarreko albistekin
Donostiako Aquariumeko kontuak
Eguraldien iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean
Kantaka
Erreportajeak
Astearren errepasoa
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com, goiena.net*))
11:55 Arrasateko albistek, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

GOITBko programazioa

Egubakoitza, 18

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Munduko futbol txapelketa. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Euskaldunok hizketan. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Musikantoi. 16:15 Ur eta lur. 16:45 Albistek. 17:15 Marrazkiak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Jaiak musika. 18:45 Albistek. 19:15 Ikusmira. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Animalia. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Musikantoi. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Klip 28. 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 19

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak. 11:00 Ikusmira. 11:30 Kusten. 12:00 Astekoak. 12:15 Klip. 12:30 Berbaire. 13:00 Eltze beroa. 13:30 Wasemak. 14:30 Elgeta eta Aramaio jaiak. 15:00 Kantari. 16:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Busturialdeko bertso txapelketa. 22:00 Erreportajea. 22:30 Ilunpean. 23:00 Musikantoi. 23:30 Klip. 00:00 Emisio amaiera.

Domeka, 20

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak. 11:00 Kantari. 12:00 Busturialdeko bertso txapelketa. 15:00 Ikusmira. 15:30 Kantari. 16:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Klip. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Erreportajea ttipi ttipa. 21:00 Musikantoi. 21:30 Animalia. 22:00 Astekoak. 22:15 Jaiak musika. 22:45 Erreportajea. 23:15 Teknopolis. 23:45 Ilunpean. 00:15 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera.

Astelehena, 21

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Munduko futbol txapelketa. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea-Ttipi Ttipa. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Wazemak. 16:15 Kusten. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazkiak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Hitz bitan. 18:15 Teknopolis. 18:45 Berriak. 19:15 Animalia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea. 22:15 Kirolari. 22:45 Berriak. 23:15 Harmailatik. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Klip. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 22

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Muka muka. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:15 Harmailatik. 14:45 Berriak. 15:15 Animalia. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Kirolari. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazkiak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Klip. 18:15 Musikantoi. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Wazemak. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Euskaldunok hizketan. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusmira. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Erreportajea. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 23

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Munduko futbol txapelketa. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Euskaldunok hizketan. 16:15 Wazemak. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazkiak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Animalia. 18:15 Harmailatik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Hitz bitan. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Antzuolako jaiak. 22:15 Ur eta lur. 22:45 Berriak. 23:15 Kusten. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Jazzmina. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 24

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Antzuolako jaiak. 14:15 Euskaldunok. 14:45 Berriak. 15:15 Kusten. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ur eta lur. 16:17 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Muka muka. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Kirolari. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazkiak. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Musikantoi. 22:45 Berriak. 23:15 Hitz bitan. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Teknopolis. 00:15 Emisio amaiera.

UDAKO BEHERAPENAK AUKERA PAREGABEA



EIBAR

**Toribio Etxebarria Kalean
2008ko Uztailaren 23 eta 24**

AGAITI
ARIZONA JEANS
ASKASIBAR INTERSPORT
BAMBI
BIANCO-TIERRA
CEDRY
DEPORTES BETOÑO
D'MYSTIC
DOROTI
EL CORTE INGLÉS
ERREBAL KIROLAK

FLORES BLANCA
GARMEN
GLOSS MODA JOVEN
GRATZINA
GUBY CHICAS
GUBY CHICOS
IRRITSA
IZANE
KOPIÑA
LENCERIA CALBETÓN
LIDE

NARRUA
NI MÚ
NONA
PISSA
TRIBUX
TTIKI
TXUKUNA
XARE
ZERO

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEA



Uztailak 18-24

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

Musika



BERGARA

> Jose Luis Pardo and the Mojo Workers taldearen jazz emanaldia dago gaur

Jose Luis Pardo argentinarra bere herriko gitarra jole handien artean dute. Bluesaren AEBetako hiri mitikoenetan jo du. The Mojo Workers taldearekin *That's right* diskoa kaleratu zuen iaz. Gaur joko dute Espoioan, 22:30ean.

Musika



OÑATI

> Oñatiko bandarekin joko du Oskorri taldeak, Banda Band biran

Banda Band delako biran sartuta dabil Oskorri taldea, Euskal Herriko hainbat musika bandarekin jotzen eta euren abestiak gogoratzen. Horrela, bada, Oñatikoarekin joko dute gaur, egubakoitza, kiroldegian, 22:30ean.

Musika



ARRASATE

> Garifuna Collective eta Habib Koite-k joko dute gaur, egubakoitza

Garifuna Collective taldeak (argazkian) Erdialdeko Amerikako afrikar sustraidun musika jotzen du, eta Habib Koitek Maliko musika estiloak lantzen ditu. Monterron parkean joko dute, 22:30ean eta 00:00etan, hurrenez hurren.

ba (sabel dantza), Ras Reguilon & Riddim Family Band eta Dingwash.

Bihar, zapatua, Gorlako zelaietan, 19:00etan.

Lehiaketak

ARRASATE, BERGARA

> 'Gomendatzen dizut!' lehiaketa deitu dute Gazte Bulegoek

Gomendatzen dizut! Merez du delako lehiaketa deitu dute Arrasateko eta Bergarako Gazte Informazio Bulegoek. Oporretan ezagututako lekuen, zerbitzuen... gainera gomendioak eskatzen dituzte. 12-34 urte arteko edozeinek parte har dezake. Argibideetarako, jo www.aizue.com webgunera.

Urriaren 26ra bitartean egongo da zabalik erakusketa.

BERGARA

> Film laburren lehiaketa deitu dute debagoiendarrendako

III. Film Laburren lehiaketa deitu du Bergarako Udalak. Debagoiengan bizi den edozein aurkez daiteke, bakarka edo taldeka, eta edozein hizkuntzatan egindako filmekin. Gaia librea da, eta film laburra, bideo-klipa, iragarkia, irudi muntaia, esketxa, dokumentala, arte bideoa... edozein genero landu daiteke. Muga-iraupena 30 minutu da.

400 eta 300 euroko sariak eta, bi horietan bergararrak ez badago, bergarar onenarentako 150 euroko saria emango dituzte. Lanok Bergarako kultura etxean aurkeztu behar dira, eta azaroaren 3a da horretarako azken eguna.

Argibideak: www.bergara.net, edo 943 77 91 60 telefonoan.

Antzerkia

ARRASATE

> Ipuinen baloreen gaineko ipuin kontaketa izango da

Gazte Bulegoak eta Sexologia Zerbitzuak antolatutako udako aisialdi eta kultura egitarauaren barruan, ipuin kontaketa saioa izango da eguenean, honako izenburuarekin: *Zein balio transmititzen dugu betiko ipuinekin?* Arrasateko neska batzuek egingo dute emanaldia.

Eguenean, hilak 24, Biteri plazan, 19:00etan.

ARETXABALETA

> Umeendako antzerkia egingo dute Hipo eta Tomaxek

Arkupe kultura etxea zabaldu dutela ospatzeko ekintzen artean, 4 urtetik gorakoendako antzerki saioa egongo da bihar, zapatua, Hipo eta Tomax taldearen eskutik. Sukaldarien istorio bat antzeztuko dute: Argiñano sukaldari

Ikuskizunak

ESKORIATZA

> Logela Multimedia 'Mokaua' ikuskizuna egingo du bihar

Errekan Gora egitarauaren barruan, Logela Multimedia taldeak emanaldia egingo du bihar, zapatua. *Mokaua* delako ikuskizunean, lau musikarik abestiak jotzen dituzten bitartean, bideo-jockey batek irudiak nahasten ditu zuzenean. Ikuskizun multimedia horren ezaugarri nagusia interakzioa da: musikariak pantaila erraldoi garden bateko irudietan integratzen dira, eta musika, irudiak eta mugimenduak zuzenean sinkronizatzen dira. 11 abesti eta bost esketx umoretsu batzen dituen ikuskizun multimedia koloretsua da.

Bihar, zapatua, unibertsitateko klausuroan, 23:00etan.

ARRASATE

> Beningo eta Komi Errepublikako dantza eta folklorea

Bi taldek folklorea emanaldia egingo dute hilaren 22an, martitzena, Udalak antolatutako udako egitarauaren barruan. Les As du Benin taldea Beningo gazte batzuek osatzen dute, eta hango kantuak eta dantzak gorde eta ezagutaraztea da euren helburua. Beningo ballet esanguratsuenetariko bat dira. Houetanou izeneko ikuskizuna egingo dute; vodoun auzo bat antzeztuten dute, eta materiaren eta materiagabearren arteko liskarrak antzeztzen dituzte, egunaren eta gauaren artekoak.

Bestalde, Komi Errepublikako Assya Kya taldeak egingo du emanaldia. Talde horrek hango abestiak, dantzak, musika-tresnak eta jantziak erakusten ditu; komien sinetakerak eta izaera nazionalak

gorpuzten dituzte horiek. Herrialde horretako tradizioen aberastasuna eta konposatzaile eta musikarien herentzia jasotzen du Assya Kyak.

Hilaren 22an, martitzena, Monterron parkean, 22:30ean.

Musika

ARRASATE

> Surfin Kaos, Captain Nemo eta Plan B taldeek joko dute

Donostiako Surfin Kaos taldekoek *Tryphylon* disko abestiak joko dituzte. 70eko eta 80ko hamarkadetako musikaren eragina nabarmena da disko horretan, batez ere, garai horretako punk rock, hard rock eta garage talde ingeles eta estatubatuarrena.

Captain Nemo eta Plan B taldeek ere joko dute.

Gaur, 3.60 aretoan, 22:30ean.

BERGARA

> Donostiako Mariaren Bihotza abesbatzaren saioa

Bergarako Orfeoak antolatuta, Donostiako Mariaren Bihotza abesbatzak emanaldia egingo du bihar, zapatua. Kontzertu horrekin, bi taldeon arteko elkartrukea amaitutzat emango dute.

Euren erreperorioan, euskal musika eta polifonia nabarmentzen dira. Miren Urbietak zuzenduko du taldea.

Bihar, zapatua, Mariaren Lagundiko elizan, 20:00etan.

ESKORIATZA

> Txatarrerria Keaton taldeak eguenean joko du

Eguraldi txaragatik, hilaren 5erako iragarrita zegoen Txatarrerria Keaton taldearen emanaldia bertan behera geratu zen, eta eguenean egingo dute.

PROPOSAMENA

ANTZUOLA

> Herriko jaiak eta alardea ospatuko dituzte antzuolarrek

Eguenean hasi ziren ospakizunetan bete-betean sartuko dira antzuolarrek aste bukaeran. Gaur, egubakoitza, I. Marmitako Lehiaketa, pilota partiduak, ikuskizuna... izango dira; bihar, zapatua, Mairuaren Alardea egingo dute 18:30ean, eta orain arte mairuarena egin duen Salvador Peñari omenalditxo egingo diote. Afaria, rocka, bertsolariak, trikiti eguna... ere izango dira.

Mairuaren alardea 18:30ean hasiko da; lehen, 18:00etan zen.



famatuaren telebistako platoon batuko dira.

Ikuskizunera joateko sarrera 5 euro da.

Bihar, zapatua, kultura etxean, 17:00etan.

Ospakizunak

BERGARA

> **Santa Marinako jaiak ospatu-ko dituzte aste bukaeran**

Santa Marinako auzotarrek jaiak izango dituzte egunotan. Hala, gaur, egubakoitza, umeendako kukainak, poniak eta bigantxak egongo dira (11:30); meza, eliza nagusian, eta Aritzeta abesbatzaren emanaldia segidan (19:00), eta XVI. Boccia Txapelketa (19:00); bihar, jaiak bukatzeko, Erretiratuen Eguna ospatuko dute: 20. Ibilaldi Neurtua erretiratuendako, aitonetan (10:30), XVII. Santa Marinako Txirringularitza Saria (16:00), karta txapelketetako finalak eta sari banaketa, aitonetan (16:30) eta disko-festa, Matxiategin (22:30).

Ospakizunak gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, izango dira.

OÑATI

> **Madalena auzoko jaiak ospatuko dituzte egunotan**

Madalenako jaiak ospatuko dituzte oraingo aste bukaeran. Honako ekintzak izango dira: gaur, egubakoitza, jaien hasiera eta Madalenaren jaitsiera (20:30); auzo afaria (21:15) eta rock jaialdia (02:00); bihar, zapatua, meza eta luncha (13:00), Gorritiren abereak eta herriko bertsoariak (18:00), erromeria Kaixo taldearekin (23:00) eta berakatz zopa-jana (goizaldean); eta etzi, domeka, meza, Oñati abesbatzako abestia, eta luncha (12:00); herri kirolak, Ernesto Ezpeleta *Bihurri* aizkolariarekin, auzoko trikitilariak girotuta (13:00); eta mus txapelketa (16:00).

Zapatuan, goizaldeko 03:00etan hasita, autobusa ibiliko da Oñatiko erdigune eta Madalena auzo artean.

ARRASATE

> **Pedro Biteri arrasatear filantropoari gorazarrea**

Arrasaten eta beste herri batzuetan eskolak sortu eta mantendu zituen Pedro Biteri zenari gorazarre ekitaldia egingo dio Arrasateko Udalak gaur, egubakoitza, eta parte hartzeko dei egiten diete herritarrei. Biteri jai zela 175 urte betetzen dira gaur.

Gaur, egubakoitza, Alfontso X.a plazan, 19:00etan.

OÑATI

> **Arrano elkartean 25. urteurrena ospatuko dute**

Arrano elkartean 25 urte betetzen dituela ospatzeko, hainbat ekintza antolatuko dituzte biharko, zapatua. Besteak beste, triki-poteoa (12:00), bazkaria (14:30) eta gero, bertsolariak eta trikitilariak izango dituzte.

Hilaren 21ean, luncha izango dute Arranoan.



Funny games *

Zuzendaria: Michael Haneke.

Aktoreak: Naomi Watts, Tim Roth.

AEB-Frantzia-Alemania-Italia, 2007.

111 min. 18 urtetik gorakoendako.

Funny games ez da zehazki film bat: probokazio bat, gogoetarako gonbidapen zakar bat, iruditari ipinitako entsegu bat... Definizio horiek hobeto doazkio lan horri, eta hobeto ulertuko dugu zuzendaria Michael Haneke (*La pianista*, *Cache*, *Escondido*...) dela jakinda, egile hori beti saiatzen da-eta egonezina sortzen, biolentzia, gorrotoa edo elkar ulertzeko ezintasuna modu zuzen eta ilunean erakusten. Bada, film honekin, helburu hori gorenera eramaten du.

Funny games Hanekearen beraren izen bereko 1997ko filmaren planoz planoko kopia da. Kopia eta AEBetako merkaturako egokitzapena. Berdin dio: aktoreen lan onari esker, film honek ez du intentsitate apurrik ere galtzen bere aurrekariaren aldean. Labur esanda, bi gazte psikopataren mendean erortzen den familia baten istorioa da. Gazte horiek bikote bat eta haien seme txikia bahitu eta pentsaezineko torturak egiten dizkiete, izenburuak dioten bezala, dibertitzeko bakkarik. Baina filma horren kontakizun soila baino gehiago da: zinemako anonimotasunean babestuta, biolentzia espektakulu bihurtuta ikusten dagoen audientzia hori xaxatu eta, zergatik ez, salatu nahi duen hatza ere bada. Izan ere, filmak biolentzia grafiko gutxi dauka, baina, dena irudimenaren esku utzita, *show* odoltsu hori are lizunagoa egiten da, ikusmina ageritan uzten duelako. Ez hori bakarrik: pertsonaiek zuzenean publikoari hitz egiten diote batzuetan. Intentsioa argi dago.

Eta hortxe egiten du porrot Haneke-k. Intentsioa hain begi bistakoa izanda, erdibidean geratzen da, eta jendarteak morboarekiko duen zaletasunak merezi eta jaso dituen kritika guztiei ez die ezer gehitzen. Biolentzia arte egin nahi du, ez du ezer gehiago esaten, eta azkenean, gorrotagarri besterik ez da egiten.

Naiara Larrañaga

Zinema

ARRASATE MONTERRON PARKEA

Jumper
Eguena: 22:30.

EIBAR UNZAGA

Hancock
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelena, martitzena eta eguaztana: 19:30, 22:15.

GASTEIZ GURIDI

Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal
17:30.

Hancock
17:00, 18:50, 20:40, 22:30.

Kung Fu panda
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

Antes de que el diablo sepa que has muerto
20:00, 22:30.

Las crónicas de Narnia: el príncipe Caspian
17:00, 19:40, 22:15.

Sexo en Nueva York
Egubakoitza: 17:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:40, 22:15.

Oh, Jerusalén
Egubakoitza: 17:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

Posdata: te quiero
17:30, 20:00, 22:30.

Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal
Egunero: 12:15, 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.
Egubakoitza izan ezik: 15:45, 18:15, 20:45, 23:15.

El incidente
18:05, 20:05, 22:05, 00:05.

La niebla
12:15, 15:30.

Red bull
Egubakoitza: 21:30.

Tropa de elite
12:15, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.

Kung Fu panda
12:15, 16:00, 17:00, 18:00,

FLORIDA-GURIDI

Tropa de elite
17:30, 20:00, 22:30.

Yo serví al rey de Inglaterra
17:30, 20:00, 22:30.

Funny games
22:30.

Un novio para Yasmina
18:00, 20:15, 22:30.

Garage
18:00, 20:15, 22:30.

Prométeme
17:30, 20:00, 22:30.

Kung Fu panda
17:30, 20:00.

Gente de mala calidad
18:00, 20:15, 22:30.

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Hancock
12:15, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30, 21:30, 22:30, 23:30, 00:30.

Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal
Egunero: 12:15, 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.
Egubakoitza izan ezik: 15:45, 18:15, 20:45, 23:15.

El incidente
18:05, 20:05, 22:05, 00:05.

La niebla
12:15, 15:30.

Red bull
Egubakoitza: 21:30.

Tropa de elite
12:15, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.

Kung Fu panda
12:15, 16:00, 17:00, 18:00,

19:00, 20:00, 21:00, 22:00, 23:00, 00:00, 00:50.

El increíble Hulk
17:45, 20:00, 22:15, 00:30.

Sexo en Nueva York
19:00, 21:45, 00:25.

Paso de ti
12:15, 16:45.

El patito feo y yo
12:15.

Dueños de la calle
12:15, 16:25, 18:30.

Posdata: te quiero
12:15, 16:40, 19:10, 21:40, 00:10.

Las crónicas de Narnia: el príncipe Caspian
12:15, 15:35, 17:15, 18:35, 20:15, 21:35, 23:15, 00:35.

Horton
12:15.

Dos colgaos muy fumaos 2
20:35, 22:35, 00:35.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.

Eguerdiko saioak, domekan.

Astelena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

ÁBACO BOULEVARD

Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal
20:00, 22:35.

Paso de ti
22:25, 00:45.

Kung Fu panda
16:05, 16:30, 18:05, 18:30, 20:05, 20:30, 22:05, 22:30, 00:45.

Sexo en Nueva York
19:15, 22:10, 01:00.

Las crónicas de Narnia: el príncipe Caspian
16:00, 16:30, 19:00, 19:30, 22:00, 01:00.

Algo pasa en Las Vegas
22:15.

La boda de mi novia
17:00.

El increíble Hulk
17:00, 19:20.

El patito feo y yo
16:05, 18:00.

Hancock
16:00, 16:20, 18:00, 18:20, 20:00, 20:20, 22:00, 22:20, 00:30.

Eskalofrío
16:15, 18:15, 20:15, 22:25, 00:45.

La boda de mi novia
17:00.

Posdata: te quiero
16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

El incidente
16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.

Eguerdiko saioak, domekan.

nire aukera



Andoni Azkargorta
Futboleko entrenatzailea
Antzuola

"Herrian egongo naiz jaietan"

Plan berezirik ez dut izaten asteburuetan. Koadrila guztia elkartzen gara eta astean zehar ikusten ez ditudan lagunekin egoten naiz. Herrian ibiltzen gara, eta herrikan kanpo zerbaite berezia egonez gero, kanpora joaten gara. Urtean zehar, partiduak ere izaten ditut asteburuetan, eta denbora asko ematen dut horretan.

Eguenean herriko jaiak hasi ziren, eta bihar eta etzi ere Antzuolan egongo naiz. Asteburuan zer egin aukeratu ahal izango banu, bidaiatzea aukeratu nuke: Euskal Herri inguruan lekuren bat bisitatu eta erlaxatu.

Udan, aurretik egiten ez zenituen gauzak egiten dituzu?

Guztiz aldatzen da dena. Garai honetan futbolik ez daukat eta, askotan, kanpora joaten gara asteburu pasa, leku berriak ezagutzera. Bizikletan ibiltzeko astia ere izaten dut eta aisialdian bizikleta hartzen ahalegintzen naiz.

Zelako giroa egoten da jaietan?

Eguenean hasi ziren, eta ohiko jai giroa egoten da. Eguenean zehar ekintza ezberdinak egoten dira, batzuetan parte hartzen dugu; gauean, gazteria egoten da kalean, edozein jaitan egoten dena. Eguenean eta domekan herriko giroa gehiago pizten da, herrikoak egoten gara eta guztiok irteten gara kalera.

Zer da gehien gustatzen zaizuna jaietatik?

Egubakoitza egun moduan da gehien gustatzen zaidana. Koadrilako bazkaria edukitzen dugu eta egun osoa aprobeztatzen dugu.

Datorren denboraldian Arrasatera joango zara entrenatzera, ezta?

Bai, preferente mailan. Lehenengo aldiz entrenatuko dut maila horretan, eta ilusio berezia egiten dit. Gaztetatik nabil entrenatzen eta egin dudana lan guztiarengatik eman didaten saria da hau.



Jumper abenturazko filma emango dute egunean, Monterron parkean.

Eskasa: * Balekoa: ** Ona: *** Oso ona: **** Bikaina: *****

Los cronocrímenes ***

Espainia, 2007. Zuzendaria: Nacho Vigalondo. Aktoreak: Karra Elejalde, Barbara Goenaga, Nacho Vigalondo. 90 min. 13 urtetik gorakoendako. Gizon bat denboran atzeraka doa eta bere buruarekin topo egiten du; neska bat biluztik agertzen da baso erdian; gizon misterioz bateg aurpegia arrosa koloreko bendaz estalita dauka...

Hancock

AEB, 2008. Zuzendaria: Peter Berg. Aktoreak: Will Smith, Charlize Theron. 92 min. 13 urtetik gorakoendako. Hancock superheroi berezia da. Asegabetua eta sarkastikoa da, eta beti salbatzen du jende asko, baina, era berean, nahaste izugarriak sortzen ditu...

Funny games *

AEB-Frantzia-Alemania-Italia, 2007. Zuzendaria: Michael Haneke. Aktoreak: Naomi Watts,

Tim Roth, Michael Pitt. 111 min. 18 urtetik gorakoendako. Michael Haneke-k izen bereko bere filmaren remake-a egin du hemen. Anna, George eta Georgie semeak oporrak hasi dituzte udako etxean. Halako baten, Paul eta Peter gazteak agertzen zaizkie etxean...

Bienvenido a Farewell-Gutmann ****

Espainia, 2008. Zuzendaria: Xavi Puebla. Aktoreak: Adolfo Fernández, Lluís Soler, Ana Fernández. 98 min. 13 urtetik gorakoendako. Farewell-Gutmann enpresa farmazeutikoko zuzendaritzako kide Ruiz hil egin da, baina Lázaro, Adela eta Fernando lankideek ez dute haren falta igarriko, haren postua betetzeko lehian hasiko dira-eta.

Posdata: te quiero *

AEB, 2007. Zuzendaria: Richard LaGravenese. Aktoreak: Hillary Swank, Gerard Butler. 126 min. Denoendako.

Jumper ***

AEB, 2008. Zuzendaria: Doug Liman. Aktoreak: Hayden Christensen, Jamie Bell, Samuel L. Jackson, Rachel Bilson. 88 min. 13 urtetik gorakoendako. David Rice-ek dohain miragarri bat du: nahi duen munduko edozein tokira joan daiteke, soilik bere boterearekin. Horrez gain, paretak edo beste edozein oztopo zeharka ditzake. Laster jakingo du "jauzilaria" dela, geneek ematen diotela botere hori, eta erakunde sekretu bat "jauzilaria" guztien atzetik dabilela.

Holly lur jota geratzen da senarra hil egiten zaionean. Halako baten, 30. urtebetetzea eta gero, senarraren gutun bat jasotzen du Hollyk, animuak ematen.

Un novio para Yasmina

Espainia-Maroko, 2008. Zuzendaria: Irene Cardona Bacas. Aktoreak: Sanaa Alaoui, José Luis García Pérez, Francisco Olmo. 92 min. 13 urtetik gorakoendako. Yasmina marokoar gazte bat da. Espainian dago ikasketak bukatzeko. Ez du bere lekua topatzen, eta bakarrik etorkinak hartzeko elkarte baten dago gustura.

Aliento **

Hego Korea, 2008. Zuzendaria: Kim Ki-duk. Aktoreak: Chang Chen, Zia, Ha Jung-woo. 84 min. 13 urtetik gorakoendako. Senarrak neska lagun bat duela jakitekoan, Yeon-ek preso bat bisitatzea erabakitzen du; gizona bere buruz beste egiten saiatu da.

Kolokan orekan, arropetan

BOST LAGUN Ibarreko bost gaztek sortu dute arropa marka: bi diseinatzaile, arropa diseinatzaile bat eta bi komertzial

KAMISETAK Marka ezagutzera emateko kolore askotako kamisetak atera dituzte eta arrakasta izan dute

BILDUMA Datorren urte hasierarako arropa bilduma Euskal Herriko dendetan ipini nahi dute salgai

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE
Koloore izena soinean, kamisetetan, dutela ikusi dugu jendea azkenaldian Debagoienean zein Gipuzkoako kostaldean.

Koloore proiektua Arrasaten sortua da. "Ideia bi lagun artean sortu zen; aurretik beste izen baten pean kamisetak eta jertseak atera genituen eta funtzionatzen zuela ikusita proiektu serioago bati ekiteko asmoa sortu zen. Inguruan bagenituen lagunak proiektuan sartzeko gertu eta hortik sortu zen Koloore. Taldean gaude bi diseinatzaile, arropa diseinatzaile bat eta bi komertzial".

SURFEAN OINARRIA

Koloore izenaren atzean zer dagoen azaldu dute taldekideek: "Surfaren oinarritik dator; orekan kolokan edo kolokan orekan hitz jokotik; surf taula baten dabile-naren sentsazioaren adierazle edo. Hori azalduz logotipo sinplea eta zuzena egin dugu".

Oraingoz kamisetak atera dituzte marka ezagutarazteko, promoziorako. "Izenari ohore egi-

nez kolore askotakoak atera ditugu". Oso harrera ona izan dutela ikusita, aurrerantzean arropa bilduma kaleratuko dute: "Jendea hasi da gauza berriak eskatzen. Asmoa da aurten kaleratzea bildumako arropa batzuk eta datorren urte hasierarako katalogoa izatea eta dendetan gure produktuak erakustea". Arropa berezia izango dela diote: "Saiatuko gara sorpresa ematen. Ez dugu betikoa egin nahi, gauza originalak baik; arropetan gure-gurea den zerbait beti egongo da".

Asmoa zen "marka potente bat ateratzea. Gazteen inguruan sortutako mugimendua errepresentatzen duen arropa marka bat". Hala ere, arropak ez dituzte mugatu nahi adin tarte zehatz batera: "Gazte sentitzen denarendako, gure arropak gustuko dituenarendako eta gure filosofiarekin bat datozenendako. Orekan eta kolokan dabiltzanendako".

Koloore markako arropak aurki Euskal Herriko dendetan izango dira eta ez dute baztertzeko gehiago zabaltzea ere.



TALDEA Maider Arriaran, Iñaki Uriarte, Iker Aranburuzabala eta Unai Kortazar proiektuko kideak (Iban Garai falta da). I.A.

ahobero

"Gure amak otoitz mordoa egin zuelako naiz aktore 'Batman' filmean"

Nestor Carbonell > Aktorea

Agian askoren amak otoitz egingo luke semea *Batman* moduko film batean ez ateratzeko, baina badirudi haren amaren errezoak saguzar-gizonak eraman zizkiola Jainkoari itsu-itsuan eta honek ordainetan paper bat eman. Hobe luke itsu baino bere hitz horiek mutu gordeko balitu bere aktore lanerako balioa zalantzan jarri barik.

iturri onetik

Moto-kros txapelketa egingo dute Bergarako Osinan irailaren 14an

Osinan, Angiozarrerako bidean, hondakindegian zirkuitua gertatzen dihardute eta moto-kros txapelketa irailaren 14an egingo dute. Gainera, motorzaleen asmoa da zirkuitua mantentzea eta urtean hiru proba egitea: bi moto-kroskoak eta *cros-country*-koa bestea. Gainontzean, entrenamendu saioetarako erabiliko lukete gune hori. Hala ere, oraindik zirkuitua mantentzeko baimenaren zain daude.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Patxi Aguletakoa

Ehun urte bete berritan hil da Patxi Aranzabal angiozartarra, Aguletako maiorzkoa. Anaia zuen Felix, soinu-jole itsu ospetsua; baita Julian ere, nire aitagarreba. Iraganetik iraun duen gizona zen, desgertuz doan mundu baten azken aleetakoa.

Azkar ari da bilakatzen dena, azkarregi. Duela 50 urte gizarte pobrea ginen, eta baserriek hornitzen zituzten jaki urriak. Horrela, maiorzkoen bazegokien gizartean toki on samarra, eta Patxiri nabari uste nion horren harrotasuna. Egun, aberats bizi gara, beti aberats izan bagina lez. Oso atzean gelditu dira ez hain aspaldiko eskasiak, iduri du uko egin nahi diogula oraintsu arte izan garenari. Seguruenik ez da ona.

Aste honetan hil da Patxi, baina ze urrun dagoen bere garaia.

ai, ene!



Atzamarrak eguzkia hartzen hondartzan

Hondartzara eguzkia hartzera joaten da jendea. Gorputz guztia beltzaran ipintzeko kontu hori hatzamar puntaraino iristen da.

www.verparacreer.com



Gerentziak erabilitako autoak. 2 Avensis Diesel 126 ZP familiarra

Maila goreneko autoak prezio ezin hobean

• Segurtasunean bere segmentuko onena • 9 aire-poltsa, 5 Euro NCAP izar • Azkeneko teknologiko VVT-i motorra
Oreka ezin hobea, ezaugarriak, erosotasuna, potentzia, ekonomia eta emisioen kontrola.

Prezioa 26.710 €/ Prezio berezia 22.900 €

Aurreztu 3.810 €

EUSKOAUTO



FINANCIAL SERVICES



www.euskoauto.toyota.es

Pasai Antxo
San Markos 32 eraikina
Tel.: 943 34 50 80

Elgoibar
Olaso poligonoa 25
Tel.: 943 74 74 17

Bergara
Olabarrena auzoa z/g
Tel.: 943 76 23 85

Olaberria
Yurre auzoa, karob. pol.
Tel.: 943 80 59 24